

**DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO
CURRICULUM PROIEKTUA**

Ander Deuna Ikastola

AURKIBIDEA

I. Dokumentu honen ezaugarriak eta erreferentziazko esparru arauemailea	3
1. Dokumentu honen ezaugarriak eta erabilera	4
2. Esparru arauemailea eta ICPren aipamenak	5
II. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektuaren alderdi orokorrak	9
Sarrera	10
1. Etapako helburu orokorrak egokitzea	10
2. Arlo desberdinetako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak zikloka banatzea	16
3. Ikastetxearen hizkuntz planteamendua	18
4. Irizpide metodologiko orokorrak	21
5. Material curricularrak eta baliabide didaktikoak	29
6. Aniztasuna tratatzeko eta egokitzapen curricularretarako irizpideak	35
7. Ikasleen ebaluazioa	45
8. Hezkuntza-orientabidea eta tutoreen lana	57
9. Zehar-lerroak curriculumean txertatzeko orientabideak	63
10. Curriculum Proiektuaren eta irakaskuntzaren ebaluazioa	65
III. ERANSKINAK	67
1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	69
2. Curriculum ezberdinak eratzeko Programa	73
3. Zehar-Lerroak	77

**I. DOKUMENTU HONEN EZAUGARRIAK ETA
ERREFERENTZIAZKO ESPARRU
ARAUEMAILEA**

1. DOKUMENTU HONEN EZAUGARRIAK ETA ERABILERA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Ikastetxearen Curriculum Proiektua proposatzen duen dokumentu honen helburua ondokoa da: hausnarketa egiten lagunduko duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren hezkuntzako ikastetxeek Curriculum Proiektua osatzen duten alderdi desberdinei buruz hartu behar dituzten erabakiak hartzeko lagungarri izango den tresna eskaintzea.

Dokumentuak, legeak ezarritako betebeharrekin bat etorrira, Curriculum Proiektu batean kontuan izan behar diren gai guztiak aztertzen ditu eta, zehazki, indarrean dauden arau desberdinen arabera, bertan agertu behar duten erabakiak.

Dokumentu irekia idatzi da apropos. Hala, bada, aztertzen diren gai guztietan proposamen desberdinak egiten dira; proposamen horiek, batzuetan, hezkuntza-irizpide desberdinei erantzuten dieten irtenbideak dira eta aukera horien artean bat erabaki behar dute irakasleek. Beste kasu batzuetan proposamenak bateragarriak dira eta guztiak edo irakasleei egoki iruditzen zaizkienak onar daitezke. **Oro har, planteatzen diren gai gehienetan ikastetxe bakoitzak erantzun bat eman behar du eta aukera bat egin behar du, dagokion errealitatearen arabera eta bere ezaugarri eta hezkuntza-planteamendu berezien arabera.**

Dokumentu hau ondo eta sakon irakurri behar da eta irakasleen klaustroak erabakiko du zein neurritan aberats dezakeen beren Curriculum Proiektua. Ikastetxean egindako Curriculum Proiektuak dituen hutsuneak antzemanaz eta erabaki bat hartzeko edo aldatzeko interesean oinarrituta, klaustro bakoitzak lan hori egiteko modua planteatuko du eta errealitate bakoitzaren arabera desberdina izango da: aurkeztutako proposamenak aukeratzea edo gaitzestea, proposamen horietako batzuk gehiago lantzea edo zehaztea, testuan ageri direnetan oinarrituta gai berriak planteatzea...

Dokumentu honen azken atalean proposamen bat ageri da eta proposamen horretan tresna eta erreferentzia batzuk daude, zuzendaritza-taldeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua lantzeko prozesua antolatzeko eta orientatzeko orduan lagungarri izan daitezten.

Dokumentu honetan erabilitako KODEAK:

- ◆ Sinbolo hau duten atalak araudian ageri diren alderdiak dira eta, beraz, derrigorrez bete behar dira.
- Sinbolo honek ikastetxeak sinbolo hori duten atal edo proposamenetan ageri den informazioa osatzeko edo iradokitzen diren proposamenak eta irizpideak zabaltzeko aukera duela esan nahi du.

Dokumentu honetako atal bakoitzean kontuan izan daitezkeen aukera eta irizpide batzuk gehitu dira; ikastetxe eta talde bakoitzak aukera eta irizpide horiek egokiak diren erabaki ahal izango du eta, egoki deritzon heinean, bere proiektuan ideiak baztertu, zehaztu edo gehitu ahal izango ditu.

2. ESPARRU ARAUEMAILEA ETA ICP-REN AIPAMENAK

1/1993 LEGEA, otsailaren 19koa, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKOA.

- 16. atala. 2. Ikastetxeek ikasturte hasieran jakinarazi beharko dituzte ebaluazio-irizpideak eta ikasmilla nahiz ziklo bakoitzean gaintitu beharreko gutxieneko helburuak, ikastetxearen ikasketa-proiektuan jasotakoak hain zuzen.
- 47. atala. Ikastetxearen ikasketa-proiektuak hezkuntza-proiektua garatzen du irakaskuntzaren arloan. Gutxienez, ondorengo edukiak izango ditu:
 - a) Ikasleen beharrei egokitutako irakaskuntza-helburuak eta -edukiak, irakaskuntzaren alderdi guztietan, indarrean dauden irakaskuntza elebiduneko ereduak ikastetxean ezartzeari loturikoak barne.
 - b) Irakaskuntza-edukien banaketa.
 - c) Ikastetxeko irakasleen lanak jarraipena izango duela berma dezaten pedagogi eta irakas-irizpideak.
 - d) Irakas-metodologiaren eta ikas-materialen alorrean egindako aukerak.
 - e) Hezkuntzako beharizan bereziei nola egingo zaien aurre.
 - f) Ebaluazio-irizpideen gauzatzea eta osabetetzea.

Azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoa, IKASTETXEEN PARTE-HARTZEARI, EBALUAZIOARI ETA AGINTEARI BURUZKOA.

- 5. atala. Ikastetxeek kudetatzeko duten autonomia.

Ikastetxeek antolamenduaren eta pedagogiaren kudeaketaren eredia zehazteko autonomia izango dute eta, kasu bakoitzean, dagozkien **hezkuntza-proiektuen** eta **curriculum-proiektuen** bidez zehaztuko da eta, hala dagokionean, funtzionamendu-arauen bidez.
- 15. atala. Irakasleen Klaustroaren eskumenak.
 - a) Zuzendaritza-taldeari **ikastetxearen proiektuak** eta urteko programazio orokorra egiteko proposamenak formulatzea.
 - b) Ikastetxearen programazio orokorraren curriculum-proiektuak eta irakaskuntzari dagozkion alderdiak onartzea eta ebaluatzea, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin bat etorritik.

213/1994 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa (1994-08-17ko EHAA), EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRICULUMA EZARTZEN DUENA

- 12. atala
 - 1. Ikastetxeek **etapako curriculum-proiektuen** bidez zehaztu eta osatuko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-a. Etapako curriculumetako helburuak, edukiak, metodologia-irizpide orokorrak eta ebaluazio-prozesuari, hautazkotasunari nahiz aniztasunari buruzko erabakiak testuinguru sozioekonomiko eta kulturalari egokitu behar zaizkio, eta baita ikasleen premiei nahiz ikastetxeak hartutako hizkuntz aukerei ere.
 - 2. **Etapako curriculum-proiektuetako** helburu, eduki eta ebaluaziorako nahiz sustapenerako irizpideak zikloka banatuko dira. Banaketa hori ezin da aldatu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak iraun artean, ikasle-taldea aldatzen ez bada behinik behin. Ikasturte edo ziklo bakoitzean izan diren ebaluazio-irizpideak eta gaintitu beharreko gutxieneko helburuak ikasturtearen hasieran jakinarazi behar zaizkie ikasleei.
 - 3. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua curriculum-proiektua baldintzatuko duen markoa izango da. Edonola izanik ere, irakasle-taldeek eratzen dituzten etapako curriculum-proiektuak ikastetxe bakoitzaren programazio orokorrean sartuko dira.
 - 4. Irakasle-taldeari dagokio Curriculum Proiektuak lantzea eta onartzea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak curriculumaren garapena sustatuko duten materialen lanketa

bultzatzeaz gain, irakasleek zentzu horretan egin beharreko lana orientatzeko xedapenak eman eta horiek gainbegiratzeko prozedurak arautuko ditu.

5. Ikastetxeren batean etapa bat baino gehiago irakatsiz gero, guztiek azaldu behar dute Curriculum Proiektuan. Era berean, etapa bukatzerakoan ikasleak beste ikastetxeren batera bidaltzen nahiz beste ikastetxeren bateko ikasleak hartzen dituzten ikastetxeen arteko koordinazioa eta jarraikortasuna bultzatuko da.

- 13. atala.- Irakasleek, beren irakas-jardunaren programazioak lantzeko orduan, ondokoak hartu beharko dituzte kontuan besteak beste: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak, etapako curriculum-proiektua eta bertako ikasleen berariazko ezaugarriak.

- 15. atala.- 1. Irakasle bakoitzak (...) beste hiru gauza ere ebaluatu beharko ditu, hala nola, **hasitako curriculum-proiektua**, irakas-programazioa eta, bukatzeko, curriculumak izandako garapen erreala, azken hori ikastetxearen hezkuntza premiei eta ikasleen berariazko ezaugarriei moldatzen ote zaien aztertu behar duelarik...

25/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA EZARTZEN DUENA (96-01-26ko EHAA)

II. ATALBURUA. IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA

15. atala. Ikastetxe publikoek eta itunpeko pribatuek emango dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion ikasketak, ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuak ezarritako curriculum ofizialaren arabera. Ikastetxeak berak zehaztuko du bere ikasketa-proiektua eta plan horretan garatuko da hezkuntza-proiektuak hartzen duen irakastearen arloa. Horrela beteko da dekretu horren 12. atalean agintzen dena.

16. atala. DBHko curriculum-proiektuan ikastetxearen inguruko gizarte, ekonomia eta kulturari, ikasleen ezaugarriari eta beharrei, hizkuntza-aukerei eta ikastetxe bakoitzeko baliabideei egokitu beharko zaizkie etapako helburu orokorrak. Gutxienez honako zehaztasun hauek izan beharko ditu:

- Irakaskuntzaren arlo guztietan, baita zikloetako banaketan ere, ikasleek dituzten beharrei egokitutako helburu eta edukiak.
- Hizkuntzaren tratamenduari buruzko irizpideak.
- Ebaluazio-irizpideak zehaztea, osatzea eta ziklotan banatzea eta ebaluazioari eta promozioari buruz erabakiak hartzea.
- Pedagogiari eta didaktikari buruzko irizpideak, metodologi aukerak eta curriculum-materialak zehaztea ikastetxeko irakasleen lanaren jarraipena bermatzeko.
- Hezkuntza-premia bereziak bideratzeko modua.
- Curriculum-proiektu desberdinak eratzeari eta plan horien aukerakotasunari buruzko erabakiak.
- Arlo desberdinen bidez, zehar-lerroak curriculumean txertatzeko orientabide orokorrak.
- Aholkuak emateko eta tutore-lanak egiteko irizpideak.

17. atala. DBHko curriculum-proiektua ikastetxearen curriculum-proiektuaren zati bat izango da etapa bat baino gehiago ematen dituzten ikastetxeetan. Horrek ez dauka zertan ikastetxearen nortasunaren kaltetan joan, bere helburua beste etapetako curriculum-proiektuekin koherentzia osoa gordetzea baino ez da eta.

18. atala. Ikastetxeek etaparen curriculum-proiektuak egingo dituzte, berau ezarri ahala. Ezartzeko prozesua ixtean, curriculum-proiektua hezkuntzako administrazioari aurkeztuko zaio.

Hezkuntzako Ikuskatzailetza Teknikoaren txostena beharko du administrazioak curriculum-proiektua arauekin bat datorren erabaki ahal izateko eta, behar denean, bere bideragarritasunari buruz oharrak egiteko.

19. atala.

19.1. Irakasleen klaustroak eratu eta onartu beharko du curriculum-proiektua. Maila Goreneko Ordezkapen-organoak edo Eskola Kontseiluak, Ikastetxe Publiko eta Itunpekoetan, hurrenez hurren, bere iritzia emango du ikastetxeko curriculum-proiektuetako irizpideen egokitasunari buruz behin betiko onarpena eman aurretik.

19.2. Curriculum-proiektuan jasotako erabakiak urtean zehar bete diren zehazteko, urteko planeko irakaste-ekintzen programan eta prestakuntza-ekintzen, eskola-ordutik kanpoko ekintzen nahiz ekintza osagarrien programan azaldu beharko dira Ikastetxe Publiko eta Itunpekoetan.

19.3. DBHko ikasketak ematen dituzten ikastetxeetako klaustroak kontuan hartu beharko ditu, etapako curriculum-proiektua prestatzen duten bitartean, euren mende dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxeen curriculum-proiektuak. Horrela, 213/1994 Dekretuaren 12.5 atalak aipatzen duen koordinazioa lortuko da. Koordinazio hori hobetzeko, lehen hezkuntzako ikastetxeei DBHko curriculum-proiektuaren kopia bidaliko zaie.

1996ko uztailaren 6ko AGINDUA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUARENA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN IKASKETA-PLANEAN HAUTAKETA EGITEKO AUKERAK ARAUTZEN DITUENA (96-08-09ko EHAA)

8. atala.

8.1. DBH ezartzeari buruzko urtarrilaren 23ko 25/1996 Dekretuaren 15. atalaren arabera, etapako **curriculum-proiektuak hautazkotasunari** dagozkion erabakiak ere hartu behar ditu. Banatu daitezkeen edo bitan bereiztuta eman daitezkeen derrigorrezko arloez gain, erabaki horiek honako alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan, gutxienez:

- a) Planteamendu orokorra aukerakotasunak ikastetxean duen tokiaz, lortu nahi diren xedeez eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren osotasunean duen kokapenaz.
- b) Eskainiko diren hautazko gaiak, gai horien curriculumak eta gai horiek etapako zikloetan eta mailetan ezartzea.
- c) Araudipean ez dauden aukerako ikasgaien irakasleei esleipen-irizpideak.

1996ko uztailaren 16ko AGINDUA, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN EBALUAZIOARI BURUZKOA (96-08-09ko EHAA)

3.2 atala. Etapako curriculum-proiektuak zikloka zehaztu, osatu eta banatu behar ditu helburu eta ebaluazio-irizpide horiek, eta baita ebaluazioaren eta igarotzearen prozesuari buruzko erabakiak ere, urtarrilak 23ko 25/1996 Dekretuaren 16. atalaren arabera.

Erabaki horiek honako gai hauei eragingo die, agindu honetan ezartzen diren muga barruan beti ere: ikasleen aurrerapen akademikoari buruzko informazioa lortzeko egokientzat jotzen diren estrategiei eta baliabideei, ikasleek norberaren eta taldearen ebaluazioan parte hartzeko jardunbideei, igarotzearen irizpideei agindu honetako III. atalburuan aurreikusten diren kasuetarako eta ebaluazio-prozesuari berari, saioen araudia barne.

15. atala. Igarotzeko irizpideak Etapako Curriculum Proiektuan

15.1. Ebaluazioari dagokionez, curriculum-proiektuak eduki behar dituen erabakien artean daude derrigorrezko arlo edo hautazko gairen batean ebaluazio negatiboa izan arren

hurrengo zikloko edo mailako ikasketak jarraitu ahal izateko gaitasunak garatu dituztenen ziklo-igarotzeko irizpideak, edo bigarren zikloaren barruan kurtso-igarotzekoak.

15.2. Nolanahi ere, Etapako Curriculum Proiektuak lehen zikloko eta bigarren zikloko lehen mailako azken ebaluazioko saioretan arlo bat edo bi negatibo ebaluatutako ikasleen igarotzea ez oztopatzea ziurtatu behar da. Gutxienez irakasleen bi herenen gehiengoz erabaki ahal izango da ikasleen igarotzea nahiz eta negatibo ebaluatutako arloak izan, baina, beti ere, negatibo ebaluatutako arlo horiek egindako zikloko edo mailako irakastorduen % 50a gainditzen ez dutenean.

22.1. atala. Antolamendu eta Jarduera Araudiak (AJA), herri ikastetxeetan, eta Barne Araudiak (BA), ikastetxe pribatuetan, ikasleei eta beren legezko ordezkariari ikastetxearen curriculum-proiektura sartzeko aukera eman beharko diete. Interesatu guztiek agindu honetako 3.2 azpiatalean adierazten diren ezaugarriak ezagutzen dituztela ziurtatu behar da.

**II. DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZAKO CURRICULUM
PROIEKTUAREN ALDERDI OROKORRAK**

SARRERA

Curriculum Proiektuaren lanketa, gaur egungo legediak antolamenduari eta curriculumari dagokienez ematen digun autonomian oinarrituta egin dugu eta etapa honen ezaugarriei buruzko hausnarketan izan du abiapuntua, Administrazioaren oinarritzko curriculumaren egokitzapena delarik. Irakasleek beren praktikari buruz egindako analisiaren emaitza izan da eta une bakoitzean koherenteagoa egiteko eta ikasleen ezaugarrietara eta gure hezkuntza-elkartearen eskaeretara hobeto egokitzeko irakasleek hartutako erabakiak biltzen ditu.

Curriculum Proiektua Eskola Elkarte ororen oinarritzko erreferentzi puntu dela uste dugu eta, bestalde, gure hezkuntza-ekintza hobetzeko eta berritzeko tresna eraginkorra. Beraz, irakasle guztiek onartu behar duten dokumentua da eta kontuan izateko eta ikasleekin eguneroko lanean aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Curriculum Proiektua ikastetxeko zereginen eraginik gabeko dokumentu burokratiko hutsa izan ez dadin, gure hezkuntza-ekintza inspiratu eta dinamizatuko duen tresna eragile bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu eta, bestalde, etengabe hobetu eta berrikusi beharreko tresna izango da, gure errealitatearekin, esperientziarekin eta prestakuntzarekin kontrastatu beharko baita uneoro. Horretarako, dokumentu honetan Curriculum Proiektuaren etengabeko ebaluazio eraginkorra egiteko mekanismo batzuk finkatu dira, desorekak bilatu ahal izateko eta etengabe hobetzeko aldaketa egokiak egiteko.

1. ETAPAKO HELBURUAK IKASTETXEAN

Legediak agindutakoa betez, gure etapako hezkuntza-helburu nagusiak, gure hezkuntza-ekintzak oinarritzat hartu behar dituenak, honako hauek dira:

- ◆ Ikasleei gure kulturako oinarritzko elementuak adieraztea.
- ◆ Beren betebeharrak betetzeko eta eskubideak erabiltzeko prestatzea.
- ◆ Bizitza aktiboan parte hartzeko prestatzea.
- ◆ Erdi-mailako berariazko Lanbide Heziketara edo Batxilergora igarotzeko prestatzea.

Helburu horien bitartez, uneoro pertsonaren erabateko garapena sustatzen ahaleginduko gara bai esparru intelektualean, motorrean, oreka pertsonalaren esparruan eta sentimenduen esparruan, pertsonen arteko harremanean nahiz gizarteko jokoan eta parte-hartzean.

1.2. GURE IKASTETXEAREN ETA IKASLEEN EZAUGARRIAK

Curriculum Proiektu honek honako hauetara egokitutako curriculumak definitzen du:

8 unitate eta 2 lerro dituen etapa baten ezaugarriei egokitutakoa, ikastetxearen ingurua ondokoa izanik:

- erdi-hiritarra
- sozialki ondo ikusia
- soziolinguistikoki gehiengo erdalduna

ikasleei egokitutakoa, ezaugarri hauek izan ditzaten:

- | | |
|----------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> eleanizduna | <input type="checkbox"/> aniztasun pertsonala eta |
| <input type="checkbox"/> errespetuz, tolerantziaz eta | soziokulturala errespetatuko dituen |
| <input type="checkbox"/> elkartasunez jokatu duena | <input type="checkbox"/> bere betebeharrak ezagutuko dituen |
| <input type="checkbox"/> arduratsua eta bere lanaren eta | eta bere eskubideak erantzukizunez |
| ekintzen kontzientzia duena | erabiliko dituen |
| <input type="checkbox"/> bere aukeretan eta interesetan | |
| oinarrituta, etorkizunari buruzko | |
| erabakiak hartzeko gaitasuna izango | |
| duena | |

Ikastetxe honetan, etapako helburuen lehentasunaren adierazle gisa ondorengo zeharlerroak izango ditugu kontuan bereziki:

- | | |
|-----------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> sexuen berdintasunerako hezkuntza | <input type="checkbox"/> kontsumo-hezkuntza |
| <input type="checkbox"/> giza eskubideen hezkuntza eta bake-hezkuntza | <input type="checkbox"/> bide-hezkuntza |
| <input type="checkbox"/> osasunerako hezkuntza | <input type="checkbox"/> komunikabideen hezkuntza |
| <input type="checkbox"/> garapenerako hezkuntza | <input type="checkbox"/> interkulturalismoaren aldeko hezkuntza |
| | <input type="checkbox"/> ingurugiro-hezkuntza |

1.3. ETAPAKO HELBURU OROKORRAK DEFINITZEA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu orokorren analitiko ondorio hauek atera ditugu eta ICPren garapenean kontuan izango ditugu:

Dekretuaren helburuak	Irakurketaren ondorioak gure ikastetxean
a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarriko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieenak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.	- Diziplinarteko izaera izango duten unitate didaktiko batzuk antolatuko ditugu tutoretzan ondorengo gai interesgarri hauen inguruan: tabakoa, drogazaletasuna, osasuna, sexualtasuna eta elikadura (anorexia eta bulimiaren gaiak sartuz) eta kontsumotik eta teknologia berriekin erlazioatutako produktuen erabileratik (telebista, bideojokoak, Internet, lan-ohitura ordenagailuarekin...) ondorioztatutako arazoak. - Herrian osasunaren gaia landuko duten instituzio edo taldeekin harremanak izateko aukera aztertuko dugu, inguruko baliabideei probetxu ateratzeko eta elkarrekin inplikatzeko.
b) Bere buruaz irudi ona izatea, bere ezaugarriak eta aukerak ezagutzeko, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gainditzea baloratuz.	- Ikasleei beren ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa emango diegu modu jarraituan eta etengabe, autoestimua sustatzeko egindako lorpenak azpimarratuz, hanka-sartzeak ere ikaskuntza-iturri direla ahaztu gabe. - Informazio hori kualitatiboa izango da funtsean, ikasleak bere buruaz duen kontzeptua kalte dezaketen konparazioak saihestuz. - Ikasleei erabakiak hartzeko aukera emango dieten jarduerak planteatuko ditugu eskolan eta gure jokaera horren bidez ikasleei konfiantza adierazten saiatuko gara, hala, autoestimua, beren aukeretan duten konfiantza eta beren buruenganako edo besteenganako errespetua sendo dezaten. - Ebaluazio-prozesuan taldeko eta bakarkako autoebaluazioa sustatuko dugu eta emaitzen, norberaren gaitasunen eta egindako ahaleginaren arteko lotura izango dugu kontuan.

<p>c) Beste pertsona batzuekin erlazionatzea eta taldeko jardueretan parte hartzea elkartasuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurreiritziak gaituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratuz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialean oinarritutako diskriminazioak baztertuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen aniztasuna aprobetxatuz, gure curriculumean elkartasunean eta tolerantzian hezteko berariazko edukiak garatuko ditugu. - Irakaskuntza eta ikaskuntzarako jarduerak antolatuko ditugu, talde-lana sustatuko dutenak: irakasle guztiek eskolen garapen arruntean taldean egiteko jarduerak antolatzeko konpromisoa hartzen dugu. - Ikasgelako materialak berrikusiko ditugu, edozein motako diskriminazioa saihesteko, eta hizkuntz adierazpenetan eta jokabideetan diskriminaziozko erabilerak baztertuko ditugu irakasleen nahiz ikasleen aldetik. - Helburu honetan inplikaturako gaiak, hala nola bakea, arrazakeriaren bazterketa eta aniztasunaren errespetua, erabiliko dituzten kanpainen prestakuntza edo kanpaina horietan parte-hartzea sustatuko dugu. - Taldeko kide guztiei pertsona desberdinak –ezaugarri bereziak dituztenak– daudela naturaltasunez ikustarazten eta diren modukoak onartzen saiatuko gara. - Ikasleak elkarri laguntzera bultzatuko ditugu, batez ere ikaskuntzarako edo talde-bizitzarako zailtasun handienak dituztenei laguntzera. - Talde-lanerako prozesuen elementuak ebaluatzeko tresnak eta irizpideak bilatuko ditugu: besteekiko elkartasuna, erantzukizunak hartzea, beste pertsonak eta beren iritziak errespetatzea etab. - Beste kultura eta herrialde batzuetako ikasle-talde batzuekin esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko jarduerak antolatuko ditugu (zerbitzu telematikoen eta jarduera osagarrien bitartez). - Aukerakotasunari dagokionez, talde-lanerako jarrerak eta prozedurak izango dira horien garapenerako erreferenteetako bat.
<p>d) Gizarte funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei eta betebeharrak buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxea hezkuntza-elkartea dela kontuan izanik, tutoretzak Antolamendu eta Jarduera Araudian bildutako ikasleen eskubideak eta betebeharrak landuko ditu. Taldeko eztabaidak eta jarduerak erabiliko dira azterketarako tresna gisa eta iritziak eta balioak lantzeko. - Gatazkak konpontzeko bide gisa elkarriketak duen garrantzia azpimarratuko dugu. - Ikasleek eskolan parte hartzeko printzipioak eta prozedurak zehaztuko ditugu. - Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerak antolatuko ditugu giza eskubideen, bake-hezkuntzaren, emakumearen berdintasunaren eta langileen eskubideen inguruan.
<p>e) Ingurune fisikoaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarritzko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune horretan duten eragina baloratzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizikaltatearen funtsezko elementu baita.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleek ikaslearen ingurune fisiko hurbila zaintzeko jokabideari buruzko jarraibideak emango dituzte, ingurugiroarekin lotutako ohiturak gara ditzaten, hala nola paperak jasotzea eta paper birziklatua erabiltzea, ikasgela zaintzea eta garbitzea, lorategia errespetatzea, energia elektrikoaren eta berogailuaren kontsumoa aurrezte etab.. - Ikertzeko metodologiak erabiliko ditugu ikasleek bizi-kaltatearen hobekuntzan aktiboki parte har dezaten. - Ebaluazioan helburu honekin lotutako jokaera positiboen garapena izango dugu kontuan.
<p>f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta baloratzea eta baita dituen aplikazioak eta inguru fisiko eta sozialean duen eragina ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Natur Zientziak, Oinarritzko Teknologia, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloetan landuko da bereziki eta ikasleek zientziaren eta “sasi-zientziaren” artean bereizi dezaten ahalegina egingo da. - Gure ikasleen bizimoduan eragin handien duten alderdi zientifiko eta teknologikoei nahiz aurrerakuntza horiek ekonomian, ingurugiroan eta gizartearen dituzten ondorioei buruzko edukiak garatuko ditugu. - Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei (IKT) dagokienez, horien funtzionamendua eta esanahiak sortzeko moduak ezagutzeaz gain, horiek dituzten arriskuak eta onurak ere aztertuko dira,

	<p>baliabide teknologikoetan oinarritutako informazioaren eta komunikazioaren kultura den heinean.</p>
<p>g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntz normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.</p> <p>l) Gure tradizioaren eta kultur ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarritzko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketan garapena sustatuko duten aukerak egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gure programazio didaktikoetan, ahal dugun neurrian, gure tradizio eta ondare kulturaleko sinesmenei, jokabideei eta balioei buruzko testuak eta dokumentuak erabiliko ditugu. - Ikaskuntza-egoerak ahalbidetuko dituzten metodologiak eta jarduerak erabiliko ditugu, ikasleek gure gizartearen tradizioari eta kultur ondareari buruz hausnarketa egiteko eta eztabaidatzeko aukera izan dezaten. - Inguruko talde kulturalekin harremanetan jarriko gara interesgarri iruditzen zaizkigun gaietan (musika-taldeak, elkarte etnologikoak, ikerketa-elkarteak...) lankidetzan sustatzeko, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo. - Ikastetxearen kultur aberastasuna aprobeztatu dugu edozein kultur adierazpenen aurrean jokaera positiboak garatzeko funtsezko elementu gisa.
<p>h) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta, gutxienez, hizkuntza atzerritar batean, komunikatzeko eta bere pentsamenduak antolatzeke nahiz hizkuntzaren erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntz mintegiekin batera arlo bakoitzeko testu arruntenei buruzko lan bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, hala, arlo guztietan edukiari nahiz plangintzaren eta koherentziaren funtsezko alderdiei buruzko lana errazteko ikasleekin. - Hizkuntza bat baino gehiago barne hartzen dituzten proiektuen programazioa sustatuko dugu, hizkuntz arloen programazio integratua egiteko oinarriak ezar ditzaten. - Irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuan nahiz ebaluazioan ondorengo alderdiei erreparatuko diegu: koherentzia adieraztea; gai bat azaltzeko orduan zailtasunik ez izatea; eztabaidetan parte hartzen duenean hiztegi egokia erabiltzea; idatziak modu egokian aurkeztea; testuak koherentzia eta adierazpen aberatsez eratztea, testua ondo antolatzea... - Hizkuntza sexistaren erabilera baztertuko dugu komunikazio-forma guztietan. - Azalpen-metodologiarekin batera, beste metodologia batzuk erabiliko ditugu; ikasleen parte-hartze aktiboa ahalbidetuko dute eta ikasgelan komunikatzeko bide berriak irekiko dituzte. - Trebetasun kognitibo hauek hezkuntza indartzeko eta aukerakotasunaren alorreko antolamenduaren oinarritzko erreferenteak izango dira, ondorengo ikasgaien bitartez: <i>Atzerriko 2. hizkuntza</i>, <i>Ipuinen lantegia</i> eta <i>Prentsa-lantegia</i>. - Ohiko baliabideez gain, IKTek ahozko mezuak nahiz mezu idatziak erregistratzeko eta maneiatzeko eskaintzen dituzten aukerak erabiliko ditugu.
<p>i) Kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gure programazio didaktikoetan, ahal den neurrian, gaitasun didaktiko handiko komunikatzeko beste modu batzuk erabiliko ditugu. Esate baterako, gai interesgarri bat oinarritzat hartuta, ikasleek bideo bat prestatuko dute, beste kode batzuk erabiliz adierazteko aukera izan dezaten. - Mezu artistikoak, zientifikoak, teknikoak eta antzeko mezuak komunikatzeko sormena eta autonomia sustatzen ahaleginduko gara. - Helburu hau errazago lortzeko, ikastetxeak honako hautazko ikasgai hauek eskainiko ditu: <i>Adierazpen dramatikoak</i>, <i>Artisautza-lantegia</i>, <i>Ikus-entzunezko komunikazioaren lantegia</i>.
<p>j) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuetan pentsamendu-formen erabilera sustatuko dugu eta gure irakaskuntza-praktikan zalantzak planteatzea eta proposamen didaktikoak "problema" gisa aurkeztea gauza arrunta izango da. - Aukera metodologiko zehatzak erabiliko ditugu –proiektu eta

<p>prozeduren bitartez, horiek kontrastatuz eta jarraitutako prozesuari buruz hausnarketa eginez.</p>	<p>lantegietan egiten den lana adibidez-, helburu hau lortzeko lagungarri izan baitaiteke.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioan jarraitutako prozesuen eta ikasleek planteatutako problemen soluzioa bilatzeko erabilitako metodologiaren balorazioari garrantzi handiagoa emango diogu.
<p>k) Informazioa lortzea eta aukeratzea informazio hori lortzeko ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoa erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntzarako bide gisa informazio-iturri bakarra ez erabiltzea erabaki genuen eta, horregatik: - Ikasgelako lanean, testu-liburuaz gain, beste iturri dokumental batzuk erabiliko ditugu; ikasleek iturri horiek ondo ezagutuko dituzte eta aukera didaktiko zabalak eskainiko dizkiete: egunkariak, aldizkariak, informazio-liburuxkak, dokumentuak, elkarrizketak, inkestak, telebista, bideoa, euskarri informatikoak etab. - Ikasgelan nahiz ikastetxean informazio eta iturri desberdinak erabiltzea eta besteen aurrean azaltzea eskatuko duten jarduerak antolatuko ditugu. - Dokumentazio-zentro gisa liburutegia (ikastetxekoa, auzokoa...), laboriorioa eta beste eremu batzuk erabiliko ditugu. - Ikerketa-metodologiaren bitartez “ikerlan” laburrak egitea proposatuko dugu: problemaren planteamendua, informazio-iturrien erabilera, datuen tratamendua, sailkapena, ondorioa eta emaitzen komunikazioa. - Ikasleak ebaluatzerakoan, iturriak nola erabiltzen dituzten, emaitzak nola aurkezten dituzten, taldean nola lan egiten duten (entzuten duten, arrazoiak ondo adierazten dituzten, parte hartzen duten), problemak nola formulatzen dituzten etab. kontuan izango ditugu. - Aukerakotasunari dagokionez, ondorengo ikasgaia eskainiko dugu: <i>Prentsa-lantegia.</i>

1.4. LEHEN HEZKUNTZAKO ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORREN ARTEKO ERLAZIOA

LEHEN HEZKUNTZAKO HELBURUAK	DBH-KO HELBURUAK
<p>a) Norberaren gorputza ezagutzea eta baloratzea eta berori garatzeko ahalegina egitea, osasunari, higieneari eta ongizateari dagozkien ohitura onak hartuz eta jokabide zehatz batzuek osasunean eta bizi-kalitatean izan ditzaketen ondorioak baloratuz.</p>	<p>a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieanak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.</p>
<p>b) Jarduera arruntetan eta taldeko harremanetan autonomiaz jokatzeko, ekimenak aurrera eramateko eta harreman afektiboak ezartzeko aukerak garatuz.</p>	<p>b) Bere buruaz irudi ona izatea, bere ezaugarriak eta aukerak ezagutuz, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gaintzea baloratuz.</p>
<p>c) Taldeko jarduerak prestatzen eta egiten parte hartzea, demokratikoki ezarritako arauak eta erregelak onartzea, norberaren helburu eta interesak eta beste kideenak bateratzea ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta tokatzen zaizkion erantzukizunak bere gain hartzea.</p>	<p>c) Beste pertsona batzuekin erlazionatzea eta taldeko jardueretan parte hartzea elkertasuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurreiritziak gaituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratuz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminazioak baztertuz.</p>
<p>d) Pertsonekin harreman orekatu eta konstruktiboak ezartzea egoera sozial ezagunetan, elkartasunez jokatzeko, sexuan, gizarte-klasean, sinesmenetan, arrazan eta beste ezaugarri pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminazioak baztertuz.</p>	

<p>e) Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomenoen arteko erlazioak ulertzea eta ezartzea eta, ahal den neurrian, ingurugiroa babesteko, zaintzeko eta hobetzeko zereginetan aktiboki laguntzea.</p>	<p>e) Ingurune fisikoaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarritzko mekanismoak aztertzea, giza jardueren ingurune horretan duten eragina baloratzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizi-kalitatearen funtsezko elementu baita.</p> <p>f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta baloratzea eta baita dituen aplikazioak eta inguru fisiko eta sozialean duen eragina ere.</p>
<p>f) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko interesa eta errespetua adieraztea.</p>	<p>d) Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea.</p> <p>g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntz normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.</p>
<p>g) g.1. Ahozko mezuak nahiz mezu idatziak ulertzea eta sortzea gaztelaniaz nahiz euskaraz, komunikazio-asmu eta testuinguru desberdinetan. g.2. Atzerriko hizkuntza batean ahozko mezu nahiz mezu idatzi errazak, dagokien testuinguruan, ulertzea eta sortzea.</p>	<p>h) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta, gutxienez, hizkuntza atzerriar batean, komunikatzeko eta bere pentsamenduak antolatzea nahiz hizkuntzaren erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz.</p>
<p>h) Ahoz, gorputzaren bidez, ikusmenaren bidez nahiz adierazpide plastikoak, musikalak eta matematikoak erabiliz komunikatzea, sentikortasun estetikoa, sormena eta lan eta adierazpen artistikoez gozatzeko gaitasuna garatuz.</p>	<p>i) Kode artistikoak, zientifikoa eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.</p>
<p>i) Eguneroko esperientzian oinarrituta, galderak eta problemak identifikatzea eta planteatzea, ezagutzak eta eskura dituen baliabide materialak erabiliz nahiz horiek modu kreatiboan eta autonomoan ebazteko beste pertsona batzuen laguntza eskatuz.</p>	<p>j) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako prozeduren bitartez, horiek kontrastatuz eta jarraitutako prozesuari buruz hausnarketa eginez.</p>
<p>j) Problema errazak ebazteko informazioa lortzeko prozedura egokiak erabiltzea eta kodeen bitartez irudikatzea, horiek ebazteko baldintza materialak eta denborari dagozkionak kontuan izanik.</p>	<p>k) Informazioa lortzea eta aukeratzea informazio hori lortzeko ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoan erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.</p>
<p>k) Bizitza eta gizakion bizikidetzara arautzen duten oinarritzko balioen garrantzia baloratzea eta horien arabera jokatzeko.</p>	<p>l) Gure tradizioaren eta kultur ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarritzko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketen garapena sustatuko duten aukerak egitea.</p>

2.- ARLO DESBERDINETAKO HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ZIKLOKA BANATZEA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza **amaierako izaera duen oinarrizko hezkuntzaren etapa bat da**. Horregatik, arloen programazioan, ondorengo irizpideak izango ditugu kontuan:

- Ikasle guztiek beren gaitasunak garatzea lortu nahi da, etapako helburuetan adierazten den zentzuan, norberaren gaitasunen ezagutzan oinarrituz eta horiek garatzeko jarraibideak eskainiz nahiz jokaera selektiboa saihestuz.
- Ikasle guztiek ikaskuntza instrumentalak eskuratzea lortu behar da, heldutasun-maila egokian.
- Ikasle guztiek gure kulturaren oinarrizko elementuak ezagutu behar dituzte.
- Curriculumaren zati izango dira honako hauek: errespetuzko jokaerak, elkarrizketa, lankidetzeta eta parte-hartzea; horiek guztiak berdintasunezko, askatasunezko, justiziazko eta elkartasunezko baliotan oinarrituko dira.

Batxilergo eta LHko erdi-mailako heziketa-zikloetara igarotzeko **prestakuntzako etapa denez**, DBHn honako helburu hauek ditugu:

- Bi aukera horietako edozeinetan arrakasta izateko beharrezko diren ikaskuntzak eskaintzea, Batxilergoaren baldintza akademikoak eta Lanbide Heziketarako oinarrizko prestakuntzarako eskaerak kontuan hartuz.
- Ikasleak orientatzea beren etorkizuna planteatzeko orduan, beren gaitasunak eta lanbide-interesak ikus ditzaten eta etapa amaitzean erabaki egokiak har ditzaten.

Atal hau oso luzea denez, berorren edukia beste liburu batzuetan jaso da eta etapaosatzen duten arlo bakoitzak honako egitura hau izango du:

- Etapako arloaren zentzua eta ikuspegia
- Edukiak: edukien zehaztapena eta banaketa (aniztasunari erantzuteko irizpideak eta zehar-lerroei buruzko erabakiak aplikatuz)
- Arloko ebaluazio-irizpideak
- Arloko irizpide metodologiko eta ebaluazio-irizpide bereziak
- Aniztasunarekiko arreta eta hezkuntza-errefortzua

- | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none">▪ Euskal Hizkuntza eta Literatura▪ Gaztelania eta Literatura▪ Plastika eta Ikus Hezkuntza▪ Gorputz Hezkuntza▪ Atzerriko Hizkuntza: ingelesa▪ Matematika▪ Oinarrizko Teknologia▪ Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia▪ Natur Zientziak▪ Musika▪ Erlijioa /Antolatutako Hezkuntza Jarduerak |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

DHB-KO HELBURU OROKORRAK	ARLOAK - HELBURU OROKORRAK								
	EUS GAZ	ATZ · HIZ.	NAT ZIE.	MAT	G.H.	PLA	MUS	GIZ. ZIE	TEK
a) Norberaren gorputzaren funtzionamenduaren oinarriko alderdiak eta ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta taldearen osasunean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea eta ulertzea eta ariketa fisikoak egiteak, higieak eta elikadura orekatuak nahiz bizitza osasuntsua eramateak dituzten onurak baloratzea.			6-2	10	4-1	7		4	9
b) Bere buruaz irudi ona izatea, bere ezaugarriak eta aukerak ezagutz, eta jarduerak modu autonomo eta orekatuan garatzea, ahalegina eta zailtasunen gainditzea baloratuz.	10-8	2-5	6 4	10-9	2-3	7-8	6-8	2-6 7-9	1 10
c) Beste pertsona batzuekin erlazioztatzea eta taldeko jardueretan parte hartzea elkartzasuna eta tolerantzia adieraziz, inhibizioak eta aurreiritziak gaindituz, jatorri sozialeko desberdintasunak kritikoki baloratz eta arraza, sexu, gizarte-klase, sinesmen edo beste ezaugarri pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminazioak baztertuz.	4-9	2-6 8	4 7	9-7- 10	5	5-6	5	1-2 3-9 10	7
d) Gizarte funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubideei eta betebeharreri buruzkoak; horiei buruzko iritzi eta irizpide pertsonalak izatea.	3-9	9	6-7 8	9	4-7	2-5		1-2 3-5 10	6-8
e) Ingurune fisikoaren funtzionamendua zuzentzen duten oinarriko mekanismoak aztertzea, giza jarduerak ingurune horretan duten eragina baloratzea eta ingurune hori babesteko, zaintzeko eta hobetzeko ekintzetan laguntzea, bizi-kalitatearen funtsezko elementu baita.			2-7- 8	3-4- 5-6- 9	4	2	7	1-6	2-6 9
f) Garapen zientifikoa eta teknologikoa ezagutzea eta baloratzea eta baita dituen aplikazioak eta inguru fisiko eta sozialean duen eragina ere.	10		5-2- 7-8- 9	7-8- 9		8		4-5 11	2-8
g) Kultur ondarea ezagutzea, estimatzea eta disfrutatzea eta ondare hori zaintzeko eta hobetzeko lan egitea; hizkuntz eta kultur aniztasuna herrien eta norbanakoen eskubide gisa ulertzea eta eskubide horren erabileraren aldeko eta hizkuntz normalizazio prozesuen aldeko interesa eta errespetua adieraztea.	3-6 7-9	7-9	8	7-9	6	2-5- 6	2-3- 6-8	1-3 6 10	6
h) Ahozko mezuak eta mezu idatziak zuzen, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta sortzea euskaraz, gaztelaniaz eta, gutxienez, hizkuntza atzerritar batean, komunikatzeko eta bere pentsamenduak antolatzeke nahiz hizkuntzaren erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko erabiliz.	1-2- 4-5 6-7 8 10	5-3	1	1-2		4		7-8- 9	4
i) Kode artistikoak, zientifikoak eta teknikoak erabiliko dituzten mezuak zuzen, autonomiaz eta sormenez interpretatzea eta sortzea, komunikatzeko aukerak aberasteko eta horien erabileran inplikaturako prozesuei buruz hausnarketa egiteko.	4-5		1	1-2	6	3-4 5	1-7	7-8	4
j) Problema identifikatzeko eta ebazteko estrategiak lantzea ezagutzaren eta esperientziaren alor desberdinetan intuizioan eta arrazoiketa logikoan oinarritutako prozeduren bitartez, horiek kontrastatuz eta jarraitutako prozesuari buruz hausnarketa eginez.	10	10-5	3	4-6- 9	2	9		2-4 5-7 9	1-2 3 10
k) Informazioa lortzea eta aukeratzea informazio hori lortzeko ohiko baliabideak erabiliz eta modu autonomo eta kritikoan erabiltzea aurrez ezarritako helburua lortzeko eta informazio hori besteei ondo antolatuta eta ulertzeko moduan eskaintzea.	5-8 10	4-9 10	5	3-5- 6	7	1-3	4	7-8 11	1-4
l) Gure tradizioaren eta kultur ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarriko balioak ezagutzea, kritikoki baloratzea eta pertsona gisa izan dezaketen garapena sustatuko duten aukerak egitea.	3-6 7-9		8-9	5-7- 8-9	5	1-2		1-2 3-6 10	6-8

3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZ PLANTEAMENDUA

3.1. IKASTETXEAREN EGOERA HIZKUNTZAREN ESPARRUAN

Ikastetxeek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz ofizialen ezagutza eta erabilera nola landuko duten erabaki behar dute eta erabaki hori funtsezkoa izango da; ikastetxea kokatuta dagoen tokiko egoera soziolinguistikoa eta ikasleen ezaugarriek nahiz ikasleek etxean duten hizkuntz egoerek baldintzatzen dute erabaki hori, baina, bestalde, ikastetxeak prozesu horri aurre egiteko adierazten duen borondateak berak ere baldintzatzen du.

Gure ikastetxearen hizkuntz ezaugarriak honako hauek dira:

- **Inguru soziolinguistikoa:** *(ezaugarri esanguratsuenak adierazi: ikasleak bizi diren inguruko hizkuntz nagusitasuna, ikasleen etxean zein hizkuntza hitz egiten den nagusiki, eskuratutako formaltasun-maila...)*
- **Ereduak:** D eredu
- **Ikastetxean ikasten dituzten atzerriko hizkuntzak:**
 - Atzerriko 1. hizkuntza: Ingelesa
 - Atzerriko 2. hizkuntza: Frantsesa

3.2. OINARRIZKO PRINTZIPIOAK.

Alde batetik, gure ikasleen egoera soziolinguistikoa eta, bestetik, eskolatutako ereduaren ezaugarriak eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuan Eskola Elkartek proposatutako helburuak kontuan izanik, gure jokabidea ondorengo printzipioetan oinarritzeko asmoa dugu:

- Hizkuntz helburuak lortzea, bi hizkuntz ofizialei dagozkienak bereziki; ikastetxearen eta ikastetxeko irakasle guztien arduraren nagusietakoa da hori.
- Hizkuntz garapena oinarrizko faktorea da gure ikasleen garapenerako eta ikasteko duten gaitasuna baldintzatzen du curriculumaren arlo guztietan.
- Hizkuntza desberdinen irakaskuntza koordinatu egingo da, batetik bestera ikaskuntza-transferentziak bermatzeko eta batak bestea indartzeko.
- Urtero, batzorde batek Ikastetxearen Hizkuntz Proiektua aztertuko du, horretarako proposatutako helburuak kontuan izanik, eta hizkuntz eremuan jokaera-plana proposatuko du; plan horretan ondorengo espazioetan euskara erabiltzeko neurriak hartuko dira kontuan:
 - administratiboan: administrazioko dokumentazioa, dokumentazio akademikoa eta ekonomikoa...

- pedagogikoan: proiektuak eta programazioak, ekipoen eta sailen dokumentazioa, buletinak, espedienteak...
- harremanetan: irakasleen artekoetan, irakasle eta ikasleen artekoetan, familiekin, administrazioarekin, komunikabideekin...

Irakasle guztiek, dagokigun arloan, ikasleen hizkuntz garapenean dugun erantzukizuna onartzen dugu. Horregatik, ondorengo jarraibideetan oinarrituz jokatzeko asmoa dugu:

- Diskurtsoko trebetasunak (testuak ulertzea eta sortzea eta berariazko hizkuntz kodeak erabiltzea) eskuratzeko arreta berezia jartzea eta hizkuntz adierazpen desberdinen aurrean errespetuzko jokaerak hartzea.
- Ikasgelan erabiliko diren testuak modu egokian aukeratzea, ikasle guztientzat ulergarriak izan daitezten eta horien aurrerapena susta dezaten.
- Ikasleen ahozko adierazpena nahiz adierazpen idatzia erraztea, zuzen, zehaztasunez eta garbi idazten dutela egiaztatuz, eta elkarrizketarako eta kritikarako gaitasuna ikustea.
- Irakurtzeko ohitura sustatzea.
- Ikasleek informazioa bilatzen eta aukeratzeko jakitea, horretarako iturri desberdinak erabiliz, eta ikaskuntza hobetzeko probetxu ateratzea.
- Irizpide komunetan oinarrituta, ortografiari garrantzia ematea.
- Etxeko hizkuntza ez den beste hizkuntza batean eskolatuta dauden ikasleen behar bereziak kontuan izatea, batez ere irakaskuntza-jarduerak diseinatzerakoan eta material curricularrak aukeratzekoan.

Ikastetxean erabiltzen diren hizkuntzak ezagutzen ez dituzten ikasle imigranteekin izan beharreko hizkuntz jokaera:

- Curriculumean nagusi den irakasle-hizkuntza ikasteko laguntza berezia eskaintzea.
- Ikasle hauen sinesmenak, ohiturak, erabilerak... ezagutzeko ahalegina egitea, elkarren arteko ulermena sustatzeko eta ikaskuntzarako beharrezkoa den enpatiazko giroa sortzen laguntzeko.
- Ikasle horien hizkuntzaren oinarritzko ezagutzak eskuratzea (agurrak, esaldi esanguratsuak...), beraien errealitatera hurbiltzeko eta baloratu ahal izateko.
- Ikasle horren taldean haren kultura ezagutzeko jarduera batzuk prestatzea, berorrek zubiak ezarri ahal izateko.

3.3. EREDU BAKOITZERAKO BERARIAZKO NEURRI ETA IRIZPIDEAK.

D HIZKUNTZ EREDUA

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hizkuntzei buruzko helburu orokorrak, ikastetxearen D hizkuntz eredia eta kokatuta dagoen inguruko egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, gure ikastetxean hizkuntz planteamenduei dagokienez ondorengo jarraibideak hartuko ditugu oinarritzat:

1.- Alderdi curricularrak:

1) Hizkuntzen presentzia curriculumean:

- ◆ Irakasle-hizkuntza euskara izango da, gaztelania eta atzerriko hizkuntzari dagozkion arloetan izan ezik.

- Euskara arloaren etapako azken zikloan lana euskalki hurbilenaren aldagaiaren ahozko testuekin nahiz testu idatziekin osatuko da.
- Gaztelania irakasteko erabiltzen den denboran euskaraz egindako arlo guztietan barneratutako ezagutzak erabiliko dituzten jarduerak egingo dira, gaztelaniaz ere lexiko egokia erabil dezaten.

2.- Antolamenduari buruzko alderdiak

2.a) Komunikatzeko hizkuntza:

irakasleen artean:

- Euskara izango da irakasleek beren artean komunikatzeko erabiliko duten hizkuntza, bai ikasleen aurrean, lan-saiotetan, bileretan etab.

ikasleekin eta ikasleen artean:

- Irakasleek euskara erabiliko dute ikasleekin erlazionatzeko ikasgelaren barnean nahiz kanpoan.
- Ikasleei eskolako jardueretan euskara erabiltzea eskatuko zaie eta jarduera ludikoetan ere euskararen erabilera sustatuko da.

familiekin:

- Familiekin izango diren harreman pertsonaletan eta bidaliko zaizkien ohar idatzietan euskara erabiliko da, baina gurasoek euskara ezagutzen ez duten kasuetan elebidunak izango dira harreman horiek.

beste ikastetxe eta instituzio batzuekin:

- Harremanak euskaraz nahiz bi hizkuntzatan garatuko dira.

2.b) Irakasleen antolamendua

- Euskara Sailak ikastetxean euskarak duen egoera zainduko du eta hizkuntza hori sustatuko du, eskolako bizitzako eremu guztietan euskararen presentzia bermatzeko eta hizkuntza honetako hobekuntza didaktikorako nahiz beste hizkuntzetan komunikazio-hobekuntzarako prozesuarekin erlazionatzeko.

3.- Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak

- Eskolaz kanpoko jardueretan eta eskolako jangelan euskararen presentzia sustatzeko honako erakunde hauekin batera hainbat erabaki hartuko da:
 - Guraso Elkarteak
 - Udala
 - Euskararen erabilera sustatzen duten instituzio eta taldeak
 - Eskolako jangelaren arduraduna
 - Eskolaz kanpoko jardueren begiraleak
- Ikasturtean zehar kultur astea antolatuko da hizkuntzarenganako jokaera positiboak sustatzeko, irakasleek, irakasleek eta familiekin parte hartzeko jarduera desberdinak eginez. Horien zehaztapena ikastetxearen urteko planean agertuko da.
- Hizkuntza sendotzeko zentroetan, euskaraz egingo diren udalekuetan etab. ikasleen parte-hartzea programatuko da, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko,
 - gutxienez ziklo bakoitzean behin

4.- IRIZPIDE METODOLOGIKO OROKORRAK

Metodologia diogunean irakasle-taldeak ikasgelako praktika osatzen duten eta beren artean lotura duten aldagai desberdinei buruz hartzen dituzten erabaki-multzoa esan nahi dugu; erabaki horiek nola irakatsi behar dugun adierazten digute. Bakoitzak egindako aukerak errespetatuz, aldagai metodologiko horiei buruz hartzen diren erabakien helburua ikastetxean planteatutako helburuen eta ikasgelako zehaztapen didaktikoaren arteko koherentzia bermatzea da.

<p>ALDAGAI METODOLOGIKOAK</p>	<p>4.1. Irizpide metodologiko orokorrak 4.2. Edukiak. a) Edukien aukeraketa b) Edukien antolamendua c) Eduki-motak 4.3. Programazio didaktikoak 4.4. Hezkuntza-elkarreraginak: a) Irakaslea ↔ ikaslea → Irakaslearen rola b) Ikaslea ↔ ikaslea → Parekoen arteko ikaskuntza 4.5. Hezkuntza-inguruaren antolamendua: a) Ikasleen taldekatzeak b) Irakasleen antolamendua c) Espazioa d) Denbora - ordutegiak e) Ikastetxetik kanpo zeregin akademikoei eskainitako denbora</p>
------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

4.1. IRIZPIDE METODOLOGIKO OROKORRAK

Ez dugu uniformetasun metodologikoa bilatzen. Aniztasun metodologikoa justifikatzeko arrazoiak badira: ikasleen estilo kognitiboa, ikasi behar den curriculumaren berariazko ezaugarriak eta irakaslearen estilo berezia. Beraz, metodoen aniztasuna egokia dela uste dugu, ikaskuntzarako helburuek eta edukiek, askotan, irakasteko modu desberdinen konbinazioa beharrezkoa baitute eta, bestalde, ikasleek ikasteko dituzten estilo desberdinek erantzun desberdinak eskatzen baitituzte, unean, arloan, edukien eta abarren arabera bereizitako estrategia metodologikoen bitartez.

Hala ere, irizpide metodologiko orokorrak erabakitzea komeni dela uste dugu, gure prozesu didaktikoan parte-hartze desberdinen koherentzia eta koordinazioa bilatu ahal izateko.

- Ikaskuntza prozesu jarraitua dela ulertzen dugu eta ikaslea izango da bere ikaskuntzaren protagonista. Ez dizkiogu gauzak eginda eman behar, baizik eta ikertu, erlazionatu, ondorioak atera etab. egin beharko du, bere ikaskuntza berezia eraikitzen joateko.
- Ikasle bakoitzari bakarkako arreta eskaintzeko oinarria hartuko dugu abiapuntutzat, horretarako ikaslearen aurrerakuntzaren eta beharren jarraipen indibidualizatua eginez.
- Aplikatutako metodologia aktiboa izango da, ikasleak hartzaile pasibo hutsa izan ez daitezen eta behatu, hausnartu, egin, parte hartu, ikertu eta eraikitzeko gai izan daitezen, ahal den heinean, ikertzeko eta aurkitzeko metodologia bat garatzeko ardura hartuz eta azalpena gaietarako edo beharrezkoa den unetarako soilik utziz.
- Ikasten ari direnaren ulermena sustatuko dugu ahal beste, “ulertzen” den neurrian ikaskuntza esanguratsuak egiten baitira; horrek ez du esan nahi “ulermenean oinarritutako memoria” alde batera utzi behar denik, hori ere oinarritzkoa eta beharrezkoa baita ikaskuntzarako.

- Zentzurik gabeko ekintzak ez egiteko ahalegin berezia egingo dugu, ikasleek jarduerak pentsatu gabe eta mekanikoki egin ez ditzaten. Ildo beretik, jardueren bitartez egiten ari garen lanaren analisia eta ondorioen lanketa sustatuko dugu.
- Etapako irakasle guztiok ikasturte bakoitzaren hasieran, gutxienez, hasierako ebaluazioa egiteko konpromisoa hartuko dugu, irakaskuntza ikasle bakoitzaren eta taldearen ezaugarrietara egokitzeko. (Minimoekin lotu)
- Egoki eta komenigarri denean hasierako ebaluazio desberdinak egingo dira ikaskuntza-unitate bakoitzaren hasieran edo kontzeptu berriak sartzen direnean.
- Akatsa ikaskuntza-iturri gisa erabiliko da eta ikasteko prozesuan akatsa ikusiz, aztertuz eta zuzenduz hobe daitekeela izango dugu kontuan.
- Ikasleen talde-lana ikaskuntzarako metodo garrantzitsu moduan erabiliko dugu, parekoen arteko elkarreagina ezagutzak eskuratzeko eta gaitasunak garatzeko baliabide boteretsua dela ohartzen baikara. (Bakarkako lana ere bai)
- Edukiei proiektio praktikoa emango diegu, ikaskuntzen funtzionaltasuna bi zentzutan bermatzeko: beranduago beste ezagutza batzuk eskuratzeko gaitasunak garatzeko eta horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko.
- Irakasle-taldearen jardueraren helburuetako bat ikasleen autoestimua eta oreka pertsonala eta afektiboa sustatzea izango da, alderdi positiboak sendotuz. Horregatik, taldean norbait marjintzen, banatzen edo barregarri uzten duten egoerak saihestuko ditugu eta, oro har, diskriminaziozko edozein jokabide baztertuko dugu, neska-mutilen artean berdintasunean oinarritutako lan-giroa sustatuz.

4.2. CURRICULUMAREN EDUKIAK.

Edukiek ikasleei ikasteko proposatzen zaizkien jakintzak adierazten eta zehazten dituzte, hala, ikasleen gaitasunak garatzeko eta kulturaren oinarritzko elementuak bereganatzeko.

a) Edukien aukeraketa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren ezartzen duen Dekretuan proposatutako derrigorrezko edukiak oinarritzat hartuta, ikastetxe honetako irakasleek curriculum hori garatzeko honako puntu hauek izan dituzte kontuan:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta bertatik ondorioztatzen den proiektu kulturala eta hizkuntzazkoa.
- Zehar-lerroetan islatutako eskaera sozialak.
- Ikasleen bilakaeraren unea eta dituzten behar bereziak.
- Arlo bakoitzaren ikuspegia, helburu orokorrekin bat etorritik, eta etapako testuinguru eta helburu orokorren artean duen kokapena.
- Ikasleen prestakuntza Batxilergora igarotzeko.
- Erdi-mailako Prestakuntza Zikloetara igarotzeko dimentsio profesionalizatzailea.
- Eguneroko bizitzarako prestatzea eta bizimodu aktibo eta heldurako trantsizioa.

Irakasleek Curriculum Proiektu honetan proposatzen diren edukiak irakatsiko dituzte:

- Arloko eta etapa osoko helburuak lortzeko ikuspegi egokiarekin.
- Ebaluazio-irizpideetan adierazten diren garapen- eta sakontasun-mailarekin eta loturekin.
- Ikasleek eduki horiek ikasiko dituzte, baina curriculumaren oinarritzko edukiak ikastea nahikoa izango da, ebaluazio-irizpideekin bat etorritik.

Eduki berrien ikaskuntzan ondokoak izango ditugu kontuan:

- Ikasleek proposatzen zaizkien edukiei buruz dituzten aurretiazko ezagutzak.
- Ikaskuntza berriei aurre egiteko beharrezkoak diren ikaskuntzak bereganatu dituzten ala ez.

b) Edukien antolamendua.

Eduki curricularrak arloka banatuta ageri dira. Edukiak egituratzeko, antolatzeko eta aukeratzeko modu egokia den arren, ikasleek arlo desberdinetako edukien artean dauden loturak ezagutzea garrantzitsua izango da, arlo guztien ekarpenen bidez errealitatea ezagutzeko aukera izango baitute.

Arlo desberdinetako edukiak ikasgelan landuko dira:

- Curriculuma ezartzen duen Dekretuan ageri diren arloka.
- Arloen artean diziplinarteko proiektuak garatuz:
 - ikasturte bakoitzean bat gutxienez
 - gaiei buruzkoak, batez ere zehar-lerroekin erlazionatutakoak, arlo desberdinetako ikaskuntzak txertatuz
- Arlo desberdinek komunean dituzten gai-multzoak identifikatuz, ikasleei horien ikaskuntza beste arlo batzuetan ikasten dutena kontuan edukiz egiteko proposatzeko.
- Arlo desberdinetako programak koordinatuz, elkarren artean loturaren bat duten edukiak ikasiz.

Zehar-lerro bakoitzaren edukien proposamena eta horien tratamendua eta antolamendua **3.ERANSKINA** garatu da.

c) Eduki-motak.

Curriculumaren barnean ikaskuntza-mota desberdinak ageri dira eta horien artean oreka egon behar du, ikasleen gaitasun guztiak sustatzeko eta hezkuntza-behar desberdinei erantzuteko.

Curriculuma aukeratzekoan eta ikasgelako programa zehazterakoan, eduki-moten balioaren arabera (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), ondoko irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Eduki-moten ikaskuntzak erlazioa izan behar du eta, beraz, ez zaizkie modu berezitan aurkeztuko ikasleei eta ez da ebaluazio berezia egingo.
- Unitate didaktiko bakoitzean eduki-mota bat edo beste bat erabiltzeko garrantzia proposatuko diren helburuen eta planteatuko den ikaskuntza-egoeraren mende egongo da.
- Prozedurazko edukiak funtzionalagoak dira eta horien irakaskuntzak denbora eskatzen du, eruedetan oinarrituz lantzeko; kasu batzuetan eredu horiek imitatuko dira eta, beste batzuetan, ikaskuntzako lan pertsonalerako erreferenteak izango dira.
- Jarrerazko edukien irakaskuntzak osagai afektiboa du eta erabakigarria izango da hori ikaskuntzarako; benetako problemen hausnarketan oinarritzen da eta eduki horiek testuinguru hurbiletan landu behar dira, batez ere eskola-inguruan.
- Kontzeptuzko edukien irakaskuntzak, batez ere izaera abstraktuagoa dutenenak, horien esanahia ulertzea eskatzen du eta ikasleek heldutasun-maila nahikoa dutenean baino ezingo dituzte ulertu; hasieran gertaera eta esperientzia zehatzak landuko dira eta gero beste egoera batzuetara eramango dira, gero eta proposamen abstraktuagoak eginez.

- Sailek dagozkien arloetako programak aztertuko dituzte eta eduki-mota desberdinen garrantzia zehaztuko dute ziklo eta ikasturte bakoitzean. Honen berri ikasleek eta beraien familiek izango dute.

4.3. PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK.

- ◆ Curriculum Proiektu honetan hartutako erabakietan oinarrituta, Sail didaktiko bakoitzean irakasleek edukien banaketa eta ebaluazio-irizpideak zehaztuko dituzte ikasturte bakoitzerako edo ebaluazio-garai bakoitzerako eta ikasturte hasieran argitaratuko dira.
- ◆ Programazio hori oinarritzat hartuko da ikasleek kalifikazioei egindako erreklamazioetan.
- ◆ Irakasle bakoitzak zehaztuko du programazio didaktikoa eta denbora jakin batean irakatsi nahi dituen edukiak zehaztuko ditu eta, horrekin batera, bete nahi dituen helburuak, helburu horiek betetzeko egin edo proposatuko dituen jarduera didaktikoak eta ebaluazio-irizpideak.
- ◆ Klaustroak edo ikastetxeko ordezkari-organok gorenak programazioak berrikusi ahal izango ditu, dagozkien gaitasunen barruan.

Jarduera-motak eta, bereziki, ikasgelan jarduera horiek garatzeko moduak dira proposamen didaktikoen arteko desberdintasunak. Ez dugu sekuentzia zehatz eta uniforme bat nahi ikastetxe osorako ez eta metodo didaktiko bakar bat, baina ikaskuntzak oztopa ditzaketen eta kontraesanetan eror daitezkeen ikuspegiak saihesteko egoki deritzogu irizpide orokor batzuk definitzeari, ikastetxeko irakasle guztiontzat gidari izan daitezkeen sekuentzia didaktiko desberdinak garatzeko garaian.

- **Jarduera-motak sekuentzia didaktiko bakoitzean:** ahal den neurrian eta sekuentzia didaktiko bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik, gure esku-hartzean erabiliko ditugun jarduera-mota komunak honako hauek izango dira (*komunak direnak aukeratu eta lehentasuna eman*):
 - *Sarrerako eta motibaziorako jarduerak:* ikasi beharreko elementuarenganako ikaslearen interesa pizteko helburua dute jarduera hauek.
 - *Aurretiazko ezagutzei buruzko jarduerak:* jarduera hauen helburua ikasleek garatu behar diren edukiei buruz dituzten kontzeptuzko ezagutzak, iritziak eta ideia zuzen edo okerrak ezagutzea da.
 - *Garatzeko jarduerak:* kontzeptuak, prozedurak edo jokaera berriak lantzeko eta ezagutzeko jarduerak dira eta, bestalde, besteei egindako lanaren berri emateko baliagarriak dira.
 - *Sintetirako/laburtzeko jarduerak:* ikasitako eduki desberdinen arteko lotura errazteko eta ikuspegi globalizatazailerak sustatzeko jarduerak dira.
 - *Sendotzeko jarduerak:* ideia berriak eta ikasleek lehendik zituztenak kontrastatzeko jarduerak dira eta, horrez gain, ikaskuntza berriak beste egoera batzuetara aplikatzeko egokiak izango dira.
 - *Indartzeko jarduerak:* landutako ezagutzei buruzko oinarritzko mailak lortu ez dituzten ikasleei zuzendutako jarduerak dira.
 - *Edukiak zabaltzeko jarduerak:* proposatutako jarduerak ongi egin dituzten eta sekuentzian oinarritzotzat jotzen diren mailak gaintzen dituzten ikasleei ezagutzak eraikitzen jarraitzea ahalbidetzen dieten jarduerak dira.
 - *Ebaluaziorako jarduerak:* hasierako, prestakuntzazko eta azken ebaluaziora zuzendutakoak barne hartuko dituzte eta aurreko ikaskuntza-jarduerak biltzen ez dituzten jarduerak izango dira.
- Sailek, programazioak ezartzen dituztenean, lehentasuna duten metodologiak proposatuko dituzte gai-multzo bakoitzean: azalpenezkoak, ikerketari edo aurkikuntzari dagozkionak; lantegika, proiektuak, problemak, zereginkak...

4.4. HEZKUNTZA-ELKARRERAGINAK

a) Irakaslea ↔ ikaslea → Irakaslearen rola

Irakasleek, hezkuntzan duten parte-hartzean, ikasleek aurrera egiteko baldintza egokiak sortuko dituzte, ikaskuntza proposatutako helburuak lortzera zuzenduz. Beraz, irakasleen zereginen artean honako hauek izango ditugu:

- Konfiantzan, segurtasunean eta errespetuan oinarritutako harremanerako giro afektibo eta emozionala sortzea.
- Talde edo gelarekin batera ikasgelako funtzionamendu-arauak prestatzea.
- Ikasleei helburuen, planen, ikaskuntza-prozesuaren eta ebaluazio-prozesuaren berri ematea (beren ezaugarri berezietara egokituz).
- Ikasle bakoitzari laguntza berezia eskaintzea.
- Bere buruarenganako kontzeptu egokia sustatzea.
- Ikasgelan erabiltzen den hizkuntza zaintzea eta hizkuntza argia eta esplizitua izateko ahaleginak egitea; aurreiritzi arrazistak, klasistak edo sexistak inplikatzeko dituzten adierazpen estereotipatuak saihestea.

b) Ikaslea ↔ ikaslea → Parekoen arteko ikaskuntza

Ikaskuntza ez da soilik irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanetan gertatzen, baita ikasleen arteko harremanetan ere. Beraz, ikastetxe honetan, ikasgelan parekoen arteko elkarreragina sustatzeko asmoa dugu ondorengo egoera hauek garatuz:

- Talde txikietako lana, ikasle aurreratuenek zailtasunen bat duten ikasleekin lan egin dezaten.
- Ikuspuntu desberdinak dituztenen arteko trukea, norberaren ikuspuntua besteei adieraziz, rolak eta lanak koordinatuz eta trukatur.
- Koebaluazioko jarduerak, ikasleek beren lanak denen artean ebaluatuko dituztelarik.
- Laguntzeko jarduerak: ikasle aurreratuenek zailtasunak dituztenei laguntzeko jarduerak.
- Disziplina arazoak dituztenekin...?

4.5. HEZKUNTZA-INGURUAREN ANTOLAMENDUA

a) Ikasleen taldekatzeak

Curriculum Proiektu honetan kontuan hartutako taldekatzeen helburua hezkuntza-prozesu osatuak bermatzea da, irakaskuntza muinbakarreko etapa honetako prestakuntzazko eta txertatzeko helburuak eta hezkuntza-erlazioko intentsitatearen optimizazioa kontuan hartuko dituztenak.

Ziklo bakoitzeko ikasleak taldetan antolatuko dira. Ikasle bakoitzak erreferentzia-talde bat izango du eta tutore bat izango da talde horren buru. Ikasleen taldekatzeak antolatzeko ondoko irizpideak erabiliko ditugu:

- Ziklo edo maila bereko eta eredu bereko arloetan eta hautazko ikasgaietan ikasleen taldekatzea egiterakoan ikasleen heterogeneotasuna errespetatuko da, taldeetan sexua, gaitasuna, etekin akademikoa, aukera erlijiosoa, etnia... kontuan izan gabe.
- Taldeetan irizpide objektiboa aplikatzerakoan (zein ikastetxetik datorren, ordena alfabetikoa, matrikulazio-ordena...) ez dira nahi ez ditugun emaitzak lortu behar eta, horregatik, irizpide zuzentzaileak erabiliko dira, talde guztiak orekatuak izan daitezen.
- Interesaren nahiz jardueraren izaeraren arabera taldekatze malguak egingo dira eta heterogeneotasuna zainduko dute, aldian-aldian gainbegiratur.

Ikasgelan ikasleak taldekatzeko modu desberdinak erabiliko ditugu:

- eduki-mota desberdinen, ezaugarrien eta ikasleen ikaskuntza-erritmo desberdinen arabera;
- irakaslearen eta ikasleen arteko elkarreragina, ikasleen autonomia nahiz parekoen arteko laguntzan oinarritutako ikaskuntza sustatzeko;
- taldeen osaketa malgua izango da zikloan edo ikasturtean zehar.

Taldekatze horiek egiteko ondoko **irizpideak** hartuko ditugu oinarritzat:

- talde handia*: ikasgelako ikasle guztiek osatuko dute eta beste ikasgelaren bateko ikasleek ere osa dezakete. Azalpenezko irakaskuntza-metodoetan oinarritutako jarduerak garatzeko erabiliko da: hitzaldiak, azalpen orokorrak, filmen edo bideoen emanaldiak, lanaren aurkezpenak eta plangintzak etab. eta, oro har, irakasleen eta ikasleen arteko elkarreraginak sendoegia izan behar ez duen kasuetan;
- erdi-mailako taldea*: talde hauen partaide-kopurua zortzitik hamabostera bitartekoa izango da eta eztabaidak egiteko, lan-proiektuak baloratzeko eta aztertze, proposamenak egiteko etab. erabiliko dira, baina beti irakasleak zuzendu eta koordinatuko ditu;
- talde txikia eta bikotea*: talde hauen partaide-kopurua hirutik zazpira bitartekoa izango da eta lan-proiektu zehatzak eta ikerlanak egiteko erabiliko dira; taldekatze hauek, oro har, ikasleen interesak kontuan hartuz egingo dira eta borondatezkoak izango dira, lortu nahi diren helburuen ezaugarrien arabera eta egin behar den lan-motaren arabera;
- bakarkako lana* ikaskuntza instrumentaletarako edo zeregin bereziak egiteko erabiliko da;
- taldekatze horiek denbora jakin bat iraungo dute, ikasleek taldekatze-mota desberdinetan lan egiteko aukera izan dezaten.

b) Irakasleen antolamendua

Irakasleen antolamendua irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan oinarritzako alderdia dela uste dugu eta, beraz, gure praktikan lagungarri izango den hezkuntza-elementutzat hartu behar da eta horren arabera erabiliko dugu, ikasleek ikaskuntza hobea izango baitute. Kontuan izango ditugun irizpideak ondorengoak dira:

- Taldearen tutorea ziklo osoan bera izango da.
- Hezkuntza-talde berberak lan egingo du talde bakoitzarekin urte osoan zehar, arlo edo ikasgai berberak edo desberdinak emanez.
- Irakasle-talde berak zikloko bi taldetan edo talde gehiagotan irakatsiko du, horien bateratzea eta koordinazioa sustatzeko eta errentagarritasun handiagoa izango duten estrategia komunak bultzatzeko.
- Irakasle bakoitzak ikasgai edo arlo bat baino gehiago emango ditu ziklo edo ikasturte berean, hala, irakasle-kopurua murrizteko. Beti ere, bere espezialitate edo titulazioak uzten badio.
- Zikloko irakasleek arlo komunak nahiz aukerakotasunaren alorreko ikasgaiak emango dituzte.

d) Espazioaren antolamendua

Espazioaren antolamenduak irakaslearen ikuspegi metodologikoa adierazten du eta ikasleen ezaugarri berezietara, proposatuko diren jarduera-motetara eta ikaskuntza-erritmo eta interesen aniztasunera egokitu behar da.

Espazioen nahiz denboren banaketa ikasleen ohituretan eta ikastetxearenganako jokaera positiboen garapenean eragina duen faktorea da, ikasleak ikastetxearekin identifikatzen baititu, ikaskuntzarenganako jokaera positiboak garatzen baititu eta autonomiazko ohiturak bereganatzen laguntzen baitie.

Ikastetxeko espazioen antolaketan ondoko irizpide hauek izango dira kontuan:

Zikloa:

- DBHko eremuek unitate berezia hartuko dute eta ikastetxeko beste etapa batzuetako taldeetatik berezita egongo dira, baina, hala ere, etapen arteko koordinazioa ahalbidetuko da.
- Ziklo bereko taldeak elkarren artean hurbil kokatuta egongo dira eta, ahal izanez gero, batasun espaziala izango dute, jarduera komunetarako tokiekin.
- Oztopo arkitektonikoak kenduko dira.

Ikasgelak:

- Talde bakoitzak erreferentzia-ikasgela bat izango du eta bertan emango dituzte arlo eta ikasgai gehienak, nahiz eta jarduera batzuk horretarako prestatutako toki berezietan egingo dituzten, hala nola, liburutegian, laboratorion, gimnasioan, informatika-gelan, teknologia-lantegian....
- Ikasgelek bakarkako lana, talde txikietakoa nahiz talde handikoa ahalbidetuko dute.
- Ikasgeletako altzariak arinak eta funtzionalak izango dira, antolatzeko modu desberdinak egituratu ahal izateko.
- Ikasgelek, irakasleentzako mahai eta aulkiez gain, ondoko baliabideak izango dituzte: hiztegiak, papera, koadernoak, mapak...

Eremu komunak:

- Eskolako ordutegia egiterakoan talde desberdinek erabiltzen dituzten eremu komunak erabiltzeko aukera kontuan izango da.
- Kanpoko fatxadak, jolastokiak eta barneko eremuak estetikoki zainduko dira; edozein pintada, zikin edo kalte garrantzitsu... berehala garbitu edo konpondu behar da.

Irakasleak:

- Irakasleek eremu bereziak izango dituzte, ondorengo zereginetarako ekipamenduak izango dituztenak:
 - Lan pertsonalerako eta ziklo, sail nahiz klaustroaren bileretarako.
 - Zikloaren gelan nahiz Sailen gelan irakasleek multimedien liburutegi egokia izango dute, informatikako sare lokalarekin lotura, ordenagailu pertsonala eta armairu bat irakasle bakoitzarentzat. (Norabide egokia litzateke)

e) Denboraren eta ordutegien antolamendua

Denbora antolatzea ere funtsezkoa da irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesua garatzeko eta ikasleek hezkuntza-helburuak lortzeko. Besteak beste, ikasleen autonomia sustatu behar du eta aniztasunaren arreta ahalbidetuko du. Denboraren plangintza talde zehatzaren arabera, ikasleen ikaskuntza-eritmo desberdinen arabera, eduki-motaren eta horien antolamenduaren arabera eta proposatuko diren jardueren arabera egingo da eta planteatutako helburuak lortzeko aukera eman behar du.

Denbora antolatzeko ondoko irizpideak izango dira kontuan:

- *Ordutegiak antolatzeko:*

- Egun bakoitzeko irakastorduen banaketa egiterakoan antzeko izaera duten arloak (hizkuntzak adibidez) multzo luzeegi edo jarraituetan ez biltzeko ahalegina egin behar da eta ikuspegi desberdinak sustatzen dituzten arloak tartekatuko dira.
- Talde berean arlo bat baino gehiago ematen duten irakasleen ordutegien antolamendua kontuan izatea, denbora jarraitua eskatzen duten jarduerak egiteko aukera izan dezaten (egun batean ematen dituzten orduak elkarren ondoan ematea...).
- Aukerakotasunari beste arlo batzuek duten estatus bera ematea.
- Ohikoa baino denbora luzeagoa behar duten jarduerak egiteko arlo batzuk izan ditzaketen beharrak kontuan izango dira (laboratorioa, lantegiak...).
- Tutoretza orduak zikloan batera ematen ahaleginduko gara.

▪ *Ordutegien banaketa*

Oinarrizko ordutegizat ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuaren II. eranskinen proposatutakoa hartuko dugu, bertan Euskal Autonomia Erkidegorako etapa honetako curriculumaz ezartzen baita eta, bestalde, eranskin hori legalki osatu duten Aginduak, Ebazpenak eta Instrukzioak ere kontuan izango ditugu (1996ko uztailaren 16ko Agindua, curriculumean egin daitezkeen aukerak arautzen dituena (1996-08-09ko EHAA); Ebazpena, derrigorrezko arloen arteko hautazkotasunari buruzkoa (1997-07-22ko EHAA); Hezkuntzako Sailburuordearen Instrukzioak 1999-2000. ikasturterako.

Lehenengo zikloan libre xedatzeko orduak honela banatuko dira:

- Arlo instrumentalen ordutegia sendotzeko: 3 ordu gelako
- Ingelesa indartzeko: ordu bat gelako (2. mailan)
- Tutoretzarako: ordu bat gelako
- Irakurketarako: ordu bat gelako 1. mailan.

f) Ikastetxetik kanpo zeregin akademikoei eskainitako denbora

Ikasleek ikasteko ohitura bereganatzea eta beren lan pertsonala modu autonomoan antolatzen ikastea komeni da. Helburu horrekin –eta ikasgeletan egiten duten lanaren osagarri gisa–, ikastorduetatik kanpo hainbat jarduera egitea proposatuko zaie.

Zeregin horiek antolatzeko ondoko irizpideak izango ditugu kontuan.

- Talde bakoitzeko irakasle-taldearen koordinazio egokia lortzeko eta ikasleak estutu ez daitezzen, irakasle bakoitzak gutxi gorabehera ikasleek zeregin hori egiteko zenbat denbora behar duten kalkulatu du, zereginaren egokitzapena eta zentzua baloratu, lehenengo zikloan.
- Tutoretzaren bitartez, lehenengo zikloan, arlo eta ikasgaietan proposatutako lanak eta zereginak koordinatuko dira epe motzetan (astero, hamabostero...).
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikaslearen denbora-multzoaren barnean aztertuko dira eta, horretarako, tutoretzatik informazio hori bilduko da (eta gainerako irakasleei jakinaraziko zaie).
- Arlo guztietan eta tutoretzan gidatutako ikasketarako uneak ezarriko dira; bestalde, etxean erabiltzeko, denboraren plangintza egiteko tresnen (agendak, kronogramak, zereginen zerrenda, egutegien erabilera...) irakaskuntzarako uneak eta ikasketa-ohitura sistematiko eta antolaturako uneak ezarriko dira.
- Talde-lana edo hainbat ikasleren garapen bateratua eskatzen duten etxeko lanetan, lan horiek ikastetxean bertan, horretarako prestatutako eremuetan, egiteko aukera kontuan izango da (liburutegian, ikasketa-gelan, zereginen gelan...), hala, lan horiek egiteko behar dituzten baliabideak erabili ahal izango baitituzte.

5.- MATERIAL CURRICULARRAK ETA BALIABIDE DIDAKTIKOAK.

- 5.1. Material didaktikoak aukeratzeko irizpideak eta prozedurak**
- 5.2. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) erabiltzea**
- 5.3. Espazio eta ekipamenduak erabiltzeko irizpideak**
- 5.4. Ikasgelatik eta ikastetxetik kanpoko jarduerak**

5.1. MATERIAL DIDAKTIKOAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURAK

Material curricularrak irakasleek irakasteko moduari buruzko erabakiak hartzeko eta ikasleei ikaskuntza-prozesua errazteko lagungarri diren baliabide gisa ulertzen ditugu. Beraz, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren plangintza, garapena eta ebaluazioa errazteko tresnak dira, Curriculum Proiektuko aukera metodologikoak eraginkor bihurtzen dituzte eta ikasleen eta ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-esperientzien arteko bitarteko funtzioak betetzen dituzte.

Material curricularrak eta, zehazki, testu-liburuak aukeratzeko erabaki genituen balorazio-irizpideak ondokoak dira:

Ikastetxearen Curriculum Proiektuarekin koherentzia:

- ◆ Hezkuntza Sailak onartutako eta Curriculum Proiektura hobekien egokitzen diren material curricularren erabilera.
- Argitaratze-proiektuaren helburuak Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren arabera egokitzea;
- Planteatzen dituen edukiak ikastetxearen eta berorren inguruaren ezaugarrietarako nahiz Curriculum Proiektu honetan adierazitako edukietarako egokiak izatea;
- Hiru eduki-motei modu egokian erantzutea: kontzeptuzkoei, prozedurazkoei eta jarrerazkoei;
- Erabiltzen dituen testuetan eta irudietan zehar-lerroen planteamendu egokia izatea, proiektu honetan adierazitakoarekin koherentzia gordez;
- Ebaluazio-irizpide zehatzen bidez egitea ikasleen ebaluazioa, proiektu honetan proposatutakoekin bat etorritz.

Proposamen didaktikoari dagokionez.

- Curriculum Proiektu honetan hartutako erabaki metodologikoekin koherentea izatea;
- Ikasleek duten esperientzia eta eskaintzen duten informazioa nahiz ingurukoa kontrastatzeko egokiak izatea, ikasleen artean pentsamendu desberdinak sustatuz; ikasleen aurretiazko ideien hausnarketarako eta lanketarako adierazpenak;
- Materialetik at, informazio-iturrien erabilera sustatzea;
- Planteatutako gaiak ebazteko ikasleei lan-teknika intelektualen erabilera eskatzea;
- Planteatzen dituen jarduera-motak zabalak izango dira eta ez soilik arkatx eta paperean oinarritutakoak, jarraibide argi eta osatuak eskainiz ikasleei;
- Konplexutasun-maila desberdinetako jarduerak izango dituzten proposamenak egitea (indartzeko eta sakontzeko jarduerak ...);
- Ebaluaziorako tresna desberdinak nahiz autoebaluaziorako eta heteroebaluaziorako jarduerak proposatzea;
- Ikaskuntzan ekimena eta sormena sustatzea, ikaslearen jarduera autonomia sustatuz eta ikasleen interesa piztuz;

- Proposatuko dituen jarduerak taldean lan egiteko beharra eta taldekatzeko modu desberdinen erabilera ekarri behar dituzte;
- Proposamen didaktiko globalizatzaileak edo ikerketarako proiektuak planteatuko dituztenak izatea.

Kalitate formalari dagokionez.

- Hizkuntzek eta hiztegiek gure ikasleen ezaugarrien eta ezagutzen araberakoak izan behar dute;
- Ideiek eta informazioek ikasleek ezagutuko dituzten adibideak erabiliko dituzte, ikasleek errazago ulertzeko;
- Sintesi, laburpen, kontzeptuzko mapa... argi eta ulergarriak izango dituzte, ikasleen adinera egokitutakoak;
- Diseinu erakargarria eta erabilgarria izan behar dute, grafiko, eskema eta argazkiekin, edukien esanguratsutasuna sustatzeko;

Material curricularrak edo beste baliabide didaktiko batzuk berritzeko ondoko irizpideak izango dira kontuan:

- ◆ Behin ziklo baterako materialak aukeratu ondoren ez dira aldatuko ikasleek ziklo hori amaitu arte.
- ◆ Zeregin edo ziklo jakin baterako aukeratutako materialak ez dira aldatuko gutxienez lau urte igaro arte, horiek aldatzeko arrazoi garrantzitsurik izan ezean.
- Aldaketak modu koordinatuan erabakiko dira beti eta etapako irakasleek edo, kasuaren arabera, arloko irakasleek erabakiko dituzte.
- Materialak urteko Memoria lantzen denean berrituko dira, ikasturtea amaitzen denean.
- Aldaketak egiterakoan ikasleen beharrak kontuan izango dira eta, horiez gain, argitaletxeek eskaintzen dituzten aukerak eta ikastetxearen baliabideen eta proiektuen arabera ezarriko den lehentasuna ere kontuan izango dira.
- Material curricularran egiten den edozein aldaketak material berriaren azterketa sakona eta arrazoizko balorazioa eskatuko du, aurrez adierazitako irizpideak aplikatuz.

5.2. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT) ERABILTzea

(Departamendu bakoitzak erabaki beharko du)

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (ordenagailuak, aplikazio informatikoak, ikus-entzunezko nahiz multimedia baliabideak) eta horiekin lotutako hizkuntzek errealitatea ezagutzeko bide bat irudikatzen dute, informazioa gordetzeko eta prozesatzeko, lortu ezin diren egoerak simulatzeko eta abiadura handiz lan egiteko gaitasunari esker.

IKTen erabilerari esker informazioaren eta produkzio-sistemen tratamendua aldatzen ari da. Ikasle guztiek baliabide horiek erabiltzeko aukera izango dute, etorkizuneko gizartean eta mundu produktiboan ezinbestekoak baitira. Halaber, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan aukera izugarriak eskaintzen ditu tresna honek, elkarreraginerako gaitasun handia baitu.

Horren guztiaren ondorioz, gure ikastetxean IKTak lantzeko ondoko alderdiak izango ditugu kontuan:

a) Ikasleen ikaskuntzarako eduki gisa

- IKTekin erlazionatutako eta ikasleek DBH amaitzean ezagutu behar dituzten ikaskuntzako edukiak ezarriko ditugu (ikus **1.ERANSKINA**).

- Eduki horien ikaskuntza banatzeko modua zehaztuko dugu:
 - Ordu libreak aprobetxatuko ditugu lehen zikloan.
 - Bi zikloetan, hala nahi duten ikasleei aukerakotasunaren alorreko ikasgaien bidez ezagutza sakonagoak eskainiko dizkiegu.
 - Edukiak arloetan banatzeko erabakiak hartuko ditugu:

<input type="checkbox"/> Hizkuntzei dagozkien arloetan	<input type="checkbox"/> Dokumentuak produzitzeko, posta elektronikoa eta eztabaida-foroak garatzeko aplikazio informatikoak <input type="checkbox"/> Formatu desberdinetako dokumentuak aztertzea eta irakurtzea eta horiek komunikabideetan duten eragina
<input type="checkbox"/> Matematikan	<input type="checkbox"/> Zenbakizko informazioa eta informazio kuantitatiboa prozesatzeko aplikazio informatikoak: kalkulu-orriak, estatistikako grafikoak sortzeko elementuak
<input type="checkbox"/> Gizarte Zientzietan eta Natur Zientzietan	<input type="checkbox"/> Datu-baseen kudeatzaile erraz baten erabilera <input type="checkbox"/> CD-ROM, DVD edo sare telematikoetan datu-baseak erabiltzea <input type="checkbox"/> Internet bidez informazioa bilatzea
<input type="checkbox"/> Teknologian	<input type="checkbox"/> Ekipoen egiturarekin, zainketarekin eta osagai funtzionalekin lotutako alderdiak. <input type="checkbox"/> Objektu teknologikoak simulatzeko eta diseinatzeko aplikazio informatikoak
<input type="checkbox"/> Musikan	<input type="checkbox"/> Soinua manipulatzeko eta editatzeko aplikazio informatikoak
<input type="checkbox"/> Plastika eta Ikus-hezkuntzan	<input type="checkbox"/> Diseinu grafikorako, irudi finkoaren nahiz mugitzen den irudiaren tratamendurako eta ikus-entzunezko konposaketarako aplikazio informatikoak.

b) Euskarri elektronikoa duten baliabide eta material curricular gisa:

- Gure irakaslanean lanerako tresna gisa erabiliko ditugu (materialak aztertzeke, ebaluatzeko eta lantzeko, tutoretzaren kudeaketarako, informazioa bilatzeko, beste irakasle-talde batzuekin komunikatzeko, gaiak azaltzeko etab.)
- Ikasgelako programazioetan ikasleek baliabide teknologikoen aukera desberdinak erabiltzeko jarduerak diseinatuko ditugu (ordenagailuz lagundutako irakaskuntzako –OLI– programak eta ordenagailuz lagundutako esperientzietako –OLE– programak).

c) Antolamenduari buruzko alderdiak

- Ikastetxean baliabide teknologikoen arduradun edo koordinatzaile bat izango da.
- Espazioak, ekipamendu-motak eta eskura dauden baliabideak diseinatzeko ondoko irizpide hauek izango dira kontuan:
 - Arloetako eremu edo espazio berezietan (lantegiak, laboratoriorak etab.) arloko baliabide teknologiko bereziak erabiliko ditugu.
 - Ikasgeletara erraz eraman daitezkeen baliabideak gordetzeko biltegiak prestatuko ditugu.
 - IKTetarako ondoko gela bereziak izango ditugu:
 - Informatika-gela
 - Ikus-entzunezko komunikaziorako gela
- Material curricularrak euskarri teknologikoan katalogatzeko sistema bat erabiliko da.
- Liburutegian-Mediatekan, informazio-iturri tradizionalak gain (liburuak, aldizkariak, argitalpenak...), euskarri teknologikoko materialak eta informazio-iturriak erabiltzeko aukera eskainiko da (entziklopedia elektronikoak, datu-baseak, Internet, prentsa-urtekariak etab.)

- Erabilera komuneko eremu eta ekipamenduak koordinatzeko planning bat egingo da (urtero, hiru hilero, hilero, astero) eta bertan gelak edo biltegi-tako ekipoak erabiliko dituzten arlo edo ikasgaiak zehaztuko dira.
- Ahal den neurrian, Liburutegiko – Mediatekako zerbitzuak ikastetxeko gela guztiekin lotuko dira, tokiko sarearen bidez.
- Irakasleentzako eremuetan, hala nola, sailetan, mintegietan etab., euskarri teknologikoa duten materialak sortzeko, aztertzeko eta ebaluatzeko beharrezko ekipamendu teknologikoa izango dugu.

5.3. IKASGELATIK ETA IKASTETXETIK KANPOKO JARDUERAK (Erretore kontseiluaren konpetentzia ?)

Ikaskuntzarako aukerak eta beharrak ez dira ikasgelan agortzen, ez eta liburuetan ere. **Jarduera osagarrien** bitartez curriculumaren ikaskuntza erraztu nahi da eta beste ikastetxe askotatik iritsitako informazioak eta baliabideak erabili nahi dira. Gertaeren behaketa zuzenaren eta gure inguruan eskura ditugun baliabideen ezagutzaren bidez ikaskuntza sustatu nahi da, gure hezkuntza-erakundearen dimentsio zientifikoa errealitateara hurbildu nahi da, gure ikasleek lanbideei dagokienez dituzten irtenbideen irudi erreala eratu nahi da etab.

a) Jarduera osagarriak hautatzeko irizpideak.

Jarduera osagarriak hautatzeko erabiliko ditugun irizpideak ondoko hauek dira:

- Ikasgelan emandako edukiarekin lotura izango dute eta ikasleek eduki horiei buruz duten ikuspegia eta ulermena osatzeko eta aberasteko baliagarriak izango dira.
- Curriculum Proiektu honetan lehentasuna duten helburuak eta zehar-lerroak kontuan izango dituzte.
- Diziplinartekotasuna eta arlo eta ikasgai desberdinen arteko lotura bultzatuko dituzten proposamenak eta jokoak sustatuko dituzte.
- Talde eta maila bakoitzerako desberdinak eta berariazkoak izango dira, dagozkien programazioen arabera.
- Ikasleen zentzu kritikoa eta konstruktiboaren garapena bultzatuko dute.
- Ikasleek ikastetxetik kanpoko kultur ekintzak ezagutzeko egokiak izango dira.
- Pertsonak eta ingurua errespetatzeko dinamikak bultzatuko dituzte eta ikasleak inguru soziokultural eta naturalean erabat integratzeko ohiturak eta jokabideak sustatuko dituzte.
- Ikasleek antolatze eta jokatzearen gaitasuna sustatuko dute.
- Ikaskuntza akademikoa eta inguruak eskaintako esperientzia eta informazioa erlazio-tutuko dituzte.

Ikasgelatik kanpo ondoko jarduerak hauek garatuko dira nagusiki:

- Egonaldiak barnetegietan
- Jaialdiak ikastetxean
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Bisitaldi kulturalak: museoak, erakusketak, enpresak, instituzioak...
- Antzezlanak, musika-kontzertuak ...
- Kirol jarduerak
- Tokian tokiko lanak
- Irteerak
- Ikasturte amaierako bidaiak
- Trukeak
- Ikastetxeen arteko senidetzeak

b) Honelako jarduerak antolatzeko irizpideak

Honelako jarduerari zentzia emateko asmoz eta baterabiltzeak saihestuz koordinatzeko eta horien antolaketa eta garapena ahalbidetzeko, ikasgelatik kanpoko honelako jarduerak antolatzeko ondorengo irizpideak erabiliko ditugu:

Ikastetxeko jardueretarako:

- Ahal den neurrian, jarduera hauek guztiak, zentzu generikoan gutxienez, ikasturte hasieran diseinatu dira, gero programazio orokorrean sartzeko.
- Jardueraren ardura duen irakasleak programatutakoa betetzen dela egiaztatuko du, jardueraren garapena oztopatu duten alderdiak besteei adieraziz, aurrerantzean horrelako eragozpenak saihesteko.
- Jarduera batean parte hartzen duten ikasleek jarduera horren garapenean lagunduko dute, errespetuzko eta lanerako jokaera erakutsiz.
- Irakasleak bere taldearentzat berariaz antolatutako eta eskolako orduetan edo tutoretza-orduetan egingo diren jardueretan lagundu egingo die ikasleei.
- Ikasleek bere taldearentzat antolatutako eta eskola-orduetan edo tutoretza-orduetan emango diren jardueretan parte hartu behar dute derrigorrez.

Ikastetxetik kanpoko jardueretarako:

- Ikastetxetik kanpo edozein jarduera egiteko Antolamendu eta Jarduera Araudian adierazitako arauak bete behar dira.
- Aurretik gurasoei edo arduradunei jarduera horren berri emango zaie eta baita parte hartu behar duten ikasleei ere.
- Jarduera horien programazioan, gutxienez, ondorengo alderdiak zehaztuko dira: lortu nahi diren helburuak, egingo diren jarduerak, irakasle arduradunak eta irteteko eta bueltatzeko tokia eta ordua.
- Ikastetxetik kanpoko jarduera bat antolatzeko taldeko ikasleen ehuneko-ak parte hartu behar du gutxienez. Hala ere, irizpide hori malgutasunez aplikatu ahal izango da jarduerak interes didaktiko handia duenean. Parte hartu nahi ez duten ikasleek ikastetxean geratzeko aukera izango dute.
- Ikasleekin batera eskolaren bat ematen dieten irakasleak edo jarduerarekin loturaren bat duten irakasleak joango dira.
- Ikastetxetik kanpoko jardueretan parte hartuko duten ikasleek programatutako ekintza guztietara joateko konpromisoa hartzen dute.
- Ikasketa-amaierako bidaia ondorengo maila eta taldeetako ikasleek egin ahal izango dute:
- Egun bateko eskola guztiak bertan behera uztea suposatzen duten jarduerak baztertuko dira.

d) Ikastetxetik kanpoko irteeretarako irizpide didaktikoak

Ikastetxetik kanpoko irteerek hezkuntza aldetik zentzia izan dezaten eta gure ikasleen ikaskuntzari begira lagungarriak izan daitezen, horien plangintzan eta garapenean ondorengo urratsak izango ditugu kontuan:

Ikasgelan, irteeraren aurretik:

- Hasierako motibazioa bultzatzea
- Dokumentazioa ekartzea eta aztertzea eta irteerarako materiala prestatzea
- Funtzionamendu-arauak argitzea eta erabakitzea

Irteeran bertan:

- Datuak biltzea
- Lan praktikoak egitea

Ikasgelan berriro:

- Datu horiek sistematizatzea eta antolatzea
- Informazioa zabaltzea
- Esperientzia ebaluatzea.

e) Eskolaz kanpoko jarduerak.

Ikastetxe batek ez ditu bere jarduerak jarduera akademikoetara mugatu behar eta ikasleei beste esperientzia batzuk eskainiko dizkieten jarduerak garatu behar ditu, aisialdia modu aberatsean erabiltzeko jarraibideak eman behar ditu, balioak kontrastatu behar ditu... **Eskolaz kanpoko jardueren** eskaintza hau ez da derrigorrezko curriculumaren zati eta etapako helburu orokorrekin koherentea izan behar du eta, bestalde, hein batean, egoera berrietan horien ikaskuntza sustatu behar du.

- Jarduera akademikoak ondorengo arloetan osatuko dira nagusiki:
 - Gorputz-hezkuntza eta kirolak
 - Jarduera artistikoak
 - Gizarte-jarduerak: Osasuna, ingurugiroa...
 - Ikaskuntza pertsonalerako jarduerak
- Gure inguruko talde sozial eta kultural desberdinetara hurbiltzea izango dute helburu, ikasleek asoziazionismoa eta gizarteko nahiz elkarteko mugimenduetako parte-hartzea gehiago balora dezaten.

6.- ANIZTASUNA TRATATZEKO ETA EGOKITZAPEN CURRICULARRETARAKO IRIZPIDEAK.

- 6.1. Ikastetxeko aniztasunari buruzko oharrak**
- 6.2. Aniztasunari erantzuteko oinarrizko printzipioak**
- 6.3. Aniztasunari erantzuteko esku hartzeko irizpideak eta neurriak**
- 6.4. Taldeen egoerei erantzuteko neurriak**
 - a) Ikastetxeko bizikidetzaren garatzeko neurriak
- 6.5. Aukerakotasuna eta hautazkototasuna aniztasunari erantzuteko bide gisa**
- 6.6. Hezkuntza-sustapena**
- 6.7. Aniztasunari erantzuteko neurri bereziak**
 - a) Eskolaratzeko programa osagarriak
- 6.8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako neurri bereziak**
 - a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin jokatzeko prozesua
 - b) Curriculumaren egokitzapenak
 - c) Ikastetxetik kanpoko profesionalen eta profesional ibiltarien esku-hartzea
 - d) Inguru arruntean egindako aldaketak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko

6.1. IKASTETXEKO ANIZTASUNARI BURUZKO OHARRAK

Gure ikastetxeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek aniztasun handia dute gaitasunei, garapen ebolutiboaren uneei, afektibitateari eta harremanei dagozkien jarraibideei, itzaropenei etab. dagokienez. Aniztasun hori areagotu egiten da etapak aurrera egiten duen neurrian eta, praktikan, edukiak bereganatzeko maila desberdinak, ikaskuntzarako estilo eta erritmo desberdinak, harremanetarako modu desberdinak, interes eta motibazio desberdinak etab. sortzen dira.

Gure ikastetxean, gure arreta merezi duten aniztasun-mota garrantzitsuenak ondorengo elementu hauekin erlazionatutakoak dira:

- Nerabezaroaren bilakaera-prozesuan egoera desberdina duten ikasleak.
- Sexu desberdineko ikasleak.
- Gaitasun eta motibazio desberdineko ikasleak.
- Premia bereziak dituzten ikasleak, hezkuntza-premia bereziak dituztenak.
- Gaitasun handiak dituzten ikasleak.

6.2. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO OINARRIZKO PRINTZIPIOAK

Gure ikastetxeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera muinbakarra bere gain hartzen du eta horrek ondorengo esan nahi du:

- Ikasle guztiek heziketa jasotzeko duten eskubidea bermatzea eta jatorrizko baldintzatzaileek beren garapen pertsonalean ahal den eragin txikiena izatea, eskolako heziketaren eraginari esker.
- Ikasle guztiei irakaskuntza komuna eskaintzea, horien aniztasuna onartuz eta ikasle bakoitzari arreta berezia eskainiz, bere ezaugarri eta beharren arabera.
- Ikasleei behar dituzten hezkuntza-baliabideak eskaintzea, jarrera eta jokaera baztergarriak saihestuz eta ikasleen parte-hartzea bilatuz talde arrunteko jardueretan.
- Ikaslearen sexua, etnia, aukera ideologikoa, gaitasun intelektuala, zentzuei nahiz fisikoari dagozkion gaitasunak nahiz egoera sozioekonomikoa oinarritzat izango duen

edozein diskriminazio baztertea, bai ikastetxearen eta ikasgelen antolamenduan eta funtzionamenduan, bai curriculumaren garapenean.

Ondorioz, ikasleen aniztasunaren aurrean gure jokaeraren oinarri gisa printzipio hauek onartzen ditugu:

- Taldearen heterogeneotasuna baloratzea homogeneotasunaren aurrean.
- Desberdintasunaren aurrean hezkuntza-erantzun egokia ematea eta erantzun uniformearen baztertea, ikaslearen aurrerapenaren jarraipen individualizatua sustatuz.
- Hezkidetzaren sexismoaren aurrean.
- Ikaskuntzarako itxaropen handiak izatea eta ikasleei eta familiei bide berriak eskaintzea.
- Berdintasunaren filosofian oinarritutako planteamendu pedagogikoa (pertsonen arteko desberdintasunak errespetatuko dituzten eta aukera-berdintasuna eskainiko duten planteamendu pedagogikoak).
- Zigorren ordez prebentzioa eta hezkuntza-berrikuntza.
- Ikasleak beraiei eragiten dieten erabakietan parte hartzea eta inplikatzeko.
- Interkulturalismoa kultur etnozentrismoaren aurrean, truke eta aberastasun kulturala sustatuz kultura desberdinen arteko elkarrizketa kritikoaren bitartez (ikasleen artean, irakasleen eta irakasleen artean, familien artean...).
- Helduen munduan mugitzeko oinarritzko gaitasunak bereganatzeko ahalegina.
- Baztertuen aldeko ekintza positiboa.
- Erlatibitatea, denbolizazioa eta elkarreragina onartzea hezkuntza-premian.

6.3. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK ETA NEURRIAK

Printzipio horien garapena aplikatu beharreko neurri desberdinak txertatuko diren esparrua osatzen duten esku hartzeko irizpide batzuetan zehazten da.

Programazio didaktikoari dagokionez:

- Programazioak taldearen ezaugarriak eta horien interesak eta beharrak kontuan hartuz pentsatuta daude.
- Arlo instrumentalen ikaskuntzak izango du lehentasuna: hizkuntza eta matematika, arlo horietan zailtasunak dituztenek edo atzeratuta daudenek arreta berezia izango dutelarik.
- Bakarkako lanerako jarduerak mota askotakoak izango dira behar edo premia desberdinei erantzuteko eta arrakasten maila egokia eskaintzeko.
- Talde-lanetan lankidetzaren sustatuko dugu, taldekatze heterogeneoak edo homogeneoak osatuz une bakoitzean lortu nahi dugunaren arabera.
- Heziketa indartzeko jarduerak-kopuru egokia ezarriko dugu, batez ere ikasgela arrunteko lanarekin lotutakoak, eta arreta berezia horrelako laguntza behar duten egoeretan mugatuko dugu.
- Ikasgai batzuk eremuka antolatuko dira eta irakaslea bera arduratuko da ikasgaiari dagokion ordu guztiez.
- Teknologia berriak arlo guztietan erabiliko dira lanerako tresna gisa eta, kasu batzuetan, curriculumean sartzeko baliabide gisa.

Taldeari eta ikasleei dagokienez:

- Taldean ikasle guztientzako tokia izan behar dela uste dugu eta ikasle bakoitzarekin bere egoera pertsonalaren arabera jokatu da.
- Ikasleen egoera erreala hartuko dugu oinarritzat, bakarka eta talde gisa hartuta, beren hezkuntza-erabakia aberasteko eta eskolan arrakasta bermatuko duten oinarritzko gaitasunak bereganatzeko.

- Taldean edo klasean ikasleek kohesio soziala, tolerantzia eta elkarriketa ahalbidetuko duten jokaera zibikoak landuko dituzte eta besteak diskriminatu eta zapaltzen dituzten egoerak baztertuko dituzte.
- Eskolan giro aberatsa, pizgarria eta ordenatua lortzeko neurriak ezarriko ditugu, hala, hezkuntza-lana bermatu ahal izateko.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek taldean edo klasean toki bat izango dute, bakoitzaren gaitasunen arabera. Ikastetxean dauden baliabideak ikasle horiei zuzenduko zaizkie bereziki.
- Talde txikiak sortzea (3 edo 4 ikasleez osatutakoak) hainbat zereginetan lagunduko dien pertsona baten laguntzarekin.

Tutoretzari dagokionez:

- Ikasleen aurrerapenen bakarkako jarraipena egingo dugu, batez ere zailtasunak dituzten ikasleen kasuan.
- Balio positiboak dituzten pertsonen ereduak proposatuko ditugu, bai gizonezkoenak, bai emakumezkoenak.
- Arrazoi kulturalak direla bide diskriminaziozko egoerak ezartzea saihestuko da, hizkuntzaren erabilera eta bazterketa-egoerak sor ditzaketen antolamenduzko neurriak zainduz.
- Lehenengo zikloaren hasieran ikasleei zuzendutako harrera-programak egingo dira eta familientzako jarduerak ere prestatuko dira. Ikasturte bakoitzaren hasieran beste programa motzago batzuk egingo dira.
- Familiekin izan beharreko harremanei lehentasuna emango zaie: gurasoek ikastetxea ezagutuko dute eta ikastetxeak haien eskaerak eta itxaropenak ezagutu behar ditu, hezkuntza-helburuak eta planteamenduak erabaki ahal izateko.
- Zailtasun handienak dituzten ikasleekin eskolako gaietan nahiz gai pertsonaletan jarraipena egiteko eta laguntza eskaintzeko “tutore” bat izendatuko da. Tutore ofiziala nahiz irakasle-taldean harreman handiagoa duen beste pertsona bat izan daiteke.
- “Irakaskuntzako eta ikaskuntzako kontratuak” ezarriko dira eta bertan beteko dituen alderdi curricularrak zehaztuko dira, jokabideari buruzkoak, harremanei buruzkoak... eta baita ikastetxearenak eta familienak ere. Eduki berbera antzeko ezaugarriak dituzten ikasle-talde batentzat baliozkoa izan daiteke, baina bakoitzaren arabera pertsonalizatu eta erabakiko da. “Tutorea” izango da jarraipena egiteko arduraduna.

Irakasleen antolamenduari dagokionez:

- Ikasgelan bertan erantzutea, arlo batzuetan beste irakasle batzuen presentziarekin indartuz.
- Arlo batzuetan ikasle hauek dauden talde arruntak zatitzea:
 - Modu homogeneoan. Zailtasun gehiago dituzten ikasleen taldea txikiagoa izango da.
 - Modu heterogeneoan.
- Zatiketak egiten direnean sortzen diren taldeak heterogeneoak izatea bultzatuko da. Nolabaiteko homogeneotasuna egokia izan daitekeela ikusten bada, gutxiengo bateko ikasleek edo antzeko gaitasunak dituztenek talde egonkorra ez osatzeko ahalegina egingo da.
- Euskaraz edo gaztelaniaz laguntza eskainiko dien pertsona bat izatea (ikastetxearen hizkuntz ereduaren arabera).
- Bakarkako edo taldeko lan gehiago dagoen arloetan, zatiketak egitea baino hobeto izango da bi irakasle izatea. Horrek jarraipen eta laguntza egokiagoa eskaintzea ahalbidetuko du proiektuetan, talde-lanetan, bakarkako lanetan...
- Ikasgela batetik igarotzen diren irakasleen kopurua murrizteko, talde berdinari irakasle batek bi arlo edo ikasgai emateko ahalegina egingo da, titularra eta horrekin loturaren bat duen beste bat.

- Irakasleen eta familiekiko harremanaren aldetik, prestakuntzarekin eta hausnarketarekin erlacionatutako jarduerak koordinatzeko eta horien jarraipena egiteko ardura izango duen batzorde bat osatuko da.

Programazio didaktikoari dagokionez:

- Puntu sendoetan eta garatutako gaitasunetan oinarrituko gara gabezieta baino gehiago.
- Kultura desberdinetako ikasleen behar eta aukera desberdinei erantzuteko, gaitasunmota guztiak landuko ditugu.
- Alderdi esanguratsu eta funtzionalei emango diegu lehentasuna, ikasle guztiak DBHko helburuak lortzeko asmoz betiere.
- Ikasleen hurbileko esperientzia izango dugu abiapuntutzat, beren ingurua eta gauza zehatzekin hasiko gara abstraktuetara iritsi arte.
- Programazioetan, familien lan-arazoak direla-eta, beranduago hasten diren ikasleak daudela kontuan izango da (harrera-jardueren eta ezagutza-jardueren diseinua).
- Oinarrizko gaitasunen garapena sustatuko duten jarduerak diseinatzea, maila desberdinak kontuan izanik.
- Estrategia metodologiko desberdinak erabiliko dira: lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, proiektuen araberakoa, problemen ebazpena, lantegiak, ikaskuntza autonomoa ...

6.4. TALDEEN EGOEREI ERANTZUTEKO NEURRIAK.

b) Ikastetxeko bizikidetzaren garatzeko neurriak

Gure ikastetxean ondorengo neurriak erabiliko ditugu ikastetxeko bizikidetzaren garapena sustatzeko:

- Ikastetxeko arauak elkarteko ordezkari desberdinen parte-hartzearekin landuko dira.
- Talde bakoitzaren arautegiaren lanketa talde horretako ikasleen eta irakasleen artean egingo da eta familiekin adostuko da.
- Arauek jokaera egokiak adieraziko dituzte eta horiek betetzen ez badira jokaera oker horiek konpontzeko prozedurak jarriko dira martxan, hezkuntza-izaera ez duten zigorrak saihestuz.
- Ikasgelan gatazkak konpontzeko modua eta komunikatzeko trebetasunak landuko dira.
- Ikastetxean irakaslez eta ikaslez osatutako bitartekotza-zerbitzua izango da eta, hala nahi izanez gero, ikasgelan konpondu ez diren gatazkak konpontzeko zerbitzu horren laguntza eskatu ahal izango da.
- Diziplinari dagozkion arazoen aurrean, Bizikidetzaren Batzordera jo baino lehen bitartekotza-zerbitzua eskainiko da.
- Behin eta berriro errepikatzen diren jokaera negatiboak aztertuko dira modu indibidualean, programa ahal beste egokitzeko eta osatzeko (arazoak sortzen dituztenak alderdi curricularrak, emozionalak, harremanei dagozkienak... diren aztertu behar da eta horiek hobetzeko programa egokiren bat egingo da), beste erakunde batzuekin beharrezko koordinazioak planteatzeko eta kasu horien jarraipen zuzenagoa egiteko.
- Ikasle guztiak ikastetxeko bizikidetzarako arauak, betebeharrak eta eskubideak buruzko informazioa jasotzen dutela egiaztatzea.

6.5. AUKERAKOTASUNA ETA HAUTAZKOTASUNA CURRICULUMEAN.

DBHren izaera muinbakarra eta ikasle guztientzat curriculum berdina egiteko proposamena curriculumaren nolabaiteko aniztasun-mailarekin uztartzen da, behar eta interesak gero eta desberdinaoak baitira eta guztiei erantzun behar zaie. Helburu orokorrak berberak dira, baina horiek garatzeko egokia eta komenigarria izan daiteke ikasleek prozesu desberdinak jarraitzea. Dena dela, hautatzeko aukera hori ez da erabili behar ikasleak beren gaitasunen arabera aukeratzeko.

Ikastetxea da aukerakotasun-eskaintza egiteko arduraduna eta ikasleak orientatu behar ditu aukerako ikasgaiak hautatzeko orduan eta, azkeneko mailan, gainera, arlo desberdinen artean aukeratzeko lagundu behar die. Funtzio bikoitz hori betetzean ondoko irizpideak jarraituko ditugu:

Aukerakotasunaren alorraren eskaintza.

- Erreferentea etapako helburu orokorren garapena izango da uneoro, helburu hauetatik desbideratuko diren proposamenak saihestuz.
- Eskainiko diren ikasgaiak ikasleen interes eta beharrei erantzunon diete eta, horregatik, ikasleek ere horiek definitzeko prozesuan parte hartuko dute.
- Ikasgai horietan curriculumak ikuspegi berrietatik landuko da: zehar-lerroak, problema praktikoen ebazpena, lanbide-egoera desberdinen aplikazioa...
- Bigarren zikloan eskainiko diren ikasgaietan lanbideari eta har ditzaketen bide akademikoari buruzko erreferentziak kontuan izango dira.
- Estrategia didaktiko berritzaileak garatuko dira nagusiki: talde-lanak, metodologia aktiboak lantegien bitartez, diziplinarteko proiektuak ...
- Aukerakotasunaren alorra gaztelaniaz lantzen ari diren gaitan euskararen erabilaren gaitasuna sustatzeko nahiz ikasgela arruntean gertatzen ez diren egoerentzako erabiliko da.
- Taldean beste arlo batzuk ematen dituzten irakasleek aukerakotasunaren alorreko ikasgaiak ere emateko ahalegina egingo da.
- Ziklo bakoitzerako aukerako ikasgaiak eskainiko diren eremuak ondoko hauek izango dira:

ZIKLOAK	EREMUAK
Lehen zikloa	<input type="checkbox"/> Norberaren gorputzaren eta osasunaren ezagutza <input type="checkbox"/> Ezagutza soziokulturala <input type="checkbox"/> Adierazpena eta komunikazioa <input type="checkbox"/> Zientifiko-teknologikoa
Bigarren zikloa	<input type="checkbox"/> Ezagutza soziokulturala <input type="checkbox"/> Adierazpena eta komunikazioa <input type="checkbox"/> Zientifiko-teknologikoa

- Nolabaiteko oreka gordeko da aukerako ikasgaien eskaintzan, ikasleei eskainitako proposamenean une bakoitzean, gutxienez, hiru eremuei edo eremu gehiagori buruzko ikasgaiak agertuko direla bermatuz.

Derrigorrez eskaini behar diren aukerako ikasgaiak dagokienez, ondoko irizpideak jarraituko ditugu:

a) Atzerriko Bigarren Hizkuntza

- ◆ Ikasgai hau aukeratuko duten ikasleek lehenengo ziklo osoan aukera hori mantendu behar dute.
- Ikasgai hau aukeratuko duten ikasleek gutxienez bi ikasturtetan mantendu behar dute egindako aukera, probetxu egokia atera diotela bermatzeko.
- Ikasgai honetan lau maila eskainiko dira eta progresio logikoa izango dute hizkuntz gaitasunak eskuratzeko orduan. Lau maila hauek:
 - Etapako maila bakoitzean maila bat eskainiko da eta maila horretan kurtsu horretako ikasleek baino ezingo dute parte hartu.

b) Gizarteari dagozkion ikasgaiak bigarren zikloan:

- Gizarteari buruzko ikasgaiak dagokienez, gure ikastetxean ondoko ikasgaiak eskainiko dira: Prentsa Tailerra, Antzerki Tailerra eta Artisautza Tailerra.
- Curriculumean inguru fisiko eta sozialaren ezagutzarekin eta kultur ondarearen balorazioarekin eta zainketarekin erlazionaturako edukiak hartuko dira kontuan.

c) Kultura Klasikoa:

- ◆ Kultura Klasikoa eskainiko dugu bai laugarren kurtsoko hautazko gaien artean bai bigarren zikloko aukerakotasun espazioan.
- ◆ Ikasle batek Kultura Klasikoko modalitate bakarrean egin dezake ikasketak, eskaintzen zaizkion edozein kurtsuetan.

Hautazko arloen eta aukerakotasunaren alorreko ikasgaien aukeraketa

- Aukerakotasunaren alorreko ikasgaietan ikasleek behar bezala finkatu gabeko ikaskuntzak **indartzeko** aukera berriak bilatu behar dituzte edo, bestela, lortutako ikaskuntzak osatzeko aukerak; ez dira ikasleek kalifikazio negatiboa izan duten arloak errepasatzeko soilik erabiliko.
- Aukerakotasunaren alorraren eta hautazko arloen aukeraketa zainduko da, horiekin ikasleek etorkizun akademiko-profesionala babesten dutela ulertuz.
- Ikasleen taldekatze iraunkorrak ez ditu erreferente gisa aukeratutako ikasgai edo arloak izango: horretarako ikasgai edo arlo horiek emateko erabiltzen diren eta ikasleek taldea aldatuko duten ordu bat edo bi erabiliko dira.
- Ikasle bakoitzak, etapako bi zikloetan zehar, gutxienez, ikastetxean programaturako bi eremuetako hautazko ikasgaiak egin behar ditu.

Orientatzeko eta antolatze irizpideak

Hautazko ikasgaiak aukeratu baino lehen, informatzeko eta orientatzeko prozesu bat antolatuko da eta ondorengo jarduerak egingo dira:

- Aurreko ikasturteko tutoretzan ikastetxearen aukerakotasunaren eskaintza osatuko duten ikasgaiak aurkeztuko dira eta garatu nahi diren helburuak eta edukiak, jarduera eta ezaugarri esanguratsuenak eta horiek aukeratzeko irizpideak eta prozedurak adieraziko dira.
- Tutore bakoitzak, ikastetxeko orientatzailearen laguntzarekin, ikasle bakoitzari bere laguntza eskainiko dio aukerako ikasgaiak behin-betiko zehazteko.

Ikasgai jakin bat aukeratu duten ikasle-kopuruak ezarritako muga gainditzen badu, taldeak osatzeko ondorengo irizpideak erabiliko dira:

- Ikasleak ordu arte ikasitako ikasgaien eremuak, nolabaiteko oreka bermatzeko asmoz.
- Maila bat baino gehiago duten ikasgaietan, jarraipena eskaintzea.
- Ikastetxeko orientatzailearen eta ikasleen taldeko tutorearen iritzia.
- Ikasgai hori ikastea ikasleentzat beharrezkotzat jotzen diren oinarritzko ikaskuntza batzuk indartzeko lagungarri izan daitekeela pentsatzea.
- Ikasleek adierazitako lehentasunezko erlazioan ikasgai horrek duen tokia.

6.6. HEZKUNTZA-SUSTAPENA.

Hezkuntza-prozesuko une jakin batean, aurreikusitako helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleei erantzuteko hezkuntza-sustapenari buruzko erabakiak Ikastetxearen Curriculum Proiektu honetan ebaluazioari dagokion atalean jasota daude. (ikus 7.9.a.)

6.7. ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRI BEREZIAK

a) Eskolaratzeko programa osagarriak

Salbuespenez, behin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ohizko arauak aurreikusten dituzten neurriak bukatu ondoren, eta bakarka, ikaslea Eskolatzeko Programa osagarrian sartzea proposatu daiteke. Ikastetxean proposamen hau egin aurretik:

- Ikastetxeak berak dituen baliabideak erabiliko ditugu ikasleak dituen beharrei erantzuna emateko.
- Bakarkako programak ezarriko ditugu eta beraren jarraipen pertsonala egingo dugu.

Eskolaratzeko Programa Osagarri bat proposatzen denean, Ikastetxeak:

- ◆ Ikasleak Programa honetan parte hartzearen zergatiak eta egoera aipatzen txosten bat idatziko du proposamenaren egokitasuna arrazoituz.
- ◆ Bakarkako proposamen curricularra proposatuko du ohizko ikastetxean eta Programa osagarrian garatzeko, helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, Programa osagarrian emateko denbora eta aurreikusten den proposamenaren luzapena.
- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeko eta Programa Osagarrien arteko koordinazio plana diseinatuko du.
- ◆ Erreferentzizko pertsona bat izendatuko du ikastetxean, ikaslearen jarraipena egiteko.
- ◆ Eskolaratzeko Programa osagarrien arduradunekin batera gurasoei eman beharreko informazioa zehaztuko da.
- ◆ Hiru hilez behin gutxienez, ikastetxeko Ikasketa Buruak programa hauek jarraitzen dituzten ikasleen bakarkako jarraipena egiteko deia egingo du.
 - Hilero ikaslearen egoeraren jarraipena egiteko konpromezua hartuko du.
 - Saiatuko da ikasleak astean zehar lan denbora bat Ikastetxean izan dezan bere itzulera errazteko asmoz.
 - Ikaslea ikastetxean murgiltzea erraztuko du, bai talde arrunt batean bai aniztasun curricular programa batean, bere ikasketa prozesuari egindako jarraipenak, eskolaratzeko programa osagarrian, horrela gomendatzen duenean.

6.8. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK (HPB) DITUZTEN IKASLEENTZAKO NEURRI BEREZIAK

Ikastetxe honetan, aipatutakoez gain, inguruko Talde Multiprofesionalak ebaluatutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ditugu eta ikasle horiek laguntza eta arreta bereziak behar dituzte, ezintasun fisikoak, psikikoak edo zentzuei dagozkienak baitituzte edo gaitasun intelektual handiekin lotutako baldintza pertsonalak baitituzte.

a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin jokatzeko prozesua

1. Behar horiek antzematea eta ebaluatzea.

Orientabideaz arduratzen diren irakasleek, pedagogia terapeutikoko irakasleekin batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoera aztertuko dute eta, horretarako, ikasle horiei buruz dituzten txostenetan eta ondorengo alderdi zehatzetan oinarrituko dira:

- Ordu arteko eskolatzearen historian.
- Gaitasun-mailaren zehaztapenean arlo curricularretan.
- Arlo bakoitzeko beharren definizioan.
- Ikasleak erakutsitako ikaskuntzarako estrategien zehaztapenean.
- Harremani buruzko alderdietan (parekoekin, irakasleekin...).
- Ikaskuntzaren aurreko jarreran.
- Hezkuntza-premia berezien azterketan.

Beharrezkoa izanez gero, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ebaluazioa egiteko edo ikasle horiei eman beharreko erantzunarekin erlazionatutako edozein alderdirako, inguruko PATaren Talde Multiprofesionalaren laguntza izango da.

Hasierako ebaluaziorako zereginak egiterakoan, aurretik horren berririk izan ez arren, ikasle batek hezkuntza-premia bereziak dituela ikusten bada, premia hori antzematen duen irakasleak tutoreari adieraziko dio, horrek orientatzailearengana jo dezan; orientatzaileak ikaslearen premien diagnostikoa egingo du eta, hala badagokio, eskola-arreta berezia izan dezan eman behar diren urratsak emango ditu.

2. Erantzuteko aukerak

Erantzuteko modua ikaslearen hezkuntza-premien arabera egokituko da, integratzaileak direnei lehentasuna emanez beti:

Irizpide orokorrak:

- Ahal denean, hezkuntza-erantzuna ikasgela arruntean egingo da, behar bakoitzaren arabera egokitutako aldaketekin.
- Hezkuntza-erantzuna ikasgela arruntean egiten denean, orientatzaileak edo irakasleek proposatuta irakasle-taldeak egoki deritzon arloko irakasleak ikastetxeko gainerako irakasleen laguntza izango du.
- Hezkuntza-erantzuna laguntza-gelan garatuko da eta beharrezkotzat jotzen den denboran baino ez da egingo.
- Hezkuntza-erantzuna irakasle adituen laguntzarekin egingo da (pertsonaitsu edo gorrei laguntzeko irakasleak ...):
 - Ikasgelako gainerako irakasleen laguntzarekin.
 - Ikaslearen curriculum-egokitzapenaren erabakiak kontuan hartuz.

Irizpide bereziak hezkuntza-premien arabera:

- Gaitasun handiak dituzten ikasleei erantzuteko ondoko aldaketak egingo dira:
 - Edukiak aberastuko dira:
 - Aberastasun horizontala (konplexutasun-maila handiagoko edukiak).
 - Aberastasun bertikala (beranduagoko mailetakoko edukiak).
 - Malgutasuna (ikasturte bat kentzea).

Ospitalera eramatea behar duten ikasleen kasuan edo iraupen luzeko gaixotasunen ondorioz **15** egunetik gora ikastetxera joaterik ez dutenen kasuan, familiak laguntza eskatzen badu, ikastetxeak:

- Ikasleak etxean lan egiteko materialak emango dizkie.
- Ikasleak egindako lana berrikusiko du noizean behin.
- Ikaslearekin harreman zuzena izango du noizean behin, egiten dituen aurrerapenen jarraipena egiteko.

Ikastetxe honetan ikasleak behar duen laguntza eskaini ezin dugunean, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren oniritziarekin, irakasleek ikasleei beren etxean laguntzeko dituzten zailtasunei buruzko txosten bat prestatuko dugu eta txosten hori ospitalera eta etxera bidaliko da.

b) Curriculumean txertatzeko egokitzapenak eta curriculumaren egokitzapenak

Curriculumean txertatzeko egokitzapenak.

- ◆ Ikastetxeak proposatutakoak dira, behin-behineko edo behin betiko ezintasunen ondorioz sortutako eta sisteman eta hezkuntza-jardueran parte hartzeko baliabideak modu arruntan erabiltzea eragozten dieten hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen esku ikaskuntza lortzeko neurriak eta beharrezko dituzten laguntza teknikoak edo pertsonalak jartzeko.

Curriculumaren egokitzapen indibidualizatua eta esanguratsua

- ◆ Curriculumaren aginduzko elementuetan aldaketa garrantzitsuak egiteko aparteko neurria da, arlo bateko edo batzuetako, zikloko edo etapako helburuen zati handi bat egokituz edo kenduz.
- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculumaren egokitzapen esanguratsuzat ondokoak hartuko dira: ikaslea eskolatuta dagoen etapa ez den beste etaparen batean kokatutako erreferente curricularra dutenak.

Curriculumaren egokitzapen indibiduala eta esanguratsua behar denean edo txertatzeko egokitzapenak egin behar direnean, ikaslearen tutoreak lanketa-prozesu osoa koordinatuko du eta bertan honako hauek parte hartuko dute:

- Ikaslearekin lan egiten duten irakasleek.
- Ikastetxeko orientatzaileak.
- Ikastetxeko pedagogia terapeutikoko irakasleek.
- Ordu arte prozesuan inplikaturako pertsona guztiak.

Curriculumaren egokitzapenetan ondoko elementuak izango dira kontuan:

	CEI Esangura- tsua	Txer. egokitza penak
Ikaslearen eta inplikaturako irakasleen datuak, ikaslea zein mailatan dagoen zehaztuz.	◆	◆
Ziklo batean edo etapa osoan asko aldatzen diren esperientzia-eremuak edo arloak eta horien erreferentzia curricularra.	◆	
Gaur egungo gaitasun-maila, egokitu behar diren arlo curricularrei dagokienez.	◆	◆

Hezkuntza-premia berezien definizioa.	◆	◆
Esperientzia-eremuak edo egokituko diren arloak eta zikloan zehar garatu beharreko helburuak eta edukiak zehaztuko dituen curriculum egokitua.	◆	
Ebaluazioa egiteko erabiliko diren une, modu eta irizpideak nahiz horien jarraipena egiteko plangintza.	◆	
Ikaslearen erantzuna errazteko antolamenduari buruzko alderdiak.	□	□
Arlo bakoitzean eta laguntza-zerbitzuetan lan egiteko moduaren definizioa.	□	□
Inplikaturako profesionalen koordinazio-prozesua.	□	□
Familiarekin harremana garatzeko modua.	□	□
Ikasgelako programazioan CEIn planifikaturako alderdiak garatzeko neurriak.	□	□

Curriculumaren egokitzapen indibidualizatu eta esanguratsuak prestatzeko ondokoak erabiliko dira:

- 1998ko uztailaren 24ko AGINDUAREN eranskinak, curriculumaren egokitzapenei buruzkoak (akatsen zuzenketa 1998ko abenduaren 22ko EHAA).n).
- Aipaturako eranskinak eta Orientabide Sailak landutako beste atal batzuk.

c) Ikastetxetik kanpoko profesionalen eta profesional ibiltarien esku-hartzea

Ikasle baten beharrei erantzuteko ikastetxean profesional ibiltariren batek parte hartzen badu (logopeda, fisioterapeuta, itsuen baliabide-etxeko irakasleak, laguntzaileak, ospitalean eta etxean laguntzeko irakasleak, TMP...), profesional horien koordinazioa Zuzendaritza Taldeak egingo du eta errealizazio praktikoa beste hauek egingo dute:

- ◆ Ikastetxeko zuzendariak (edo horren ordezkariak).
- Ikastetxeko orientatzaileak.
- Ikasketa-buruak.
- Zikloko koordinatzaileak.
- Tutoreak (ikasle bakarrari kasu egiten zaionean)

d) Inguru arruntean egindako aldaketak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko

Gure ikastetxean inguru arrunta egokituko dugu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen parte-hartzea errazteko. Ikastetxeko geletan ondorengo aldaketak egingo ditugu:

- Jardueraren adierazleak jarriko ditugu ikusizko elementuen bitartez.
- Jarraitu beharreko ibilbidea adieraziko duten seinaleak.
- Ikastetxearen gelak kokatzeko argazkiak eta seinaleak.
- Pertsona itsuek erabiltzeko ukipenezko materiala.
- Ikasle gorrei informazioa eskaintzeko seinale argidunak.
- Material ergonomiko egokitua.
- Espazioaren egokitzapenak (maldak, eskubandak ...).
- Bainu eta komun egokituak.

7.- IKASLEEN EBALUAZIOA

7.1. Kontzeptua, helburuak, izaera eta ebaluatu beharreko alderdiak

7.2. Ebaluazioaren uneak

- a) Hasierako ebaluazioa
- b) Etengabeko edo prozesuko ebaluazioa
- c) Azken ebaluazioa

7.3. Ebaluazio-bilkurak

7.4. Ebaluazio-prozesuaren egutegia

7.5. Ebaluaziorako prozedurak eta estrategiak

7.6. Ebaluazio-irizpide globalak

- Lehen zikloa
- Hirugarren maila
- Laugarren maila

7.7. Ebaluaziorako txosten indibidualizatuak

7.8. Familiei zuzendutako informazioa

- a) Talde-bilerak
- b) Elkarrizketa pertsonalak
- c) Txosten idatziak

7.9. Ebaluazioaren ondorioak

- a) Hezkuntza-sustapena
 - Kontzeptua
 - Proposamenaren helburu diren ikasleak
 - Esku hartzeko irizpideak
 - Antolatzeko irizpideak
- b) Bigarren ziklora eta DBHko laugarren mailara igarotzea
- c) Ziklo edo maila batean beste urte betez geratzea
- d) Kreditazioa eta titulazioa

7.1. KONTZEPTUA, HELBURUAK, IZAERA ETA EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK

Ikasleen ebaluazioa ikaskuntzari buruz egiten den **hausnarketa-prozesu** sistematikoa da. Hau da:

- planteatutako helburuen arabera ebaluazio-irizpideak zehazten ditugu;
- ikaskuntza-prozesuari eta horren emaitzei buruzko informazioa biltzen dugu;
- honako hauei buruzko iritzia emateko eta erabakiak hartzeko:
 - ikasleen ikaskuntzen balorazioa,
 - hezkuntzako esku-hartzearen plangintza,
 - ikasleen beharretara egokitzea,
 - indartzeko neurriak eta maila igarotzeko prozesuak.

- ◆ Ikasleen ebaluazioa etengabea izango da eta jarduera, berriz, sistematikoa eta iraunkorra, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan integratuta egongo dena:
 - Ebaluaziorako jarduera desberdinak egingo dira sekuentzia didaktikoetan.
 - Ikasleei beren egoeraren berri emango zaie modu informalean ebaluazio-garaiaren une desberdinetan.
 - Gutxienez, datu dokumentatuko dira ikasle baten ikaskuntza-prozesuari buruz ebaluazio-garaian.
- ◆ Ikasleen ebaluazioa **integratzailea** izango da, arlo eta ikasgai guztietan etaparako ezarritako gaitasun orokorrak kontuan izanik eta, beraz::
 - Arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideetan gaitasun orokor horiek kontuan izango dira.
 - Ebaluazio-bilkuretan erreferentzia orokor hori gogoratuko da.

- ◆ Ikasleen ebaluazioa **indibidualizatua** izango da eta ikasle bakoitzarentzat prestakuntza-funtzioa izango du; beraz:
 - Ikasleei beren ikaskuntza-prozesuari buruzko orientabideak emango zaizkie, hobetu behar dituzten alderdiak adieraziz.
 - Ikasleei beren ikaskuntzaren emaitzak hobetzeko moduari buruzko informazioa emango zaie.
 - Sekuentzia didaktiko guztietan ikasleak ikasten ari direnaz kontzientzia hartzeko eta beren ikaskuntza-prozesuaz ohartzeko denbora eskainiko da.

Hezkuntza-prozesuaren etengabeko hobekuntza lortu nahi duen ebaluazioak irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren alderdi guztiak sakondu behar ditu eta, beraz, ikastetxe honetan ebaluatu nahi duguna honako hau da:

- Ikasleen gaitasunen garapen-maila, etapako eta arloetako helburu gisa proposatutakoena.
- Ikasleek proposatutako prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak bereganatzeko duten maila.
- Ikasleen garapen pertsonala.
- Norberaren orientabide egokian, eskolakoan eta lanekoan eragiten duten alderdiak.
- Ikasle baten ikaskuntza-prozesua hobetzeko aplikatutako neurrien baliagarritasuna.
- Proposatutako jardueren baliozkotasuna eta eraginkortasuna.
- Gelako giroa, gelako elkarreraginak, taldearen egoera.

Ikastetxearen Curriculum Proiektu honetan ezarritakoetan oinarrituta, sekuentzia didaktiko bakoitzean zer ebaluatu behar dugun jakiteko jarraibideak izango dituzten ebaluazio-irizpideak landuko ditugu, oinarrizkoa baita irakasleentzat nahiz ikasleentzat, beren lana antolatzeko. Ebaluazio-irizpide horiek definitzerakoan honako hauek izango ditugu kontuan:

- ◆ Irakasleok sekuentzia didaktikoarekin edo ebaluazio-garaiarekin hasi baino lehen finkatuko ditugu ebaluazio-irizpideak eta ikasleei irizpide horien berri emango diegu, gutxienez
 - ◆ Ikasturtearen hasieran.
 - Ebaluazio-garaiaren hasieran.
 - Sekuentzia bakoitzaren hasieran.
 - Ebaluazio-irizpideak horiek aplikatuko zaizkien ikasleek ulertzeko moduan landuko dira
 - Sekuentzia bakoitzean irakatsi diren edukiak ebaluatuko dira, ez gure ustez ikasleek jakin behar dituztenak (esate baterako, aurretiazko ezagutzak eta trebetasunak).
 - Posible denean, ebaluazio-irizpidean mota desberdineko edukiak bilduko ditugu, euren artean loturaren bat dutenak.
 - Jarrerazko edukiak ebaluatzerakoan ez dugu ikaslearen izaera edo diziplina falta ebaluatuko, baizik eta irakatsitako edukien ikaskuntza-maila, bere eguneroko portaeran ikusitakoak.

7.2. EBALUAZIOAREN UNEAK

Ebaluazioa prozesu etengabea da eta hezkuntza-prozesuarekin batera garatzen da; ikastetxe honetan honela egituratuko dugu:

a) Hasierako ebaluazioa

- ◆ DBHko ziklo bakoitzaren hasieran irakasle-taldeak hasierako ebaluazioa egingo du, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren abiapuntua zehaztu ahal izateko. Hori

lortzeko Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak edo lehen zikloko irakasle-taldeak bidalitako Ebaluazio Indibidualizaturako Txostena kontuan izango da.

- Sekuentzia didaktiko bakoitzaren maila bakoitza edo ebaluazio-garai bakoitza hasterakoan ebaluazio bat egingo dugu, ikasleen gaitasunak eta beharrak ezagutzeko eta ikasturtearen plangintza lan egin behar dugun taldearen ezaugarri berezietara egokitu ahal izateko.
- Hasierako ebaluazioaren zentzua ikaskuntza berri bat hasi aurretik ikasleek dituzten ezagutzak, maila eta trebetasunak kokatzea da.

b) Etengabeko edo prozesuko ebaluazioa

Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren garapenean prozesuak aldatzea, egokitzea eta hobetzea ahalbidetuko duen jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egingo dugu.

Ikasleen ikaskuntzen etengabeko ebaluazioa honako hauek kontuan hartuz egingo da:

- Arloetako ebaluazio-irizpideak.
- Etapako eta zikloko helburu orokorretan adierazitako gaitasunen garapena.
- Ikasle bakoitzaren baldintza bereziak, ondorengo hauekin lotutako alderdiak azpimarratuz:
 - Taldean integratzea (ikaslideen arteko harremanak, irakasleekin dituztenak ...).
 - Jokaera eta lanerako ohiturak (ekimena, antolatze gaitasuna, jarraipena, orijinaltasuna, garbitasuna...).
 - Lan-metodoak erabiltzeko trebetasunak eta abileziak.
 - Arlo guztietan ikasteko prozedurak erabiltzea.
- Hezkuntza sustatzeko beharrezko neurriak.
- Ikasleek beren ikaskuntza erregulatzeko dagoen aukera.

Irakasleek planifikatutako irakaskuntza-prozesuaren aldagaiei dagokienez, besteak beste, ondorengo alderdiak ebaluatuko dira:

- Sekuentzia didaktikoaren programazioa talde bakoitzeko ikasleen egoeraren eta beharren arabera egokitzea.
- Gelako giroa (ikasleen arteko harremanak eta elkarreraginak).
- Proposamen didaktikoen eraginkortasuna.
- Ikasleen inplikazio eta motibazio handiagoa eskatzen duten jarduerak.
- Ikaskuntzaren jarraipena.
- Eguneroko lanean hezkuntza sustatzeko erabiltzen diren proposamenak.
- Taldearen dinamikarekin lotutako neurri bereziak.

Etengabeko ebaluaziorako prozesu hauen garapenerako:

- Programatutako sekuentzia didaktiko bakoitzean ebaluaziorako jarduera bereziak erabiliko ditugu, goian adierazitako informazioa jasotzeko.
- Ikastetxean etengabeko ebaluazio hori erraztuko duten tresnak izango ditugu.

c) Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioak ikasleen ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzeko balio du eta baita ondorengo prestakuntza-sekuentzia planifikatzeko eta egokitzeko ere.

- Programatutako sekuentzia didaktiko bakoitza amaitzean jarraitutako prozesua eta ikasleen egoera baloratuko ditugu.
- Ebaluazio-garai bakoitza amaitzean jarraitutako prozesua eta ikasleen egoera baloratuko ditugu eta horretarako honako alderdi hauek izango ditugu kontuan:

- Jarduera-programa taldeko ikasleen aurrerapenaren arabera egokituko dugu.
- Beharrezkotzat jotzen ditugun hezkuntza sustatzeko neurriak hartuko ditugu.
- Taldearen dinamikarekin lotutako beharrezko neurriak hartuko ditugu.
- Maila bakoitza amaitzean ikaskuntzaren emaitzak egiaztatuko ditugu eta ikasle bakoitzaren gaitasunak eta beharrak zein diren zehaztuko dugu.
- ◆ Lehenengo zikloaren, hirugarren mailaren eta etaparen amaieran jarraitutako prozesuaren eta lortutako emaitzen balorazio globala egingo da eta balorazio hori egiteko oinarritzko erreferentzia arlo bakoitzeko ebaluazio-irizpideak eta etapako globalak izango dira. Ebaluazio horretan oinarrituta, hurrengo ziklo edo mailara igarotzeko, titulua emateko edo ziklo edo maila berean beste urte bat geratzeko erabakia hartuko dugu, erabaki hori etapa osoan behin bakarrik har daitekeela ohartzuz, araudian adierazitako salbuespenetan izan ezik.

7.3. EBALUAZIO-BILKURAK

- ◆ Ebaluazio-bilkurak irakasle-taldearen bilerak dira eta taldearen irakasleak/tutoreak koordinatzen ditu eta, hala dagokionean, orientatzailearen laguntza izaten du. Eztabaida kolegiatua egin ondoren, bilkura-egunera arte egindako ebaluazio-jardueren emaitzak biltzen dituzte dokumentuetan.

Urte akademikoan zehar honako hauek egingo ditugu:

- Ebaluazioko ohiko hiru bilkura, ikasturteko hiruhileko bakoitzaren amaieran.
- Ohiko bilkurez gain, urriko lehenengo astean hasierako ebaluazioko bilkura bat egingo da, taldean esku hartzeko alderdi orokorrak eta hezkuntza-sustapenerako neurriak planifikatzeko.
- Ebaluazio-bilkuren artean taldearen irakasle-taldea gutxienez behin bilduko da, tutoreak hala eskatzen badu behintzat, ikasleen aurrerapenak aztertzeko, batez ere behar edo premia bereziren bat duten ikasleek, edo taldean sor daitezkeen bestelako arazoak aztertzeko.
- ◆ Ebaluazio-bilkurretan emaitza akademiko globalak aztertuko dira, egoera ezagutzeko eta alderdi hauek sakontzeko edo hobetzeko neurriak proposatzeko:
 - Ikasle jakin batzuei buruzko arazoak.
 - Arlo bateko edo batzuetako arazoak.
 - Irakasle bati edo batzuei buruzko arazoak.
- ◆ Ebaluazio-bilkurretan taldearen egoera eta arazoak aztertuko dira eta, hala dagokionean, horiek konpontzeko neurriak hartuko dira.
- ◆ Lehenengo zikloko eta bigarren zikloko lehenengo mailako azken ebaluazio-bilkura ikasturtea amaitu ondoren egingo da, ekainean. Bilera horretan, bilkura guztietan hartu ohi diren erabakiez gain, guztien artean eztabaidatu ondoren, ondoko erabaki hauek hartuko dira:
 - ◆ Derrigorrezko arloetan eta hautazkoetan lortutako kalifikazioak erabakiko dira.
 - ◆ Ikaslea hurrengo ziklo edo mailara igaroko den ala hurrengo urte akademikoan ziklo edo maila berean geratuko den erabakiko da.
 - ◆ Ebaluazio indibidualizatuari buruzko txostenen edukia erabakiko da.
 - ◆ Hamasei urte beteta dituzten ikasleak direnean eta derrigorrezko hezkuntza utzi nahi dutenean, irakasleak/tutoreak irakasle-taldeak etorkizun akademiko eta profesionalari buruz kontseilu orientatzailearen bidez dioena entzungo du.

- ◆ Bigarren zikloko bigarren mailako azken bilkura ikasturtea amaitu ondoren egingo da, ekainean. Bilera horretan, bilkura guztietan hartu ohi diren erabakiez gain, guztien artean eztabaidatu ondoren, ondoko erabaki hauek hartuko dira:
 - ◆ Derrigorrezko arloetan eta hautazkoetan lortutako kalifikazioak erabakiko dira.
 - ◆ Bigarren Irakaskuntzako Graduatu titulua emateko edo hurrengo ikasturte akademikoan ziklo berean jarraitzeko proposamenak erabakiko dira.
 - ◆ Irakasleak/tutoreak irakasle-taldeak etorkizun akademiko eta profesionalari buruz kontseilu orientatzailearen bidez dioena entzungo du, hurrengo ikasturtean ere maila bera errepikatzen ez badu behintzat.
 - ◆ Ebaluazio indibidualizatuari buruzko txostenen edukia erabakiko da.

7.4. EBALUAZIO-PROZESUAREN EGUTEGIA

Unea	Ekintzak	Dokumentuak
Etaparen hasieran	Hasierako ebaluazioa	<i>Ikaslearen ikasketa-espeditentea</i>
Ikasturte bakoitzean zehar	Gutxienez, hiru ebaluazio-bilkura Hala dagokionean, indartzeko edo curriculuma egokitzeko neurriak	<i>Ebaluazio-aktak</i> Gurasoei eta ikasleei informatzeko <i>txosten laburrak</i>
Lehen zikloaren eta hirugarren mailaren amaieran	Azken ebaluazioaren bilkura Ikaslea hurrengo mailara igarotzen den ala ez erabakitzea Bi arlotan kalifikazio negatiboa duen ikaslea hurrengo mailara igarotzeari buruzko txostena Hala dagokionean, indartzeko neurriak	<i>Ebaluazio-aktak</i> <i>Ebaluazioko txosten indibidualizatuak</i> <i>Azken ebaluazioko txostenak</i> <i>Familiei eta ikasleei informatzea</i>
Etaparen amaieran	Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua emateko erabakia Kasu berezietan buruzko txostena	<i>Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua emateko proposamena.</i> <i>Titulurik ez duten ikasleei mailen eta kalifikazioen kreditazioa ematea.</i> <i>Kontseilu orientatzailea.</i>
Etaparen zehar	Kalifikazio bilketa	<i>Eskolaketa-liburua</i>

7.5. EBALUAZIORAKO PROZEDURAK ETA ESTRAEGIAK

Ziklo bakoitzeko eta arloko mintegietako irakasle-taldeak egoki iruditzen zaizkion estrategiak diseinatu dituz eta horiek aplikatzeko erabakiak hartuko ditu. Irakasle-taldearen konpromisoak ondoko hauek dira:

- Sekuentzia didaktiko bakoitzean ebaluaziorako informazioen bat jasoko da.
- Ebaluazio-garai bakoitzean gutxienez 3, 5..... informazio desberdin programatuko ditugu.
- Teknika desberdinen bitartez informazioa bilduko dugu, bakar batera mugatu gabe;
- Ebaluazio-garai bakoitzean informazioa biltzeko tresna desberdinak erabiliko ditugu.
- Eduki-mota desberdinei (jarrerazkoak, prozedurazkoak eta kontzeptuzkoak) buruzko informazioa bilduko duten tresnak diseinatu ditugu.
- Ikasgelan akats nagusiak landuko ditugu eta ez ditugu zigorren bidez konponduko, zailtasunak eta ikaskuntzako gabeziak antzemateko erabiliko ditugu.
- Ikasleek beren aurrerapenak ezagutzeko eta beren ikaskuntza-prozesua erregulatzeko, autoebaluatzeko jarduerak erabiliko ditugu.
- Gure esku ditugun tekniken bidez, ebaluazio baten emaitza negatiboen arrazoiak bilatuko ditugu.

Ebaluazio teknikak	Kontzeptualak	Prozedurazkoak	Jarrerazkoak
<i>Behaketa sistematikoa.</i>			
Irakaslearen egunkaria	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kontrol zerrendak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Behaketa gidoiak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Behaketa eskalak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Informazio erregistroak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Ikasleen ekoizpenen analisia.</i>			
Ikerketa txikiak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Miaketak liburuetan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lanen laburpenak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Koaderno pertsonalak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lan pertsonalak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Taldeko lanak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ahozko lanak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Simulazio jokoak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Frogak eta galdeketak:</i>			
Ahozkoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Idatziak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Indibidualak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kolektiboak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ordenadore bidez.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
.....			
<i>Kanpoko behaketak</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Grabazioak</i>			
Soinua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irudia eta soinua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

7.6. EBALUAZIO-IRIZPIDE GLOBALAK

Etapako Helburu Orokorrek kontuan edukiz formulatu ditugun ebaluazio-irizpide hauen bidez, ikasleek ziklo eta maila bakoitzean egin dituzten lorpenak baloratu nahi ditugu modu globalean, arlo bakoitzetik lortzen den ikuspegia osatuz.

7.7. EBALUAZIORAKO TXOSTEN INDIBIDUALIZATUAK

Ebaluaziorako Txosten Indibidualizatuek 4 atal izango dituzte:

Lehenengoa deskriptiboa da eta ondorengo alderdiak bereiziko ditugu:

- ◆ Etapako gaitasun orokorren garapen-maila.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako helburuak lortzeko maila.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako edukiak bereganatzeko maila.
- Jarraitutako prozesua: hasierako proposamenetan gertatu diren aldaketak, sortu diren zailtasunak, egin diren aurrerapenak, prozesua ikasleen ikasteko modura egokitzeke hartu diren neurri bereziak...

Bigarrena balorazioari dagokiona da eta honako hauek biltzen ditu:

- ◆ Bere maila edo ziklorako proposatutako helburuen araberrako balorazioa.
- Lortutako emaitzen balorazioa, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan izanik.

Hirugarren atalak hezkuntza-neurriak definitzen ditu:

- ◆ Orain arte hartu diren hezkuntza-neurri osagarriak.
- Hartu behar diren hezkuntza-neurri osagarriak.
- Gainerako irakasleei egin beharreko gomendioak.
- Familiari egin beharreko gomendioak.

- ◆ Laugarrena ikaslea hurrengo urtera igaroko den ala ez arrazoitzeko da.

Txosten hauek sekretupekoak izango dira, gainerako dokumentu ofizialak bezala, eta ondorengo uneetan beteko ditugu:

- ◆ Lehen zikloko eta hirugarren mailako azken ebaluazio-bilkuren ondoren.
- ◆ Ikastetxez aldatzen denean, kurtso edo zikloa bukatu gabe.
- DBHko maila bakoitzaren azken ebaluazio-bilkuraren ondoren.
- Etapako azken ebaluazio-bilkuraren ondoren.
- Maila osoan zehar eta familiei informazioa eman aurretik, berori bukatzean itxiko delarik.

7.8. FAMILIEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA.

a) Talde-bilerak

Talde bateko ikasleen gurasoekin edo arduradun legalekin egiten diren bilerak dira. Bilera hauen helburua familiei interes orokorreko gaien berri ematea da:

- Ikasturtearen hasieran bilera bat egingo da, helburuei, oinarrizko edukiei eta ebaluazio-irizpideei nahiz taldearen egoera orokorrari buruzko informazioa emateko.
- Ikasturtearen amaieran bilera bat egingo da, lortutako emaitzak eta hobetzeko gomendioak aztertzeke.
- Bileretan ikasturtearen hezkuntza-asmoei, egingo diren jarduerari, ebaluaziorako prozesuei, antolatzeke eta funtzionamendurako arauari eta, bereziki, gurasoek prozesu horietan guztietan eskaini dezaketen laguntzari buruzko hausnarketa batzuk planteatutako dira.

b) Gurasoekin eta ordezkari legalekin egin beharreko elkarrizketa pertsonalak

Ikasle bakoitzaren gurasoekin edo ordezkari legalekin egin beharreko bilerak, ikastetxeak hala proposatuta, honela egingo dira:

- Ikasturtean behin gutxienez.
- Ebaluazio-garai bakoitza amaitzean.
- Tutoreak egoki deritzon.

Bilera horiek helburu hauek izango dituzte:

- Gurasoei beren seme-alaben hezkuntza-prozesuaren, egin dituzten aurrerapenen, lortu dituzten gaitasunen eta ikusten dituzten beharren berri ematea.
- Beren seme-alabei etxean eman diezaieketen laguntza adieraztea, batez ere ikasteko ohiturei, lana antolatzeke moduari, erantzukizunei eta abarri buruz.
- Ikasleak etxean egiten duen ahaleginari, ikaskuntza zailtzen duten arazoei, ebaluazioak ikaskuntzan dituen ondorioei eta abarri buruzko informazioa jasotzea, hala, ikastetxean izan behar dugun esku-hartzea egokitzeko.

c) Familiei bidalitako txosten idatziak

- ◆ Ohiko ebaluazio-bilkura bakoitzaren ondoren bidaliko dizkiegu txosten idatziak familiei, hau da:
 - Hiruhileko bakoitzean behin.
 - Lau aldiz ikasturte bakoitzean.
 - Hiruhileko bakoitzean behin eta hasierako ebaluazio-bilkuraren ondoren.

Atalak Ebaluazio Indibidualizatuen Txostenenak bezalakoak izango dira eta ondorengo eduki hauek izango dituzte:

- ◆ Arlo eta ikasgaietako helburuak zein mailatan lortu diren.
- ◆ Arlo eta ikasgaietako edukiak zein mailatan bereganatu diren.
- Lortutako emaitzen balorazioa, ikasle bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuz.
- Jarraitutako prozesua: sortu diren zailtasunak, egin diren aurrerapenak, prozesua ikasleen ikasteko modura egokitzeko hartu diren neurri bereziak...
- ◆ Ordu arte hartutako hezkuntza-neurri osagarriak.
 - Familiari emandako gomendioak.
 - Irakasleek egin dituzten oharrak.
 - Amak, aitak edo arduradun legalak informazioari bestelako oharrak gehitzeko tokia utziko da.

7.9. EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

a) Hezkuntza-sustapena

Kontzeptua

Hezkuntza-sustapena hezkuntza-neurri indibidual edo kolektiboen multzoa da eta neurri horiek irakasleek diseinatuko dituzte, ikasleei beren hezkuntza-prozesuan ebaluazioaren bat (hasierakoa, prozesukoa edo azkena) egin ondoren, sekuentzian, mailan nahiz zikloan proposatutako helburuak lortzeko zailtasunak erakusten dituzten ikasleei zuzentzen zaizkielarik.

Proposamenaren helburu diren ikasleak

- ◆ Arlo batean kalifikazio negatiboa izaten duten ikasleei hezkuntza-sustapenerako neurri osagarriak aplikatuko zaizkie. Neurri horiek taldeko irakasle-taldeak erabakiko ditu ebaluazio-bilkurretan, dagozkien irakasleek hala proposatzen dutenean.

Esku-hartzearen azterketarako irizpideak:

Edozein erabaki hartu aurretik zailtasuna non dagoen aztertu beharra dago:

- Taldeko ikasle-kopuru handiari edo ikasle jakin batzuei eragiten dien ikusi behar da.
- Oinarrizko ikaskuntzetako gabeziak diren, arlo zehatzen bat hartzen duten edo zailtasun puntualak diren ikusi behar da.
- Ikaskuntzako estrategiak bereganatu ez dituztelako gertatu diren edo ikasteko ohitura eta teknikarik ez dutelako edo abstrakziorako gaitasun txikia dutelako sortu diren aztertu behar da.
- Jarduera-mota jakin batzuetan gertatzen diren edo jarduera horien esanguratsutasun faltarengatik gertatzen diren.
- Motibazio faltarekin, taldeko integrazioarekin edo eskolako bizitzaren kontrako jarrerarekin erlazionatuta dauden aztertu behar da.

Hezkuntza-sustapena prozesu didaktikoan integratu behar dela uste dugu, eta, horregatik, sustapenerako ondorengo moduei lehentasuna emango zaie:

- Prebentziozkoa: ikasleengan zailtasunak sortu aurretik erantzuteko helburua du, izaera orokorreko prozedura didaktikoen bidez.
- Pixkanakakoa: sekuentzia didaktikoen garapenean sortutako arazoei erantzuteko helburua du, taldean-ikasgelan erabil daitezkeen barneko baliabideak aprobetxatuz (denborak, espazioak, materialak, taldekatzeak...).
- Zuzentzailea: curriculumaren oinarrizko alderdietan sortutako eta irakasle-talde osoaren neurri koordinatuak behar dituzten akats garrantzitsuak zuzentzeko helburua du.

Hezkuntza-sustapenerako plana.

Aurkitutako zailtasunen arabera, gure ikastetxeko sustapen-plana diseinatuko da eta ondorengo alderdi hauek bilduko ditu:

- Hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko neurri orokorrak.
- Arlo batzuk sendotzeko neurriak.
- Neurri osagarriak, kalifikazio negatiboak izan dituzten ikasleei aplikatu daitezkeenak eta ondorengo irizpideei erantzun dietenak:
 - ikaskuntzan antzemandako zailtasunak gainditzeko jarduera indibidualak;
 - arloko irakaslearen taldeko edo banan-banako tutoretza;
 - espazioak, denborak eta tutoretzaren arduradunak.
- Proposatutako neurriak bideragarriak egingo dituzten antolamenduzko neurriak:
 - DBHko lehenengo zikloko taldeetan irakasle-kopuru txikiena jartzen saiatuko gara.
 - Jagoletza-ordu guztiak ahal den pertsona gutxienekin bete ondoren, gainerako orduak hezkuntza-sustapenera zuzenduko dira.
- Sustapen handiagoa behar duten arloetan talde bakoitzean bi profesionalek lan egitea taldetik ikasleak ateratzea baino egokiagoa izango da.
- 20 ikasle baino gehiago dituzten taldeetan zatiketak egingo dira, astean ordu betez, modu indibidualizatuagoan lan egiteko.
- Irakasleen denboraren banaketan hamabostean behin talde bereko irakasle gehienak biltzeko ahalegina egingo da, guztien esku-hartzea koordinatzeko asmoz.
- Ikastorduetatik kanpo liburutegia irekita egongo da, arratsaldeko arte, eta liburutegian lan egingo duten ikasleei laguntzeko pertsona bat izango da bertan.
- Ikastorduak amaitzean, astean behin, irakasleek ikasleen tutoretzarako ordu batzuk izango dituzte, horien zailtasunei erantzuteko eta proposatutako jarduerak egiten laguntzeko.

- Astero, ikastorduak amaitzean, hezkuntza-sustapenerako ordu bat eskainiko da arlo eta ziklo bakoitzean, eta ikasleek zailtasun gehien dituzten arloak landuko dituzte irakasleekin.
- Lehenengo zikloan, ikasle batzuek arlo instrumentaletan gabezia larriak dituztenean, tutoreak, orientatzailearen laguntzarekin, beharrezko ikusten dituen berriazko esku-hartzeko jarduketak planteatuko ditu.

b) Hurrengo ziklo edo mailara igarotzea.

Neurri honen esanahia oinarritzen da, batez ere, uzte delako ikasle batek ahal badu eta denbora gehiago izanik aukera gehiago duela zikloa gainditzeko, edo gutxienez hobekuntza pertsonala izateko emandako aukeraren bidez.

- ◆ Ikasleak derrigorrezko arlo eta hautazko ikasgai guztietan ebaluazio positiboa lortu duenean automatikoki igaroko da hurrengo ziklo edo mailara.
- ◆ Arlo edo ikasgai bat edo bi negatiboki ebaluatu dituzten ikasleak hurrengo maila edo ziklora igaroko dira:
 - Neurri osagarri batzuekin.
 - Gainditu behar dituen arloetako alderdiak bilduko dituen txosten batekin.
 - Garatu ez dituen ikaskuntzak eskuratzeko lan-programa batekin.
- ◆ Irakasle-taldeak ikaslea hurrengo maila edo ziklora igaroko den ala ez erabaki aurretik, irakasleek ikaslearen, horren gurasoen edo ordezkari legalen iritzia entzun behar dituzte.
 - Tutoreak egoera planteatuko du, aukerak azalduko dizkie eta horien iritzia jasoko du.
 - Tutoreak, ikastetxeko orientatzailearekin batera, egoera azalduko die, ikasleak dituen aukerak adieraziko dizkie eta haien iritzia entzungo ditu.
 - Ikastetxeko orientatzaileak egoera azalduko die, ikasleak dituen aukerak adieraziko dizkie eta haien iritzia entzungo ditu.
- ◆ Ikasleak bi arlo edo ikasgaitan edo bi baino gehiagotan emaitza negatiboak lortu dituztenean eta arlo edo ikasgai horien iraupena ikaslearen ziklo edo mailako orduen % 50 baino txikiagoa denean, ikasle hori hurrengo ziklo edo mailara igarotzea erabakitzen bada, txosten bat prestatu behar da eta bertan irakasle-taldean bi herenak ados daudela adieraziko da eta ikasketekin aurrera jarraitzeko arrazoiak adieraziko dira; bestalde, beharrezkotzat jotzen diren neurri osagarriak ere azalduko dira. Neurri horiek ondorengoak izango dira:
 - Hezkuntza-sustapenerako neurriak, hurrengo mailan aplikatuko direnak.
 - Jarduera osagarrien programaren diseinua, ikasturtea hasi baino lehen eta ikasturtean zehar garatuko direnak.
 - Gainditu behar dituen arloetako alderdiei buruzko informazioa, horiek aurrera eramateko lan-plan batekin.
- ◆ Ezinezkoa izango da maila berean bi urte baino gehiago egotea.
- ◆ Lehenengo zikloan hiru urte edo bigarren zikloko edozein mailatan bi urte egin dituzten ikasleek ezingo dute berriro maila bat errepikatu, salbuespen gisa, ikaslea beste ikasturte batez gera dadin erabaki ahal izango da, beti ere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen denean:
 - ◆ Ikasle-taldeak bi heren gainditzeko dituen gehiengo kualifikatuz txosten bat onartzea. Txosten horretan irakasle tutoreak ikasketen plan desberdinak eratzeko programarik gabe ikasleak Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko benetan dituen aukerak justifikatuko ditu, orientatzailearen laguntzarekin, hal egokituz gero.
 - ◆ Araudipeko adinean hasita Lehen Hezkuntza sei ikasturtetan egin izana, osagarriko urterik pasa izan gabe maila horretan.

- ◆ Ziklo edo maila batean geratu ezin duelako hurrengo ziklo edo mailara igarotzea derrigorrezkoa den kasuetan, ondokoak landuko ditugu:
 - ◆ Aplikatuko diren neurri osagarriak (hezkuntza-sustapena).
 - Gaingitu behar dituzten arloetako alderdiak bilduko dituen txosten bat.
 - Garatu beharreko ikaskuntzak eskuratzeko lan-programa bat.

c) Ziklo edo maila batean beste urte betez geratzea

- ◆ Ikasleak bi arlo edo ikasgaitan edo bi baino gehiagotan emaitza negatiboak lortu dituenetan eta arlo edo ikasgai horien iraupena ikaslearen ziklo edo mailako orduen % 50 edo gutxiago denean, ikasle hori hurrengo ziklo edo mailara igaro ezin daitekeela erabakitzen bada, txosten bat prestatu behar da eta bertan irakasle-taldean bi herenak ados daudela adieraziko da eta ikasketekin aurrera jarraitzeko zailtasunak adieraziko dira. Erabaki hori hartzeko ondorengo irizpideetan oinarrituko gara:
 - Ikasleak lortu duen aprobetxamendu globala (promozio-irizpideetan ezarritakoa).
 - Dagokion ziklo edo mailako helburuak zein mailatan lortu dituen (ikasleak zailtasunak dituen arloetan adierazita).
 - Hurrengo ikasturteari probetxu egokia ateratzea oztopatuko duten zailtasunak, maila bera berriro egitea oinarritzko helburuak hobeto barneratze bide gisa hartuz.
 - Talde berrian integratzeko dituen aukerak.
 - Ikaslearen jokaera eta proposatu zaizkion hezkuntza-neurri osagarriei emandako erantzuna.
 - Dagokion kasuetan, orientabide-sailaren iritzia.

Irizpide orokor moduan, ikasleak ondokoetan balorazio negatiboa lortzen badu hurrengo ziklo edo mailara igaro behar ez dela uste dugu (arlo instrumentalak eta hizkuntz arloak eta/edo ziklo eta maila guztietan errepikatzen diren arloak):

- Sei arlotan edo gehiagotan, edozein izanik ere.
 - Bost arlotan, horien artean honako hauek daudela kontuan izanik: Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Matematika, Atzerriko Hizkuntza.
 - Lau arlotan, arlo horien artean honako hauetako hiru daudenean: Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Matematika, Atzerriko Hizkuntza.
- Dena dela, aurreko irizpideak malgutasunez erabiliko dira eta aurreko egoeraren batean dauden ikasle kasuan ere irakasle-taldeak erabakiren bat hartzeko beste irizpide batzuk izan ditzake kontuan, egoera zehatz bakoitzaren azterketa berezia eginez.
- ◆ Ikasle batek ikasturte bat errepikatzeko erabakia behin baino ezingo da hartu lehenengo zikloa amaitzean edo bigarren zikloko mailaren batean, legeak araututako salbuespenetan izan ezik.

Erabaki hori hartzen denean honako hauek ezarriko ditugu:

- Programa pertsonalizatua eratuko dugu, maila errepikatzeaz gain helburu batzuk lortuko direla bermatzeko.
- Ikasturtea hasi aurretik eta ikasturtean zehar garatuko diren jarduerak osagarrien programa bat diseinatuko da.
- Gaingitu behar diren arloetako alderdiei buruzko berriazko informazioa, hori aurrera eramateko lan-planarekin.

d) Kreditazioa eta titulazioa

- ◆ DBHko etapa egiten duten ikasle guztiek, etapa hori amaitzean egindako mailen eta arlo eta ikasgai desberdinetan lortutako kalifikazioen kreditazioa izango dute.
- ◆ Bigarren zikloko arlo eta hautazko ikasgai guztien ebaluazioan emaitza positiboa lortu duten ikasle guztiei Bigarren Hezkuntzako Graduatua titulua emateko proposamena egingo dugu.
- ◆ Bigarren zikloko ordu guztien % 10era iristen ez diren arlo edo ikasgaien ebaluazioan emaitza negatiboa lortu duten ikasleei titulua emateko proposamena egiteko irizpideak ondoko hauek izango dira:
 - ◆ Irakasle-taldearen bi herenez osatutako gehiengoaren erabakia.
 - ◆ Ikasleak Batxilergoko edo Prestakuntza Zikloren bateko modalitateetako ikasgai edo moduluak egin ahal izateko gaitasunak garatu dituela egiaztatzea.
 - ◆ Ikasleak 2. Zikloko lehen kurtsuan balorazio negatiboa jaso eta, ondoren, 2. Kurtsoko arlo edo ikasgai jakin bateko saio guztietan arlo edo ikasgai horri dagozkion helburuak ez lortu izana.
 - Ikasleek ikasketekin jarraitzeko duten interesa eta motibazioa.
 - Ikasleak ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea.
 - Ikasleak titulazioa lortzeko ahalegin handia egitea.
- ◆ Aparteko proposamen hau irakasle-taldearen hiru herenek onartutako txosten batekin batera egingo da eta txosten horretan ikasleak Batxilergoko edo Lanbide Heziketako modalitatearen batean ikasketak egiteko aukera duela adieraziko da.

8.- HEZKUNTZA-ORIENTABIDEA ETA TUTOREEN LANA

8. 1. Alderdi orokorrak

- a) Esanahia eta helburua
- b) Antolaketa eta funtzioak

8.2. Hezkuntza Orientabiderako Plana: jarduketa-eremuak

8.2 .1. Tutoretza

- a) Esanahia eta xedea
- b) Helburuak
- c) Antolaketa
- d) Programak
- e) Lan-proposamena

8.2.2. Orientatzailearen berariazko esku-hartzeak:

- a) Pertsonen dagokienez, bakarkako eremuan
- b) Ikastetxeari eta/edo beste erakunde eta instituzio batzuei dagokienez.

8.1. ALDERDI OROKORRAK

a) Esanahia eta xedea

Hezkuntza Orientabidea, talde zehatz bakoitzaren eskolako zereginen esparruan, ikasle bakoitzari bere gaitasun eta aukera akademikoak eta profesionalak aurkitzen eta garatzen laguntzeko eta bere errealizazio pertsonala eta soziala ekarriko duten erabaki duin eta eraginkorrak bere kabuz hartzen laguntzeko egiten den prozesua da.

Gure ikastetxean garatu nahi dugun Hezkuntza Orientabidea ondoko printzipioetan oinarritzen da:

- Prebentziozkoak: ikaskuntzak oztopa ditzaketen zirkunstantziei edo egoerei aurreratzeko.
- Garapen integralari dagozkionak: gaitasun guztien garapen harmonikoa errazten eta bultzatzen saiatuz.
- Gizarteko esku-hartzeari dagokiona: ikaskuntza garatzen den inguru material eta humanoa kontuan hartuz eta horretan eraginez (familia, ikastetxea, hurbileko testuinguru soziala...)
- Ikaskuntzak eraikitzeari buruzkoak: dakitenaren eta ezagutzen ez dutenaren artean lotura garrantzitsuak ezarriz, eduki berriek zentzua har dezaten eta beren kultur ezagutzen eta garapen pertsonalaren zati izan daitezen.

Beraz, Hezkuntza Orientabidea:

- Irakasle guztiei dagokie, Ikastetxearen Orientabide Planean ezarritako erantzukizunekin.
- Orientabidearen arduradun nagusia talde bakoitzaren tutorea da eta aditu baten laguntza izango du.
- Hezkuntza-prozesu arruntean integratzen da eta, beraz, curriculum guztiak ikuspegi hori izango du, arloen garapenean eskaintzen diren aukerak aprobetxatuz ikasleei beren proiektu pertsonalari buruz eta beren etorkizun akademiko eta profesionalari buruz erabaki behar dutenean laguntzeko.
- Ekintza orientatzailearen helburua ikaslea da, pertsona gisa eta talde gisa hartuz, eta ikaslearen gurasoak eta ikaslearen prestakuntzan parte hartzen duten irakasleak ere izango dira helburu.

Eta honetako zeregin orientatzailearen erreferentzia ondorengo helburuak izango dira:

- Ikasleen garapen pertsonal, autoestimu, autonomia pertsonal, jokabide etiko eta heldutasun afektiboari laguntzea.
- Ikasle guztien gaitasunen, jokaeren, ezagutzen eta esperientzien garapena erraztea, beren etorkizun akademiko-profesionalari buruzko erabaki autonomoak har ditzaten.
- Ikasle guztien integrazioa eta parte-hartzea sustatzea ikastetxean.
- Hezkuntza-elkarteko kideen eta horren eta bere inguruaren arteko elkarreagin egokia sustatzea.
- Guztien arteko hezkuntza-proiektuak bultzatzea, horietan praktika aztertuz eta horri buruzko hausnarketa eginez, proposamen curricularretan koherentzia bilatuz eta erabakiak hartzeko adostasuna bilatuz.
- Aniztasuna kontuan izango duten eta horri erantzuteko gaitasuna izango duten irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak sustatzea.

b) Antolaketa eta funtzioak

- ◆ Irakaskuntza-funtzioaren zati den funtzio orientatzailea **etapa osoan** garatuko da eta hezkuntza-talde guztiaren lana izango da: tutoreena, arlo edo ikasgai desberdinen irakasleena, laguntzaileena eta orientatzaileena. Zeregin horretan:
 - Ikasketa Burutzak Orientabide Plana aurrera eramateko baldintzak gainbegiratzeko, zuzentzen eta errazten ditu.
 - Orientabide-zerbitzuak lantzen eta proposatzen du Orientabide Plana eta gero irakasleen Klaustroak onartu behar du.
 - Orientatzailea laguntza eta aholkua emateaz, koordinatzeaz, eta Orientabide Plana diseinatzeaz eta garatzeaz arduratzen da.
 - Tutoreak bere talde edo klasean garatu beharreko Hezkuntza Orientabidea koordinatzen du eta lanketan parte hartzen du.
 - Irakasleek bakoitzak ematen duen arlo edo ikasgaiaren lanketaren eta/edo proposamen curricularren bitartez laguntzen dute Hezkuntza Orientabidearen garapenean.

Orientabide-zerbitzua ondorengo pertsona hauek osatuko dute:

- Orientatzaileak.
- DBHko koordinatzaileak.
- DBHko lehenengo zikloko tutore batek gutxienez.
- DBHko bigarren zikloko tutore batek gutxienez.

8.2. HEZKUNTZA ORIENTABIDERAKO PLANA: JARDUKETA-EREMUAK

Gure ikastetxeko Hezkuntza Orientabiderako Planean etapan garatuko diren ekintza orientatzaileak biltzen eta zehazten dira. Plan horretan ondoko alderdiei buruzko zehaztapenak ematen dira:

- Tutoreen lana.
- Orientatzailearen esku-hartze bereziak:
 - Aniztasunaren trataerari eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretari dagokienez.
 - Ikastetxeari dagokionez.

Hezkuntza Orientabiderako Planaren aurretiazko diseinua ikastetxearen Orientabide-zerbitzuaren edo Orientabide Sailaren ardura izango da eta klaustroak onartu baino lehen berorren garapenean inplikaturako irakasleek eztabaidatuko dute.

8.2.1. TUTORETZA

a) Esanahia eta xedea

Tutoreen lana, ikasleak inguruan duen egoera pertsonal, familiar eta sozialean oinarrituta, ikasle bakoitzaren garapena, orientabidea eta ikaskuntza bultzatu nahi duen irakaskuntza-funtzioaren zatia da, modu integralean garatu dadin.

b) Helburuak

Gure ikastetxean, derrigorrezko etapa honetako tutoretzak bere praktikaren helburu orientatzaile gisa honako hauek izango ditu:

- Ikasle bakoitzaren hezkuntza-prozesuen arrakasta sustatzea, ebaluazioen, eskolan duen jokabidearen eta taldean duen integrazioaren jarraipena eginez:
 - irakasleen informazioetan oinarrituta;
 - aldian-aldian eta arazoren bat sortzen denean elkarriketa pertsonalak eginez ikaslearekin eta horren gurasoekin;
 - taldearekin batera egindako jarduketan bidez.
- Indartzeko edo curriculum egokitzeko neurriak aplikatzeko koordinazioa eta jarraipena bermatzea.
- Balioak, jokoak eta jokabide autonomoak, kritikoak eta elkarriketazkoak garatzeko prozesuak sustatzea.
- Ikasleek ondo pentsatu eta arrazoitutako erabakiak hartzen eta erabaki horien arabera jokatzeko ahalegina egitea.
- Ikasle bakoitzak adierazten dituen gaitasun, behar eta interesen arabera orientatzea profesionalki.
- Ikaskuntzako zailtasunak aurreikustea eta, ahal den neurrian, porrotak edo uzteak saihestea.
- Hezkuntza elkarteko kideen arteko (irakasleak, ikasleak, gurasoak etab.) elkarreragin egokia sustatzea eta horien arteko komunikazioan sor daitezkeen zailtasunen aurrean irtenbideak bilatzea.
- Bizikidetzaren demokratikorako arauenganako errespetua sustatzea.
- Ikaslearen autoestimua, gizarteko trebetasunak, adierazpideak... garatzea modu pertsonalean.

c) Tutorearen funtzioak.

Ondorengo funtzioak dituzte:

- ◆ Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan ikaslearen irakasle-taldea koordinatzea programazioari eta ebaluazioari dagokionez nahiz egoera zehatz eta orokorren azterketari dagokionez.
- ◆ Ikasleak alderdi pertsonal, akademiko eta profesionalean orientatzea, hala dagokionean, ikastetxeko eta eskualdeko orientabide-zerbitzuen laguntzarekin.
- ◆ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapa amaitzean, behin irakasle-taldearen informazioa bildu ondoren, orientatzeko aholkua idaztea.
- ◆ Eskolako jardueren berri ematea ikasleei nahiz horien gurasoei, horiek irakasleengana edo ikastetxeko gobernu-organoetara jotzeko eskubidea izango dutelarik.

d) Antolaketa

Langileak: arduradunak eta hartzaileak

- ◆ Talde edo klase bakoitzeko irakasle-taldeko irakasle bakar bat izango da ziklo osorako tutorea, tutoretzaren zeregin berezien batasun handiagoa, koherentzia eta sistematikotasuna lortzeko asmoz.
- ◆ Talde bakoitzaren tutoreen izendapena ikastetxeko zuzendaritzak egingo du Ikasketa Burutzak hala eskatzen dionean, eta arlo komunitario irakasle bat izateko ahalegina egingo da.
- ◆ Ikasketa Burutza arduratuko da tutoreen lana zuzentzeaz, ikastetxeko orientabide-zerbitzuaren arduradunaren laguntzarekin.
- Tutoretza lankidetzan oinarrituta planteatzea eta garatzea egoki iruditzen zaigu. Helburu horrekin:
 - Ikasketa Buruak, zikloko edo etapako tutoreek eskatuta, zikloko edo etapako tutoreen ordezkari bat izendatuko du.
 - Orientatzailea zikloko edo etapako tutoreen ordezkariekin bilduko da aldian-aldian edo, bestela, maila edo ziklo bateko tutoreekin, haien tutoretza-lanean laguntzeko, baliabideak eskaintzeko eta sortu diren arazoak aztertzeko.

Tutoretzari eskainitako denbora

- Ikasleei zuzendutako tutoretzari honako denbora eskainiko zaio:
 - Astean saio bat taldearekin/klasearekin.
- Ziklo edo maila bakoitzeko tutoreek hilabete/hiruhileko bakoitzean _____ bilera egingo dituzte ikastetxeko orientabide-zerbitzuaren arduradunarekin, tutoretzaren prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa egiteko.
- Ebaluazioko bilkuretan talde bakoitzeko irakasleek tutoreari taldearen eta ikasleen egoeraren berri emango diote eta antzemandako arazoak eta beharrak aztertuko dituzte.
- Ikasleen familiarekin izan beharreko komunikazioa haientzako ordutegi egokian ezartzeko ahalegina egingo da.

e) Programak

Programa diogunean ikasleen gurasoekin, ikasleekin, irakasleekin edo beste pertsona batzuekin garatzen diren jarduera-multzoaren bidez planifikatutako ekintza esan nahi dugu; prebentziozkoak edo garapenezkoak izan daitezke eta, behar eta/edo interesen azterketan oinarrituta, helburu jakin batzuk lortu nahi ditu.

Urteko planean ikasturtean zehar aurrera eramango diren programak eta horien unek eta oinarritzko garapenak bilduko dira.

Gure ikastetxean tutoretzari dagozkion ondorengo programak garatuko dira:

Programak	1. zikloa	2. zikloa
<input type="checkbox"/> <i>Etapan/zikloan/mailan egiten den harrera.</i>	X	
<input type="checkbox"/> <i>Taldean indibidualtasun guztiak ezagutzea eta horien elkarreragina.</i>	X	
<input type="checkbox"/> <i>Nortasun pertsonalen eta gaitasun sozialen garapena.</i>	X	X
<input type="checkbox"/> <i>Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuaren jarraipena</i>	X	X
<input type="checkbox"/> <i>Ikaskuntzarako ohiturak eta estrategiak</i>	X	X
<input type="checkbox"/> <i>Gurasoekiko harremana</i>	X	X
<input type="checkbox"/> <i>Ikastetxeko bizimoduan parte-hartzea</i>		X
<input type="checkbox"/> <i>Orientabide akademiko-profesionala eta batzorde orientatzailea.</i>		X
<input type="checkbox"/> <i>Bizitza aktibora igarotzea eta gizarteratzea eta laneratzea</i>		X

8.2.2. ORIENTATZAILEAREN BERARIAZKO ESKU-HARTZEAK

Ikastetxeko orientatzaileak, ikastetxean gai psikopedagogikoak aztertzen dituen pertsona dela kontuan izanik, orain arte adierazitako jarduketak aurrera eramateko laguntza eta aholkua eskaintzeaz eta lan horren koordinazioa eta dinamizazioa egiteaz gain, ondorengo esku-hartze bereziak garatuko ditu:

a) Aniztasunaren trataerari eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretari dagokienez.

Orientatzaileak ondorengo jarduketak egingo ditu gutxienez:

- Ebaluazio psikopedagogikoa:
 - Beren errendimenduaren, jokaeraren, zailtasunen eta abarren arabera, egoki deritzen ikasleei.
 - Hezkuntza-premia bereziak dituztela adierazten duten ikasleen diagnostikoa.
- Arreta indibidualizatua zenbait ikasleri:
 - Jokaerazko, errendimenduzko eta antzeko arazoak dituzten ikasleen arreta, tutoreak edo interesatuak hala eskatuta.
 - Orientabide indibidualizatua, tutoreak edo interesatuak hala eskatuta.
- Arreta indibidualizatua ikasle jakin batzuen gurasoei.
- Eskatzen duten irakasleei aholkua eskaintzea.

b) Ikastetxeari dagokionez

Orientatzaileak, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, ondoko jarduerak garatuko ditu ikastetxean:

- Berari dagozkion gaiei buruzko prestakuntza eta/edo aholkularitza:
 - tutoreen taldeei
 - irakasleen taldeei
- Lanketarako eta/edo berrikuspenarako laguntza, berari dagozkion alderdietan:
 - Hezkuntza Proiektua / Curriculum Proiektua / Antolamendu eta Jarduera Araudia
 - Orientatzeko eta hezkuntza-sustapenerako plana.
 - Programazio didaktikoen alderdi batzuk.
- Ikastetxean edo ikastetxeen artean lan-taldeen parte-hartzea eta/edo koordinazioa, hezkuntza-zerbitzuena, gizarte- eta osasun-zerbitzuena...
 - Eskolatzeko osagarria

- Mintegiak (orientabidea, curriculum desberdinak eratzea...).
- Prestakuntza-planak.
- Irakaskuntzakoak:
 - Curriculum desberdinak eratzekoan.
 - DBHko aukerako ikasgaietan.
 - Batxilergoko hautazko ikasgaietan.

9.- ZEHAR-LERROAK CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ORIENTABIDEAK

Zehar-lerroak, berez duten zentzu eta kontzepzioarengatik, ez dira beste arlo osagarri batzuen moduan edo arlo jakin batzuetako alderdi zehatz gisa ulertu behar, baizik eta arlo eta ikasgai guztien curriculumean etengabe ageri diren elementuak direla kontuan izan behar da.

Ikastetxea, hezkuntza-eragile eta gizarte-eragile den neurrian, toki egokia da gizarteko arazo jakin batzuei eta horiekin lotutako balioei buruz hausnarketa egiteko. Hausnarketa hori modu sistematikoan eta jarraituan landu behar da, etapa honetako ekipo guztien arteko lana izan behar du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Garapenari buruzko Dekretuak zehar-lerro batzuk proposatzen ditu, beste batzuei bidea itxi gabe betiere. Gure ikastetxean ikusitako beharretan oinarrituta, ondoko zehar-lerroei eman diegu lehentasuna:

- Giza eskubideen hezkuntza eta bake-hezkuntza
- Osasunerako hezkuntza
- Garapenerako hezkuntza
- Hezkidetzeta: sexuen berdintasunerako hezkuntza
- Interkulturalismoaren aldeko hezkuntza
- Ingurugiro-hezkuntza
- Kontsumo-hezkuntza
- Bide-hezkuntza
- Komunikabideen hezkuntza

Irakasle-talde gisa, zehar-lerroekin honako helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Jarreraren prestakuntza modu sistematikoan lantzea eta horien oinarri diren balioak argitzea.
- Jokaerari dagokion prestakuntza beren arazoaren kontzientziazioan eta beren bizipenetan oinarritzea, heldutasun-maila handiagoa lor dezaten eta nolabaiteko konpromisoa har dezaten.
- Kontzientziazio horrek hezkuntza-elkarte gisa eskolako testuinguruan lantzeran eraman gaitzan lan egitea.
- Ikastetxearen antolamenduak eta funtzionamenduak garatu nahi diren jokaera eta balioekiko koherentzia gorde dezaten saiatzea.
- Ikaskuntza horiek proselitismoa egiteko ez erabiltzea eta aldaketa pertsonalak oztopatuko dituzten eta informazioaren metaketa hutsa ekarriko duten ikuspegi abstraktuetatik urruntzea.
- Eduki horiek hiru mailatan lantzea: maila teorikoan kontzeptuzko eta prozedurazko elementuen ezagutza planteatuko da; maila pertsonalean egoera desberdinekin lotutako portaerak eta jokaera pertsonalak kritikoki aztertuko ditugu; eta maila sozialean planteatutako gaietan gure ekintzen balioak, konpromisoak eta ondorioak hartuko dira kontuan.
- Lan-metodo eta talde-dinamika aktiboak eta parte-hartzaileak erabiltzea, ikaskuntzako eta garapen pertsonalerako mekanismoak martxan jarriko dituztenak.
- Zehar lerroak curriculoko arlo guztietan lantzea, koherentzia aukeratuz dagozkien eduki kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Zehar-lerroen lanketaren bidez gure ikasleak honako hauek egiteko gai izatea nahi dugu:

- Gaur egungo arazoak aztertzeke, arloetako ezagutzak erabiliz aurrean dituzten pertsona eta gizarte-taldearen faktoreak eta jarrerak eta horiek oinarritzen diren balioak

ezagutzeko, hala, arazo horiez eta izan ditzaketen konponbideez iritzi kritikoa emateko.

- Eskolako lana eta arlo desberdinetako ikaskuntzak beren burua ezagutzeko baliabide gisa ulertzeko, garapen pertsonala hausnarketaren bidez eta errealitate berrietara irekiz sakontzen dela kontuan izanik.
- Taldeen asmoak ezagutzeko, gizakiok horiek aurrera eramateko dugun arduraz eta gaitasunaz ohartuz eta aukera pertsonalak eginez eta elkertasunezko jarrerak hartuz.
- Integrazioaren aldeko eta diskriminazioaren kontrako gizartea sortzeko ahalegina egiten duten taldeetako parte-hartzea baloratzeko.
- Norberaren, gizartearen eta ingurugiroaren desoreka sortzen duten egoerak identifikatzeko eta baita pertsonen eta herrien arteko eta herrien eta naturaren arteko harremanetan aurrera egiteko aldaketak ere, gero eta orekatuagoak eta osasuntsuagoak izan daitezzen eta errespetuan eta tolerantzian oinarri daitezzen.
- Pertsonen eta gizartearen iritzia sortzeko eta iritzi horretan eragina izateko erabilitako moduak eta baliabideak ezagutzeko, komunikabideen eta kontsumo-ondasunen erabilera kritikoa eta arduratsua bilatuz.

Gure irakasle-taldeak zehar-lerroak lantzeko modurik egokiena honako hauen bidez egitea dela uste du:

- Arlo eta ikasgaien bidez, zehar-lerroek eskaintzen dituzten balio, jarrera eta edukiekin betez eta aberastuz helburu eta eduki zehatzak.
- Diziplinarteko planteamenduen bidez, zehar-lerroek arlo desberdinetako edukiak lotuko dituztelarik, ikuspegi osatuagoa emanez hilero edo hiru hilero egindako programazioaren bitartez.
- Planteamendu globalizatzaileen bidez, aste betez edo hamabost egunez gai bat curriculumaren ardatz bihurtuz.
- Aukerakotasunaren alorraren bidez, ikasleek zehar-lerro batekin edo gehiagorekin lotutako ikasgai desberdinen artean aukeratu ahal izango dutelarik.
- Gai monografiko batzuen bidez, arlo eta programaren une desberdinen artean banatuz landu nahi diren alderdiak.
- Tutoretzaren bidez, garapen pertsonala gizarteko eta komunikatzeko trebetasunekin eta autoestimuaekin, adierazpenarekin, erabakiak hartzearekin, gatazken ebazpenarekin... erlazionatutako gaien bitartez zainduz.

Bide horiek ez dira baztergarriak elkarren artean, aitzitik, inplikaturako une eta arloen arabera osatu egiten dira, horiek garatzeko modua finkatuz.

Zehar lerro bakoitzaren garapena 3. ERANSKINEAN aurkezten da.

10.- CURRICULUM PROIEKTUAREN ETA IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOA

- 10. Zer ebaluatu behar dugu?
- 10.2. ICP eta irakaskuntza ebaluatzekeo prozedura

10.1. ZER EBALUATU BEHAR DUGU?

Ikastetxe honetako klaustro garen heinean, Curriculum Proiektua talde nahiz pertsona gisa izan dugun esperientziatik emaitza positiboak bilduz eta jarduketarako konpromisoak hartuz –praktikan jarriko ditugunak– osatu dugu.

- ◆ Ebaluazioaren helburuen artean honako hauek ditugu: erabilitako metodo eta prozeduren balorazioa, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozedurarena eta Curriculum Proiektuarena, ikastetxearen barneko nahiz kanpoko ebaluazioaren esparruan gertatuko direnak.

Erabilitako metodo eta prozeduren balorazioari dagokionez nahiz irakaskuntza eta ikaskuntzako prozeduran, honako alderdiak izango ditugu kontuan:

- Erabilitako irakaskuntza eta ikaskuntzako jarduerak.
- Ikasleen ikaskuntzaren emaitzak.
- Ikasleek ikasgelan, jolastokian, korridoreetan... erakutsitako jokabideen edo adierazitako iritzien behaketa.
- Familiei edo ikasleei egindako galdeketa edo elkarrizketetan lortutako iritziak.
- Ikasgelan erabiltzeko materialen, testu-liburuen, unitate didaktikoen... azterketa.
- Ikasgelako irakaskuntzaren azterketa, grabazioen eta behaketa zuzenaren bidez.
- Ikasgelako esku-hartzea hobetzeko prestakuntza-prozesuen beharra.
-

Curriculum Proiektuaren beraren ebaluazioari dagokionez, ondorengoak aztertuko ditugu:

- Hartutako erabakiak praktikan jartzen ditugun ala ez.
- Erabaki batzuek garapen eta zehaztapen handiagoa behar duten praktikan jartzeko.
- Hartutako irizpideekin bat etorriko den proposamen didaktikoa formulatu behar den eta antzemandako arazo edo beharrei erantzuteko baliozkoa eta bideragarria den.
- Hasitako lerroren baten aurrera egiteko edo aldatzeko prestakuntza-prozesuak behar ditugun.
- Aurreikusi gabeko arazoak edo beharrak, kontuan hartu beharrekoak, sortu diren.
- Hartutako erabakiak proposatutako helburuak lortzeko positiboak diren.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak proiektu honetan proposatutako irizpideekin bat etorri erabiltzen ditugun.

10.2. ICP ETA IRAKASKUNTZA EBALUATZEKO PROZEDURA

Ebaluazio-prozesu hauen antolaketa honako hauei dagokie:

- Batzorde pedagogikoak (edo, halakorik ez balego, zuzendaritza-taldeak) ikasturte bakoitzean aztertu beharreko gaiak proposatuko ditu eta Ikastetxearen Urteko Planean bilduko dira.
- Erabilitako metodoen eta prozeduren ebaluazioarekin eta irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuarekin lotutako alderdiak ebaluazio-bilkuretan aztertuko dira.
- Ikastetxearen funtzionamenduaren balorazioarekin erlazioatutako alderdiak Ikastetxearen Urteko Planean ezarritako hobekuntza-batzordeetan aztertuko dira.
- Curriculum Proiektuaren beraren ebaluazioarekin lotutako alderdiak Ikastetxearen Urteko Planean zeregin horretarako ezarritako zikloko edo mintegiko bileretan aztertuko dira.

-(r)ekin erlazionatutako alderdiak Ikastetxearen Urteko Planean zeregin horretarako ezarritako(e)tan aztertuko dira.
- Talde horiek planteatuko dituzte beharrak eta hobetzeko proposamenak.
- Batzorde Pedagogikoak, taldeen ekarpenekin, honako gaiei buruzko proposamenak aztertu eta landuko ditu:
 - berriztapen-proiektuak
 - prestakuntza-proiektuak
 - aldaketa-proposamenak.
- Klaustroak onartutako proposamen guztiak Ikastetxearen Urteko Planerako proposatuko dira.
-

Ebaluazio hauek honela egingo ditugu:

- Ikasurte bakoitzaren amaieran, lortutako emaitzak ikusi ondoren, irakaskuntzaren azterketa egingo da eta Urteko Memorian adieraziko dira emaitzak.
- Ikasurtean zehar, ebaluazio-bilkura bakoitzaren ondoren, irakaskuntzaren azterketa egingo da eta ikasurtearen amaieran Urteko Memorian adieraziko dira emaitzak.
- Ikasurtean behin gutxienez, ikastetxearen funtzionamendua aztertuko da, hurrengo ikasurterako aldaketak planifikatu ahal izateko.
- Ikasurtean zehar ikastetxearen funtzionamendua aztertuko da, klaustro monografiko batean aztertuko diren ideiak bilduz eta, halaber, klaustro horrek hurrengo ikasurterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu.
- Ikasurte bakoitzean ICPekin lotutako alderdiren bat aztertuko da eta aurretik Urteko Planean plangintza egingo da.
- Bost urtetik behin Ikastetxearen Curriculum Proiektua eguneratuko da eta hezkuntzako gure esku-hartzea ikastetxeko ikasleen errealitate aldakorrera egokitzeko egin behar diren aldaketak proposatuko dira.
-

III. ERANSKINAK

- 1. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak (IKT)**
- 2. Curriculum ezberdinak eratzeko Programa**
- 3. Zehar lerroak**

1. ERANSKINA: INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)

IKASKUNTZAKO EDUKIAK	Aukerako arloak eta ikasgaiak		
	1. ZIKLOA	3. MAILA	4. MAILA
<p>INFORMATIKAREN ERABILERAREKIN LOTUTAKO TEKNOLOGIA.</p> <p>Oinarrizko edukiak</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ordenagailua informazioarekin eragiketak egiteko "erreminten/programen kutxa" gisa. Software-programak eta informazioaren arteko bereizketa (dokumentuak, grafiko libreak, irudiak, soinua, bideoa, datu-basetako fitxak,...) <input type="checkbox"/> Inguru eragilearen oinarrizko erabilera (windows 3.1, 95, 98): <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Mahaia. Menu eta ikonoen funtzioa. Mahaiaren antolamendua. <input type="checkbox"/> Leihoen kontzeptua eta leihoetan exekutatzeko diren programak-aplikazioak. Leiho bat baino gehiago aldi berean erabiltzea. Leihoak mugitzea eta antolatzea. <input type="checkbox"/> Programen antolamendua eta diskoen informazioa: direktorio-karpetak eta fitxategi-artxiboak. Karpetak eta fitxategiak kokatzeko eta antolatzeko oinarrizko erabilerak eta eragiketak (Artxiboaren administratzailea, Nire Pc-a, windows esploradorea) <input type="checkbox"/> Arratoiaren eta teklatuaren erabilera egokia. <input type="checkbox"/> Ordenagailuaren osagai fisikoak zuzen erabiltzeko oinarrizko eragiketak eta arauak: kanpoko oinarrizko konexioak, inprimagailuaren oinarrizko mantenimendua, pantailaren distira eta kontrastea, ordenagailuarekin lan egiteko jarrera egokia, lanpostuaren ergonomia, arratoiaren garbiketa etab. 	<p>Oinarrizko Teknologia</p> <p>○</p> <p>Aukerakoa. Oinarrizko Informatika</p> <p>○</p> <p>Libreki erabiltzeko orduak</p>		
<p>Sakontzeko edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Ordenagailu pertsonalaren osagai funtzionalak, hardwarea. Funtzionamendurako eskemak. Softwarearen eta hardwarearen arteko erlazioa. <input type="checkbox"/> Ordenagailu pertsonalaren prestazioak eta gaitasuna definitzen duten ezaugarriak. <input type="checkbox"/> Sistema eragilearen instalazioa. <input type="checkbox"/> Ereku logikoa mantentzeko erabilerak eta eragiketak: mahaiaren konfigurazioa eta programetara sartzeko bideak. Sistemaren oinarrizko erremintak. <input type="checkbox"/> Periferikoen instalazioa eta konfigurazioa. <input type="checkbox"/> Aplikazio informatikoak: aplikazio-motak, aplikazioen instalazioak. <input type="checkbox"/> Erabilera orokorreko aplikazioen aukerak: testu-prozesadoreak, aurkezpenak egiteko elementuak, datu-baseen kudeatzaileak, kalkulu-orriak, grafiko libreen eta irudien editoreak etab. <input type="checkbox"/> Sare telematikoak erabiltzailearen ikuspuntutik. Interneteko azpiegitura eta zerbitzuak. <input type="checkbox"/> Zerbitzu telematikoetara sartzeko instalazioa eta konfigurazioa. <input type="checkbox"/> Programa eta programazioaren kontzeptua. Programatzen ikastea hezkuntza-esparrurako bereziki diseinatutako hizkuntza erabiliz. 	<p>Aukerakoa. Oinarrizko Informatika</p>	<p>Aukerakoa. Oinarrizko Informatika</p>	<p>Aukerakoa. Oinarrizko Informatika</p>
<p>DOKUMENTUAK EUSKARRI ELEKTRONIKOAN PRODUZITZEA</p> <p>Hitz eta ikono bidezko dokumentua</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Dokumentu bateko testuaren, ikonoen edo grafikoaren adierazkortasuna. <input type="checkbox"/> Hitz eta ikono bidezko dokumentuen eraketa. Formatuko elementuen funtzioak eraketan: marjinak, goi-buruak eta oin-oharrak, paragrafoa, koskak, testuen iturrien estiloa eta neurria, binetak, kolorea etab. <input type="checkbox"/> Testu-prozesadorea. Oinarrizko prestazioak eta dokumentuak prestatzeko nola erabiltzen diren. 	<p>Hizkuntz arloak</p>		
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Aurkezpenak egiteko programak. Oinarrizko ezaugarriak eta aurkezpenen dokumentuak egiteko nola erabiltzen den. 		<p>Hizkuntzak</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Grafiko libreak, marrazki artistikoa eta irudiak editatzeko aplikazio informatikoak. 			<p>Plastika eta Ikus Hezkuntza</p>
<p>Soinua</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Soinuaren ezaugarri adierazkorak. <input type="checkbox"/> Baliabide nagusiak: ahoko hizkuntza, musika, soinu-efektuak, isiltasuna. 	<p>Musika</p>		

<input type="checkbox"/> Soinua jasotzeko, grabatzeko eta maneiatzeko gailuak (analogikoak, digitalak).		Musika	
<input type="checkbox"/> Soinua editatzeko ekipoak eta aplikazio informatikoak (analogikoak eta digitalak).			Musika
Irudi finkoa: <input type="checkbox"/> Irudiaren oinarritzko elementuak <input type="checkbox"/> Irudi finkoaren gramatika <input type="checkbox"/> Irudi finkoaren irakurketa <input type="checkbox"/> Irudi finkoa jasotzeko gailuak <input type="checkbox"/> Irudi finkoa editatzeko tresna eta aplikazio informatikoak	Plastika eta Ikus Hezkuntza		
Irudia mugimenduan: <input type="checkbox"/> Mugitzen den irudiaren elementuak <input type="checkbox"/> Mugitzen den irudiaren gramatika <input type="checkbox"/> Mugitzen den irudiaren irakurketa <input type="checkbox"/> Mugitzen den irudia jasotzeko gailuak, erremintak eta formatuak <input type="checkbox"/> Mugitzen den irudia editatzeko ekipo eta aplikazio informatikoak.		Plastika eta Ikus Hezkuntza	
Ikus-entzunezko hizkuntza eta konposizioa <input type="checkbox"/> Ikus-entzunezko hizkuntzaren gramatika <input type="checkbox"/> Ikus-entzunezko dokumentuen ezaugarriak <input type="checkbox"/> Ikus-entzunezko hizkuntzan esanahiak sortzeko moduak <input type="checkbox"/> Ikus-entzunezko dokumentuak sortzea: gidoiak egitea, plangintza, produkzioa, edizioa <input type="checkbox"/> Zinea eta telebista ikus-entzunezko hizkuntza erabiltzen duten gizarteko fenomeno gisa.		Aukerakoa. Ikus-entzunezko Komunikazioa	Aukerakoa. Ikus-entzunezko Komunikazioa
Multimediako dokumentu eta aplikazioak: <input type="checkbox"/> Multimedia kontzeptua eta adiera <input type="checkbox"/> Informazioa aurkezteko eta komunikatzeko multimediako hizkuntza <input type="checkbox"/> Multimediako teknologiak. Definizioa eta sailkapena <input type="checkbox"/> Multimediako dokumentua osatzen duten elementuak <input type="checkbox"/> Multimediako dokumentuak sortzen hastea. Multimediako dokumentuak sortzeko aplikazio informatikoak <input type="checkbox"/> Multimediako dokumentuak aurkezteko euskarriak eta baliabide teknologikoak (CD-ROM, DVD, WEB ORRIAK,...)		Aukerakoa. Oinarritzko Informatika	Aukerakoa. Oinarritzko Informatika
ZENBAKIZKO INFORMAZIOAREN ETA INFORMAZIO Kuantitatiboaren antolaketa eta prozesaketa <input type="checkbox"/> Zenbakizko informazioa eta informazio kuantitatiboa aurkezteko, antolatzeko eta biltzeko moduak <input type="checkbox"/> Zenbakizko informazioa eta informazio kuantitatiboa prozesatzeko aplikazio informatikoak (kalkulu-orriak, testu-prozesadoreen kalkulatzeko erabilerak, grafiko estatistikoen sortzaileak, zenbakizko datu-baseak...)		Matematika	Matematika
INFORMAZIO ALFANUMERIKOA ETA DOKUMENTALA BILATZEA, ANTOLATZEA ETA PROZESATZEA <input type="checkbox"/> Informazioa euskarri elektronikoetan aurkezteko, antolatzeko eta biltzeko moduak. <input type="checkbox"/> Datu-baseen kudeatzaile erraz bat erabiltzen ikastea, eskolan eta etxean erabiltzeko.	Gizarte Zientziak		
<input type="checkbox"/> Datu-baseak erabiltzaileak erabiltzen dituen euskarrietan (CD-ROM, DVD...). Datu-base horiek kudeatzen dituzten aplikazio informatikoen azterketa eta erabilera. Informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko teknikak.		Gizarte Zientziak Natur Zientziak	Gizarte Zientziak Natur Zientziak
<input type="checkbox"/> Datu-baseak sare telematikoetan. WEB orria eta Interneteko beste informazio-zerbitzu batzuk. Informazioa bilatzeko eta eskuratzeko aplikazio informatikoen (nabigatzaileak) azterketa eta erabilera. Informazioa bilatzeko eta eskuratzeko teknikak.			Gizarte Zientziak
BALIABIDE ETA ZERBITZU TELEMATIKOEN BITARTEZ INFORMAZIOA KOMUNIKATZEA ETA TRUKATZEA			
<input type="checkbox"/> Posta elektronikoak ematen dituen aukerak. Posta elektronikoa erabiltzeko eta kudeatzeko aplikazio informatikoak.		Hizkuntzak	

<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Eztabaida-taldeak eta berriak eta horiek ematen dituzten aukerak. <input type="checkbox"/> Elkarrizketak (Chats) eta horiek ematen dituzten aukerak. Elkarrizketak erabiltzeko eta kudeatzeko aplikazio informatikoak. <input type="checkbox"/> Bideokonferentzia eta horrek ematen dituen aukerak. Bideokonferentziak erabiltzeko eta kudeatzeko aplikazio informatikoak. 		Gizarte Zientziak	Gizarte Zientziak
<p>INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN GIZARTEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Bereizten edo definitzen duten alderdi zientifikoak eta garapen teknologikoak. 		Natur Zientziak	Natur Zientziak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Informazioaren zehaztasuna eta egiazkotasuna komunikabideetan eta informazio-iturrietan. Komunikabideetan erabilitako adierazpen-kode desberdinen analisia eta azterketa. <input type="checkbox"/> Informazioa emateko bideen eta komunikabideen boterea. Komunikabide horietako eragileen azterketa: nork egiten du, nork kontrolatzen du. Nork egiten eta kontrolatzen du informazioa emateko bideen eta komunikabideen industria. 		Hizkuntzak	Hizkuntzak
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin eta komunikabideekin lotutako industriak eta industria horiek gaur egungo ekonomi sistemekin zer-nolako lotura duten. <input type="checkbox"/> Gizartearen antolaketan eta eguneroko bizitzako ohitura eta jokabideetan duten eragina. 			Gizarte Zientziak

2. ERANSKINA: CURRICULUM EZBERDINAK ERATZEKO PROGRAMA

a) Organización del Programa base

La pretensión de este programa es que el alumnado del mismo:

- Obtenga el título Aumente su competencia curricular

La lengua de referencia de este programa es

- Euskera Castellano Ambas

La estructura de este programa es la siguiente:

Ámbito Lingüístico y Social

Áreas o materias	Horas 1 ^{er} curso	Horas 2 ^o curso	Lengua
<input type="checkbox"/> Lengua y Literatura Vasca	_____
<input type="checkbox"/> Lengua y Literatura Castellana	_____
<input type="checkbox"/> Ciencias Sociales, Geografía e Historia	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Tutoría	_____
Horas total ámbito	

Ámbito Científico-Tecnológico

Áreas o materias	Horas 1 ^{er} curso	Horas 2 ^o curso	Lengua
<input type="checkbox"/> Matemáticas	_____
<input type="checkbox"/> Ciencias de la Naturaleza	_____
<input type="checkbox"/> Tecnología	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Tutoría	_____
Horas total ámbito	

Áreas del currículo básico

Áreas o materias	En grupo ordinario	En condiciones específicas	Horas	Horas	Lengua
			1 ^{er} curso	2 ^o curso	
<input type="checkbox"/> Lengua Extranjera	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Educación Física	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Educación Plástica y Visual	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Educación Musical	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Religión/AEO	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Lengua y Literatura Vasca	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Lengua y Literatura Castellana	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Tecnología	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Opcional:.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Opcional:.....	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/> Tutoría			_____
Horas totales			

En las áreas y materias que se trabajen en grupo ordinario:

- Todos los alumnos y alumnas las cursarán siempre con el mismo grupo.
 Todos los alumnos y alumnas de diversificación curricular las cursarán juntos pero cada área con grupos diferentes.

- Cada alumno y alumna las trabajará siempre con el mismo grupo de referencia.
- Se tratará que cada alumno y alumna permanezca con su grupo de origen al cursar estas áreas.

Las áreas y materias que se trabajen en condiciones específicas:

- Las condiciones específicas se referirán a aspectos curriculares (adecuación de los contenidos,...).
- Las condiciones específicas se referirán a la organización del alumnado en el grupo.
 - Se establecerán grupos específicos con alumnado de diversificación curricular exclusivamente.
 - Se establecerán grupos específicos con alumnado de diversificación curricular y de los grupos ordinarios que lo precisen.
- Las condiciones específicas se referirán a la organización horaria.

b) Organización de la acción tutorial:

El tiempo de tutoría grupal será de..... a la semana

Este tiempo se dedicará fundamentalmente a:

- Desarrollo grupal.
- Personalización del proceso de enseñanza-aprendizaje.
- Orientación académico-profesional y toma de decisiones.
- Desarrollo de la autoestima.
- Habilidades sociales y manejo de situaciones problemáticas.
- Hábitos y estrategias de aprendizaje y estudio.
- Transición a la vida activa e inserción sociolaboral.

Cada alumno y alumna dispondrá de..... minutos semanales de tutoría individual.

Los contenidos de trabajo del tiempo de tutoría individual serán:

- Seguimiento individualizado del proceso de aprendizaje.
- Refuerzo de la autoestima.
- Desarrollo de procesos de autorregulación de aprendizaje.
- Resolución de conflictos relativos al proceso de aprendizaje.
- Trabajo sobre estrategias personales de aprendizaje.
- Control del proceso de trabajo del alumno o alumna.
- Establecimiento de acuerdos o contratos de trabajo con el alumnado y seguimiento de los mismos.

c) Organización de la evaluación

- Al inicio de un programa de diversificación curricular se realizará una evaluación inicial para concretar el plan individualizado de diversificación curricular.
- Al inicio de cada curso de diversificación curricular se realizará una evaluación inicial para concretar el plan individual.

La evaluación del alumnado de los grupos de diversificación curricular:

- ◆ Se realizará en sesiones propias de cada programa de diversificación curricular en la que participarán todos los profesores y profesoras que dan clase a alguno de los alumnos o alumnas.
- Cuando un alumno o alumna sólo curse un ámbito de diversificación curricular su evaluación se realizará en la sesión de evaluación de su grupo de referencia.

- Cuando un alumno o alumna sólo curse un ámbito de diversificación curricular su evaluación se realizará en la sesión de evaluación del grupo con el que curse dicho ámbito.
- El orientador u orientadora del centro siempre estará presente en estas sesiones de evaluación.

En las sesiones de evaluación de los alumnos y alumnas de diversificación curricular:

- ◆ Se analizarán al menos los mismos aspectos que en el resto de las sesiones de evaluación.
- ◆ Se tomarán como referencia los criterios de evaluación individualizados que se hayan previsto en el programa de cada alumno o alumna.
- ◆ La evaluación se expresará en términos cualitativos distintos de los utilizados para expresar el grado de consecución de los objetivos generales de la etapa.
- ◆ Se tendrá especial atención con los procesos de aprendizaje, las dificultades detectadas y las posibilidades de mejora.
- Se propondrán mejoras en el programa individualizado del alumno o alumna
- Se analizará la intervención tutorial.
- Se valorará la satisfacción del alumnado y del profesorado del grupo.

La información de las evaluaciones

- ◆ Se realizará después de cada sesión de evaluación.
- ◆ Se dará a los alumnos y alumnas y a sus padres, madres o representantes legales.
- ◆ Incluirá su progreso en relación con los objetivos individuales propuestos.
- ◆ Incluirá su situación con relación a la posibilidad de conseguir los objetivos generales de la etapa.
- Siempre se realizará por escrito por medio de informes diseñados por el equipo de diversificación curricular.
- En la tutoría individualizada anterior o posterior a la entrega de los informes escritos se comentará con cada alumno y alumna las reflexiones realizadas en la sesión de evaluación.
- Al menos una vez durante el curso se convocará a las familias o representantes legales para comentar el desarrollo del alumno o alumna.
- Al menos dos veces durante el curso se convocará a las familias o representantes legales para comentar el desarrollo del alumno o alumna.
- Después de cada sesión de evaluación se convocará a las familias o representantes legales para comentar el desarrollo del alumno o alumna.

d) Programa individualizado de diversificación curricular

El programa individualizado de diversificación curricular especificará los siguientes aspectos:

- ◆ Duración del programa.
- ◆ Ámbitos que va a cursar y precisiones sobre el modo de hacerlo.
- ◆ Condiciones en que va a cursar las áreas no incluidas en los ámbitos: en el grupo ordinario o en un grupo propio con modificaciones del currículo o sin ellas.
- ◆ Criterios de evaluación individualizados del progreso del alumno en relación con los objetivos igualmente individualizados que se le proponen.
- ◆ Condiciones para poder obtener el Título de Graduado en Educación Secundaria de acuerdo con los criterios de evaluación del programa base.
- ◆ Aspectos que deberán ser objeto de atención específica por parte del tutor o tutora
- ◆ Distribución horaria del trabajo del alumno o alumna.
- Aspectos metodológicos para trabajar con el alumno o alumna.

3. ERANSKINA: ZEHAR LERROAK

HEZKIDETZA

Hezkidetza bizimoduen, portaeren eta emakumeek historikoki garatu dituzten eta emakumeen kulturaren komunak diren balioen alderdi positiboak aurkitzea eta baloratzea da eta, bestalde, mutilek gizonen kulturaren alderdi positiboak, emakumeen eta gizonen betebeharrak eta eskubideak parekatzen dituztenak eta eguneroko bizitzako eta gizarteko lanen eta arduren banaketa orekatua egiten dutenak, ezagut ditzaten saiatzea.

Gure ikasleek honako hauek lortzea nahi dugu:

- Gizartean nahiz nortasunaren eraketan gizezkoen balioak emakumezkoen balioen gainean ezartzeko joeraren aurrean jarrera kritikoa adieraztea.
- Pertsona guztiak errespetatzea, generoari dagozkion rol estereotipatuak ezarri gabe emakume eta gizonentzat.
- Lan produktiboak nahiz ugaltzeari dagozkionak baloratzea, eremu publiko eta pribatuan guztion ardura sustatuz.
- Portaera eta jokaera pertsonal eta sozialei buruz hausnarketa kritikoa egitea, sozializazio-prozesu desberdinen ondorioz sortutako joera sexistak ikustaraziz eta horiek gainditzeko bideak proposatuz.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko eduki hauek landuko ditugu:

Arlo guztietan:

- Komunikatzeko modu guztietan nahiz testu eta informazioetan hizkuntza sexista baztertzeko, emakumea gizonaren pareko gisa ikusiz.
- Emakumeen esperientziak eta interesak kontuan izango dituzten arazoak eta adibideak erabiltzea, ikasgelako jardueretan neska-mutilen parte-hartze igualitarioa sustatuz.
- Iragarkietan islatutako balioen azterketa (gizartean nagusi diren balioen adierazle den heinean), eta ikasleek balio horiek nola ikusten dituzten aztertzea, banakakoen nahiz taldeen artean desberdintasunak dauden behatuz eta genero edo sexuaren estereotipoekin bat datozen egiaztatuz.

Hizkuntz arloetan:

- Adierazpide desberdinetan ageri den sexismoa berrikustea, ahozko komunikazioak eta ahozkoa ez denak emakumeen eta gizonen errealitatea adierazteko eta diskriminazio-forma guztiak gainditzeko.
- Emakumeek eginiko ekarpenak literaturaren historian, zehatz adieraziko dira.

Natur Zientzien arloan:

- Gaur egungo zientziaren androzentrismoaren ikuspegi kritikoa eta errealitatearen azterketa egiterakoan generoaren aldagaia kontuan izatea. Emakumearen presentzia zientzian.

Gizarte Zientzien arloan:

- Emakumeek BPGri begira, gizateriaren garapenean egin duten ekarpenaren ikerketa, zeregin produktiboetan nahiz ugaltze-prozesuan, eta azken mende honetako teoria feministen azterketa.
- Datu soziologiko eta ekonomikoetan generoa adierazle gisa erabiltzea, errealitatea aztertzekeo kategoria eta aztertu beharreko gaien ikuspegi teoriko gisa.

Plastika eta Ikus Hezkuntza eta Musika arloetan:

- Produkzio artistikoak eta musikalak egitea, estereotipo eta diskriminazio sexistak gainditzeko egokiak izango direnak. Emakumea artean, musikan ...

Gorputz Hezkuntza arloan:

- Mugimenduari dagozkion gaitasunak eta gaitasun fisikoak errespetatzea, ariketa eta jarduera desberdinenganako interes- eta gaitasun-aniztasunak dakarren aberastasuna baloratuz.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Hezkidetzara zuzendutako jardueretan jokaera pertsonalei buruzko hausnarketa sustatuko dugu, horien aldaketa eta hobekuntza bultzatzeko, balio pertsonalen eraikuntza ahalbidetuz eta autonomia pertsonala areagotuz.
- Ikasleekin erabili nahi ditugun materialak ilustratuko dituzten irudiek (gelako fitxak, testu-liburuak, irakurketak eta kontsultatzeko materialak) errealitatearen ikuspegi ez sexista eta rolen eta egin beharreko lanen diskriminaziorik gabeko parekotasuna isla dezaten ahaleginduko gara.
- Neska-mutilek nahi dituzten gauzei buruz eta egoki iruditzen ez zaizkienei buruz irizpide komunak bilatzeko lan-prozesuak prestatuko ditugu eta, bakarka nahiz taldean, erabaki horiek aurrera eramango dituzte.
- Pertsonen arteko harremanei arreta berezia eskainiko diegu, irakasle eta ikasleen artekoei, irakasleen artekoei eta parekoen artekoei, errespetuan eta beste pertsonaren balioen onspenean oinarritutako bizikidetzaren egokirako oinarritzko balioak sustatzeko.
- Lan-taldeak osatzerakoan talde mistoak egingo dira eta parekoen arteko lankidetzarako eta ikaskuntzarako egoerak sustatuko dira, egin behar den lanaren helburuen eta eztabaidatu behar diren egoeren arabera.
- Prestatuko ditugun dokumentu eta idatzi guztietan, barnekoetan nahiz kanpokoetan, gure hezkuntza-elkartean emakumeak eta gizonak daudela azalduko duten formula desberdinak bilatuko ditugu, behin eta berriro errepikatu behar ez direnak eta zuzenak.
- Gai hauei buruz familiarekin lan-programak antolatuko ditugu, generoen eraikuntza kulturala eta soziala hein handian familiaren esparruan garatzen baita.
- Ikastetxean espazioak erabiltzerakoan edo banatzerakoan diskriminaziorik ez egiten saiatuko gara.
- Ekintza positiborako neurriak hartuko ditugu gobernu organoetan eta ikastetxeko antolakuntza egituretako guztietan ari izateko.

GARAPENERAKO HEZKUNTZA

Eguneroko bizitzan beste kultura batzuetako pertsonekin bizi gara, gure aisialdiak, zientziak eta kulturak urrutiko tokien eragina jasaten dute, gure kontsumo-produktuak beste kontinente batzuetatik iristen dira, arazo ekologikoez planetako beste toki batzuetakoengan eragina dute eta alderantziz etab. Horrek guztiak erantzun kultural desberdinak eskatzen ditu eta portaera indibidual eta sozial berria eskatzen du, zehatzetik orokorrera joango den jokaera sustatuz.

Beste garapen-eredu baterako hezteak zera esan nahi du: beste kultura batzuk ulertzea, gizakien eta herrien beharrak ulertzea, beste pentsamolde eta portaera batzuk errespetatzea, arrazakeriaren kontra agertzea, diskriminazioaren eta indarkeriaren aurka agertzea, justizia eta elkartasuna defendatzea, pertsona guztien zerbitzura egongo diren zientzia eta teknologiarenganako interesa izatea eta instituzio eta egitura justuagoak izango dituen planeta bat bilatzea, bertako kideak eta taldeak zoriontsu egingo dituen planeta.

Gure ikasleek ondorengoak egiteko gai izatea lortu nahi dugu:

- Garapena eta azpigarapena munduko arazo orokor berberaren zati direla ulertzekoa.
- Pertsonen, taldeen, herrien eta nazioek beren etorkizuna eraikitzeko dituzten eskubideak onartzea, besteen eskubideak eta natura errespetatuz betiere.
- Pertsonen, herrien, gizartearen eta kulturen aniztasuna guztion aberastasun- eta ikaskuntza-iturri gisa ikustea, arazo orokorrak beren artean lotuta daudela eta izaera dinamikoa dutela ulertuz.
- Garapen integralarekin eta gizakion garapenarekin elkartasunez eta konpromisoz jokatu duen lankidetzarako bideak eta baliabideak identifikatzea, mendekotasun, subordinazio eta ustiapenezko prozesuen aurrean jarrera kritikoa adieraziz.
- Errealitateari buruzko iritzi kritikoa eratzeko lagunduko diguten tresnak eta balioak garatzea, etnia eta arraza ugari izango dituen gizarte bateko kide izatearekin erlazioatutako gaiak ezagutzeko nahia eta mundu interdependentean bizitzeko gogoia sustatuz.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Gizarte Zientzien arloan:

- Garapen-ereduak. Gizakien eta ekonomiaren garapena, Iparralde-Hegoalde kontzeptuak, erdigune eta aldiriko kontzeptuak; garapenerako parametroak, garapen jasangarria; emakumeen egoera eta gizateriaren ongizateari egindako ekarpena.
- Barneko merkataritza eta nazioartekoa, baliabide berrigarriak eta berriezinak, lana, enplegua eta langabezia, ekonomiaren tertziarizazioa eta nekazaritzaren egoera.
- Militarismoa eta gerra, armen produktzioa eta merkataritza, gerra eta pertsonengan, gizartearen eta ekologian dituen ondorioak.
- Ikerkuntza eta zientzia, esparruak eta lehentasunak, teknologia eta arte-produktzioa.
- Parte-hartzea eta demokrazia, garapena sustatzeko elkarteak eta erakundeak, GKEak eta hiritarrek parte-hartzeko bestelako bideak, intsumisioa, kontzientzia-eragozpena eta antimilitarismoa.
- Giza eskubideak, planetako etniak eta herriak, kultura minorizatuak eta desagertuak edo desagertzeko bidean daudenak.

Hizkuntz arloetan:

- Munduko hizkuntzen egoera eta herrien hizkuntz eskubideak. Hizkuntzen arteko eragina. Ukipen-egoeran dauden hizkuntzak: faktoreak eta ondorioak.

- Kultura desberdinetako literatur testuen azterketa: herri desberdinen narrazio mitologikoetako sinboloak ...

Matematika arloan:

- Garapen-bidean dauden herrietako datuen erabilera eta datu horiek eta garatutako munduko herrialdeetakoak konparatzea.
- Kontsumo-datuen azterketa, gizakien garapenarekin eta etorkizuneko bidegarritasunarekin erlazionatuz.
- Komunikabideetan datuak bilatzea, egiazkoak diren eta zein neurritan manipulaten diren ikusiz etab.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Jardueretan denboran eta espazioan urruti dauden gertaerei buruzko taldearen eztabaida eta hausnarketa sustatuko da.
- Enpatia lortzeko jarduerak garatuko dira: murgiltzen dutenak (gertaeretan protagonismoa simulatzea), konparazio analogikoa egiten dutenak (nolakoak garen eta nolakoak diren), rolak aldatzen dituztenak (bestea izango banintz), simulazio-jokoak ...
- Arlo desberdinak biltzen dituen elementu gisa, zenbait gai monografikoren bidez landuko dira (esklabotasuna, eredu demografiko desberdinak, eguneroko bizimoduaren konparaziozko azterketa, hondamendi naturalen ondorioak, ondorio horiek beste gizarte batzuetara eramanez...).
- Baliabide idatzi eta ikus-entzunezko baliabide desberdinak erabiliko ditugu ondoko hauek aztertzeko: beste kultura batzuk “kalifikatzeko” eta baloratzeko orduan dauden estereotipo kulturalak eta ezkutuko balioak, kontrajarritako gatazkak eta interesak, Iparralde-Hegoalde harremanak... eta horiek komunikabideetan islatzeko modua.
- Alderdi horiei buruzko azalpen eta informazioetan honako hauek baztertuko dira:
 - Kontzeptu eta informazioak besterik gabe ematea, horien azalpena azaldu eta eztabaidatu gabe.
 - Fenomeno horien azalpen bakarrak, mekanikoak edo sinplistik, ikuspegi desberdinak ematen ez dituztenak eta urrutikoa eta hurbilekoa lotzen ez dituztenak.
 - Herri eta kultura batzuek beste batzuen gain duten nagusitasuna ezkututzen, minimizatzen edo barkatzen duten adierazpenak.
- Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GKE) harremanak sustatuko ditugu, ikasgelarako egiten dituzten lan-proposamenak ezagutzeko eta gure programazioetan kontuan izateko, hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatzeko eta antolatzen dituzten kanpainetan eta jarduera irekietan parte hartzeko.
- Familiak ere jardueretan parte hartzera bultzatzen ditugu, prestatutako ekintzak garaiz adieraziz eta amek nahiz aitek parte hartu ahal izango duten jarduerak prestatuz. Halaber, zehar-lerro hau sustatuko duten herritarren eta udalaren ekimenetan parte hartuko dugu, ez bakarrik ikastetxean antolatzen direnetan, baita gure inguruko elkartean antolatzen direnetan ere.

KOMUNIKABIDEEN HEZKUNTZA

Komunikabideek gero eta presentzia eta garrantzi handiagoa dute gizartean eta informazio-iturri gisa hartzen duten protagonismoak eta eremu pertsonalean nahiz sozialean eta politikoan egiten duten eragin izugarriak komunikabideei buruzko lan berezia planteatzera eramán gaitu, gure ikasleak hartzaile kritikok izan daitezén eta komunikabide horiek arduraz erabiltzeko gaitasuna eskura dezaten, eskura dituzten baliabideekin mezu propioak sortuz.

Gure ikasleek ondoko gaitasunak garatzea nahi dugu:

- Prentsa, irrati eta telebistako mezuak dekodetzea eta kodetzea jarrera kritiko eta arduratsutik.
- Iragarkiak kritikoki ikustea eta pertsonengan nahiz gizarte-taldeengan eta komunikabideetan duten eragina ulertzea.
- Komunikabideetan jasotako informazioak aprobetxatzea beren esperientziak eta ezagutzak aberasteko, informazioa eta iritzia ondo bereiziz.
- Gizarteko komunikabideen bitartez transmititzen diren balioez kontzientzia hartzea, jokaera baztertzaileak dituztenak edo pluraltasuna eta aniztasun sozial eta kulturala onartzen ez dutenak baztertuz.
- Komunikabideek iritzi publikoan duten eragina eta talde zehatz batzuek komunikabide horiek nola kontrolatzen dituzten eta horiengan egiten duten eragina ikustea.
- Iparralde-iparralde eta iparralde-hegoalde informazio-aldaketen arteko desorekez ohartzea eta kolonialismo kultural horren ondorioak ezagutzea.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Hizkuntz arloetan:

- Iturriak (agentziak, kaleko kazetaritza, toki desberdinetara bereziki igorritako kazetariak, korrespondentsalak, lankidetzak...) eta prozesuak (erredakzioa, aurkezpena, programazioa etab.).
- Komunikabideetako hizkuntzak eta kodeak (ikusizkoa, ahozkoa, idatzia, ikus-entzunezkoa, musikala...).
- Komunikabide desberdinetako generoak, egitura eta ezaugarriak (berria, erreportajea, elkarrizketa, artikulua, irrati-nobelak, telenobelak etab.).
- Informazioaren eta iritziaren arteko desberdintasuna; mezuen irakurketa kritiko.

Gizarte Zientzien arloan:

- Komunikabideek gizartean duten eragina:
 - Transmititzen, sustatzen, baztertzen eta/edo erasotzen dituzten balioak. Iritzi-korronteak sortzeko komunikabideek erabiltzen dituzten estrategiak; iritzi publikoaren manipulazioa.
 - Iparralde-iparralde eta iparralde-hegoalde komunikazio-trukeak. Herrialdeek eta komunikabideen jabeek garapen-bidean dauden herrialdeen kolonizazio kulturean duten erantzukizuna.
 - Kontsumoa, kontsumismoa eta kontsumerismoa eta komunikabideak. Publizitatea eta horren eraginak.
 - Informazioa izateko eskubidea eta informatuta egoteko eskubidea.
- Kazetaritzako enpresa:
 - Organigrama, lanbideak, lan-mundura sartzeko aukera...
 - Fabrikazioko, banaketako, merkaturatzeko, saltzeko eta marketinga egiteko prozesuak.

- Baliabideen jabegoa, beste enpresa batzuekin harremanak. Informazioaren jabeak, frekuentzien banaketa; baliabide publiko eta pribatuak; baztertutako taldeek informazio-kateetan duten isla; komunikabide alternatiboak: irrati eta telebista libreak, prentsa marjinala...

Plastika eta Ikus Hezkuntzaren arloan:

- Komunikabide desberdinek aurkezteko eta maketatzeko erabiltzen dituzten formatu desberdinak (egunkariak, aldizkariak, albistegiak, telebista-programak, publizitatea...).
- Programa baten edo argitalpen baten barnean espazioak eta elementuak banatzeko modua eta mezuan duen eragina.

Oinarrizko Teknologia arloan:

- Egunkari bat edo irrati nahiz telebistako programa bat egiteko, Interneten zerbitzarirako etab. eta horien hedapenerako beharrezkoak diren prozesu teknologikoak.

Matematika arloan:

- Komunikabideetan ageri diren kalkulu eta kontzeptu estatistikoak: KPI, soldata-igoerak, etekinak edo galerak, Mibor, zergak ...
- Zenbakizko datuen azterketa, horien balio erlatiboa eta konparatiboa aztertuz, zenbakizko balioek interpretaziozko eta jarduketazko akatsak sortzea saihestuz.
- Azterketa matematikoa, kontrastea eta jarrera kritikoa komunikabideek agertzen dituzten datuen aurrean.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Informazio-iturri gisa komunikabideak erabiltzen dituzten arlo guztiak.
- Hizkuntz arloetan prentsa- edo irrati-lantegiak antolatuko dira eta ikastetxearen komunikabide propioa sortuko da, inguruko iritziak eta informazioak bideratzeko baliabide gisa.
- Egunero, lehenengo orduan, 15 minutu erabiliko dira egunkari desberdinetan agertutako berriak aztertzeko eta horiek irakurtzera sustatzeko. Arloka edo gaika sailkatuko dira berriak eta artxiboak egingo dira beste une batzuetan erabiltzeko.
- Ikastetxean egunkari handiak jarriko dira hormetan.
- Hizkuntz arloetan edo Gizarte Zientzietan, gutxienez, komunikabide batera bisita bat programatuko da.
- Diziplinarteko lan-proiektu gisa publizitatea lantzeko lan bat programatuko da: haurren edo gazteen irudia komunikabide desberdinetan, emakumeena edo talde marjinaluena, etnienganako eta gutxiengo kulturalenganako errespetua etab.

INTERKULTURALISMOAREN ALDEKO HEZKUNTZA

Kultur aniztasuna aberastasun-iturri da ikasle guztientzat eta gizarteak gero eta gehiago onartzen du ezaugarri sozial hori. Horrez gain, gure ikastetxean eta gizartean gutxiengo etnikoak daudenez, ahalegin berezia egin behar dugu horiei gizartean integratzen laguntzeko eta pertsona horien kultura ikastetxearen curriculumean eta bizitzan islatzeko.

Gure ikasleek ondoko gaitasunak garatzea nahi dugu:

- Beren buruak eta beste pertsonak ulertzea, onartzea eta errespetatzea, hizkuntz eta kultur aniztasuna beren nortasunaren eskubide indibidual eta kolektibo gisa baloratzu.
- Nortasun pertsonala eta autoestimua garatzea, bere taldea baloratu eta errespetatu, estigmatizazioa gaituz, baina etnozentrismoan erori gabe; bestalde, taldeko jardueretan parte hartzea elkartasunean eta lankidetzan oinarrituz.
- Norberaren kulturaren eta beste kultura batzuen elementuak eta kulturen arteko elkarreraginak ezagutzea eta kritikoki baloratzea, aniztasuna errespetatuko duten hizkuntz gaitasunak eskuratu.
- Kultura minoritarioen pertsonengandik gizarte konplexu batean mugitzeko beharrezkoak diren abileziak, trebetasunak, baliabideak eta jokabideak bereganatzea.
- Gatazkak eta pertsonen arteko arazoak konpontzeko nahiz, printzipio edo tradizio etniko edo erlijiosoaren izenean, diskriminaziozko egoerak edo oinarritzeko eskubideen galerak gaituz abileziak izatea.
- Aurreiritzien, diskriminazioen eta bidegabekeriaren kontra aktiboki parte hartzea, beste pertsona batzuen ekarpenen aurrean malgutasunez jokatu, horiek ezagutzeko eta beren balioak aurkitzeko interesa adieraziz eta gure inguruan dugun munduaren irakurketa desberdinak ulertuz.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Arlo guztietan:

- Hizkuntzaren erabilera ez arrazista, besteak beste, kultura edo etnia arrazoi dela egindako diskriminazioak saihestuz.
- Gutxiengoaren kulturen ekarpen teknologikoak, literarioak etab., gehiengoaren kulturak baloratu eta bereganatutakoak.

Gizarte Zientzien arloan:

- Marjinazioaren eta diskriminazioaren kontra lan egiten duten GKEetan parte hartzeko taldeak eta moduak.
- Aberastasuna herrien artean banatzea, nazioarteko lankidetzaren eta elkartasuna.

Hizkuntz arloetan:

- Kultura desberdinetako literatur testuetan, ahozko testuetan nahiz testu idatzietan, ohiturak, gizarteko balioak, balio etikoak... identifikatzea, horietako batzuk ikastetxean presentzia duten gutxiengoaren taldeen ama-hizkuntzan izanik.

Plastika eta Ikus Hezkuntza arloan:

- Kultura desberdinetako jolasak eta forma tradizionalak eta kultura horiek arte-adierazpenetan eta komunikazioan erabiltzen dituzten baliabide desberdinak ezagutzea; musika, dantzak, musika-tresnak, erritoak, apaindurak, artisautza.

Gorputz Hezkuntza arloan:

- Jolaserako eta kirola egiteko eredu berriak prestatzea, kultura desberdinen taldeko edo bakarkako praktiken ikerketan eta azterketan oinarrituta.

Matematika arloan:

- Zenbakizko problemak eta eragiketak ebazteko estrategia desberdinen erabilera, kultura bakoitzean erabiltzen direnetan oinarrituta (zenbakizko kodeen sistemak, kalkulatzeko estrategia desberdinak, neurtzeko sistema desberdinak etab.).
- Estatistikako datu eta tresnak erabiltzea beren ingurunearen eta ingurune hori osatzen duten kultura desberdinen errealitatearen ezagutzan sakontzeko.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Aniztasunaren trataerarako irizpideak azalduko eta aztertuko ditugu, kultura desberdinak bazter ez ditzaten.
- Hizkuntzaren trataeran hartutako erabakiak berrikusiko ditugu, bi hizkuntza ofizialez gain, ama-hizkuntza desberdina duten ikasleek espazioak eta denborak izan ditzaten eta horiek erabiltzeko eta ikasteko jarduerak egin ditzaten.
- Kulturarteko ezaugarriak landuko dituzten helburuak sakonduko ditugu, kultura desberdinetatik eta “balio unibertsaleetatik” helburu bakoitzari buruz egin daitezkeen interpretazioak eta zehaztapenak kontuan izanik eta horiei buruz hausnarketa kritikoa eginez.
- Errealitate konplexu eta aldakorrean sartzeko oinarritzko gaitasun funtzionalekin lotutako helburuak sakonduko ditugu.
- Ikastetxean erabiltzeko materialek (didaktikoak ikasgelan nahiz kontsultarako liburutegian) edo korridore eta eremu komunetan girotzeko jartzen direnek, ikasleen kultura eta errealitate desberdinak islatuko dituzte testuen nahiz irudien bidez.

GIZA ESKUBIDEEN HEZKUNTZA ETA BAKE-HEZKUNTZA

Ezin dezakegu ahaztu gizateriaren hiru laurdena pobrezian murgilduta bizi dela, desoreka demografiko eta sozial larriak daudela, planeta guztian gerra-gatazkak gertatzen direla desberdintasun erlijioso, etniko eta kulturalen ondorioz, gutxiengoaren kulturak eta hizkuntzak mehatxatuta daudela, familian bertan pertsona askoren segurtasun fisikoa eta psikologikoa bortxatu egiten dela edo emakumea gaur egun oraindik ere munduan diskriminatuta dagoela, haurren esplotazioa ...

Gizakiaren duintasunaren errespetua, justizia soziala, pertsonen arteko berdintasuna, elkartasuna, askatasuna... mundu osoko herritarrek eta instituzioek onartzen dituzten oinarrizko balioak eta printzipioak dira. Baina pertsona bakoitzaren eta gizartearen parte-hartze aktiboaren bitartez baino ez da lortuko horiek pertsona guztien funtsezko eta benetako eskubide izatea. Hori lortzeko pertsonen eta kulturen kontrako indarkeriazko kulturen ordezkari bakean eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako kultura nagusitu behar da.

Euskal Herrian, gainera, arrazoi bikoitza dugu beste herri eta herrialde batzuekin batera bakean oinarritutako kultura eraikitzeko: alde batetik, Europako herri bat gara eta giza eskubideen unibertsalizazioan parte hartu nahi dugu eta, bestetik, indarkeria Euskal Herriko gatazkaren eguneroko adierazpena izan da eta bertan nortasun nazionaleko gatazkak, elkartasunezkoak, norbanakoen eta taldeen eskubideen bortxakeriari dagozkionak, bizi izan dira.

Gure ikastetxean giza eskubideen hezkuntza eta bake-hezkuntza ikuspuntu positibotik landu nahi dugu, gatazka beharrezkoa dela eta betidanik gizakiarekin lotuta egon dela ulertuz, pertsonen sormenerako erronka dela konturatuz eta bakea gatazka horiek justiziatik, berdintasunetik eta aniztasunaren arretatik konpondu nahi dituen prozesua dela ohartzuz.

Lortu nahi ditugun helburuak honako hauek dira:

- Ikastetxean eta neska-mutil bakoitzaren pentsamenduan Bake Kulturaren kontzeptua eraikuntza kolektibo gisa ulertzea, gizateriaren historia osoan behin eta berriro ikusi dugun pertsonen arteko indarkeria duen kulturaren adierazpenak eta herrien arteko gerrak gainditzeko.
- Sentikortasuna garatzea eta pertsonen nahiz taldeen oinarrizko giza eskubideen bortxaketaz ohartzeko, horiek gertatzeko arrazoiak aztertuz eta egoera hori jasaten dutenekin bat eginez.
- Indarkeria justifikatzeko mezuak kritikoki analizatzea, legezkoak direla esan arren, armen eta indarkeria zuzena erabiltzea saihestuko duten bide eta irtenbide alternatiboak bilatuz.
- Indarkeria zuzenaz gain, oro har eta baita eskolan ere, egiturazko indarkeria ere badela jakitea, informazioa lortzeko orduan, erabakiak hartzeko orduan nahiz pertsona inplikatuak irtenbideak bilatzeko orduan gertatzen den desorekak eta asimetriak sortutakoa.
- Pertsonen eta taldeen arteko gatazkak ebazteko pertsonen arteko harremanetan eta taldeen parte-hartzean oinarritutako formak sortzea, irtenbideak bilatzeko inplikaturik eta gatazka-egoera gainditzeko konpromisoak hartuz, pertsonen arteko harremanak estutuz, gorrotoak edo gaizki-ulertuak sortu gabe.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Gizarte Zientzien arloan:

- Gaur egungo gertaeren eta gertaera historikoen analisia, gatazkak ebazteko prozesuen ikuspuntutik eta inplikaturik alde eta pertsona guztien ikuspuntu desberdinak adieraziz, irabazleen ikuspegi “historikoa” eta buruzagien edo buru militarren

partzialtasuna saihestuz, indarkeriazko bideek giroan, gizartean, arte-ondarean, paisajea eta kulturaren eta gizakien arteko harremanetan duten inpaktua zehaztuz.

- Dilema moralen erabilera, ikastetxean bertan eta inguru hurbilean gertatutakoekin hasiz, portaeren oinarri diren balioei buruz hausnarketa eta analisia egiteko, inplikaturako pertsonen ikuspuntu desberdinak alderatzeko eta gatazkak konpontzeko indarkeriazkoak ez diren bideak hartzeko aukerak areagotuko dituzten irtenbide desberdinak aztertzeke.

Hizkuntz arloetan:

- Iritziak, interesak eta nahiak adierazteko moduak, nahi dudana adierazteko bideak, gainerako pertsonak eta horien interesak errespetatuz, negoziatzeko formulak eta erabakiak hartzea, inplikaturako alderdien erantzukizunarekin. Iritziak alderatzea eta horien aberastasuna, horretarako ikuspuntu desberdinak aztertuz.
- Ondoko dokumentuen azterketa: gizakien eskubide unibertsalak biltzen dituztenak, giza eskubideen hiru belaunaldiak, nazioarteko erakundeek haurren eskubideei buruz eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz egindako deklarazioak.
- Atzerriko hizkuntzak beste herri batzuekin komunikatzeko eta harremana izateko tresna gisa baloratzea, ikuspegi berriak irekiz, informazio gehiago lortzeko aukera izanez eta pertsonalki aberastuz.
- Beren lanaren bitartez giza eskubideen errespetuaren aldeko borrokarekin konprometitutako idazleak ezagutzea.

Matematika arloan:

- Estatistikako hizkuntza argumentatzeko bide moduan erabiltzea kritikatzeko, akats asko izaten baititu eta, horren ondorioz, askotan, gertaeren interpretazio okerrak egiten baitira.
- Giza eskubideekin eta bakearekin lotutako informazioak eta datuak bilduko dituzten ilustrazioak eta jarduerak erabiltzea.

Natur Zientziak eta Teknologia arloetan:

- Zientzia eta teknologiatik ondorioztatutako arazoak, ingurugiroa erasotzen dutenak, eta garatu gabeko herrialdeen eta kulturen mendekotasuna eta dependentzia eragiten dutenak.

Plastika eta Ikus Hezkuntza arloan:

- Beren lanaren bitartez giza eskubideak errespetatzeko borrokarekin konprometitutako artisten lana ezagutzea.

Gorputz Hezkuntza arloan:

- Lankidetzaren eta elkarren arteko laguntza helburuak lortzeko modu positiboa dela ulertzen laguntzeko jolasak eta kirolak.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Gizarte zibilaren etika edo minimoen etika izango da ikastetxeko bizikidetzaren eztabaidatzeko eta adosteko oinarria.
- Iritziak alderatzea eta parekoen arteko ikaskuntza ahalbidetuko duten talde-dinamikak erabiliko ditugu, hala nola rol-jokoak, simulazio-jokoak, elkarrizketan oinarritutako eztabaidak; pertsonen arteko loturak ezartzea sustatuko dugu, taldea heldutasunerako eramateko eta taldean pertsona bakoitzak dituen harremanak eta funtzioak ezartzeko.
- Lankidetzaren eta elkarrizketa hezkuntza-prozesuaren ardatz nagusi izango dira arloetako lan-metodologian eta horiek praktikan jartzeko uneak eta espazioak bilatzeko.

- Komunikatzeko eta elkarriketarako trebetasunak prestatzeko eta lantzeko bilerak egiteko denbora eta espazio zehatzak esleituko ditugu eta, bestalde, “bitartekotza-taldeak” lan egiteko egoitza finko moduan erabiliko duen espazio bat (ikasleek, irakasleek eta familieek ezagutuko dute kokapen hori) izango du.
- Funtzionamendu-arauetan giza eskubideen hezkuntzaren eta bake-hezkuntzaren filosofia kontuan izango dugu eta gatazkak konpontzeko bitartekari-lana egingo duen Bizikidetza Batzorde bat sortuko dugu.
- Ikastetxea bake-kulturaren SUSTATZAILE deklaratuko dugu, ikasleak eta irakasleak zeregin horretarako agente aktibo bihurtuz, inguruko familia eta agenteekin gai hau landuz eta herrian, eskualdean edo nazioartean giza eskubideen hezkuntza eta bake hezkuntza landuko dituzten beste esperientzia eta programa batzuk ezagutuz.

BIDE-HEZKUNTZA

Bizikidetza, arau bateratuen eta seinale eta zeinu berezien kodeen bitartez arautu behar dela ikustarazi behar die bide-hezkuntzak ikasleei, pertsona guztien eskubideak errespetatu daitezen eta espazioak eta bide publikoak erabiltzeko sortzen diren gatazkak ebazteko.

Gure ikasleek, gaur egun egiten dituzten erabilerekin gain, urte gutxi barru beren mugitzeko gaitasuna handituko duten ibilgailuak gidatuko dituzte eta horrek istripuen arriskua handituko du, aldi berean, ondorio psikiko eta familiarak utzi ditzaketan lesioak sortuz, heriotza sortzen ez dutenean.

Gure ikasleek ondoko gaitasunak garatzea nahi dugu:

- Erantzukizun pertsonalaren etikan oinarrituta, beste pertsonak eta garraio publikoak errespetatuko dituzten jokabide-arauak bereganatzea.
- Gizarteko bizikidetza, besteak beste, garraiobide pribatu nahiz publikoak erabiltzerakoan errespetuan oinarritutako jokabideetan oinarritzen dela ulertzea, pertsonen osasuna eta bizitza bera gure esku egon daitekeela ohartuz.
- Ingurugiroaren kutsadura nahiz kutsadura akustikoa sortzen dituzten jokoerak saihestea eta eremu publikoak erantzukizunez erabiltzeko jarrera erakustea.
- Trafiko-istripuen arazoak ohartzea eta gai honetan pertsona bakoitzak dugun erantzukizun indibiduala eta soziala aztertzea.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Gizarte Zientziak arloan:

- Garraio publikoaren erabilera ingurugiroa zaintzeko eta bizitzeko hiri hobeak lortzeko bide gisa.
- Garraio publikoak erabiltzen dituzten beste pertsonak eta horiek erabiltzeko arauak errespetatzea: semaforoak eta zirkulazio-arauak errespetatzea, oinezko eta lokomozio-bide baten erabiltzaile gisa bide-segurtasuneko arauak errespetatzea, garraio publikoak garbi mantentzeko eta kutsadura akustikoa saihesteko portaera egokiak adieraztea etab.
- Gure ikastetxearen inguruan egunero gertatzen diren egoeren deskripzioa eta azterketa, interesen eta balioen gatazkak analizatuz eta gidari eta oinezkoek nahiz autobusak edo auto partikularrak erabiltzen dituzten pertsonen horiei buruz dituzten ikuspegi desberdinak aztertuz; inplikaturako pertsona gehienentzat forma eta irtenbide erosoagoak eta egokiagoak iradokitze sormena erabiltzea.

Matematika arloan:

- EAEko, Estatuako eta nazioarteko istripu eta heriotzen estatistiken datuak eta inplikazioak aztertzea, komunikabide desberdinek suposatzen duten arriskuei, horien segurtasuna areagotzeko eta beharrezkoak ez diren arriskuak gutxitzeko buruzko ondorio konparatiboak aterez.

Plastika eta Ikus Hezkuntza arloan:

- Publizitatea aztertzea, bereziki ibilgailuena, mezu inplizituak eta esplizituak eta horiekin lotutako balioak ulertzeko. Mezu subliminalak dekodetzea, parodiatzea eta esageratzea eta karteletan, irratiko iragarki laburretan edo bideoetan, segurtasunari eta errespetuari buruz sustatzen ditugun balioekin kontsekuenteak izango diren beste batzuk sortzea.

Hizkuntz arloetan:

- Instituzioen arteko harremanetako eta bide-hezkuntzarekin lotutako testuak aztertzea; salaketa egitea, adiskidetasunezko deklarazioa betetzea, erreklamazioa edo eskaera

idaztea... gazteei erabiltzaileen funtzio desberdinak emanez: trafikoko polizia, istripu batean inplikatzeta...

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Gure ikastetxeko ingurua nolakoa den eta pertsonentzat eta ibilgailuen erabiltzaileentzat atseginagoa eta seguruagoa izateko zer egin daitekeen aztertuko dugu, pertsoneri (ikasleak, irakasleak, familiak) eta erakunde arduradunei (zuzendaritza-taldea, udala, trafiko-zuzendaritza) horiek hobetzeko proposamenak eginez.
- Ikastetxearen ingurua ezagutzeko eta bertan lan egiteko programatutako irteerak antolatuko ditugu auzoa eta hiria ezagutzeko, trafiko-kodearekin bat etorriaz jokatzeko eta pertsoneri eta erakunde arduradunei oinezkoentzako egoera deserosoak hobetzeko moduak, gaizki-ulertzeak eragin ditzaketan egoerak, seinaleztapen okerra etab. adieraziz.
- Programazioan udalak edo beste erakunde batzuek proposatutako bide-hezkuntzarako kanpainetako parte-hartzeak sartuko ditugu, parke mugikorren edo ikasitakoa praktikan jartzeko edo egiaztatze baliabideen erabilera kontuan hartuz.
- Familiak bide-hezkuntzako jardueretan inplikatu dira eta berorietan parte hartuko dute, eta gazteek familiarekin dituzten harremanetan gertatzen diren ikaskuntzako egoeretan haien "konplizitatea" bilatuko dugu: etxeko ibilgailua erabiltzen denean, herri edo hirian oinez dabilzanean etab. Egoera horietan koherentziaz jokatzera bultzatu behar zaie, ikusten dutena, egiteko esaten dieguna baino errazago ikasten baitute.
- Bide-segurtasunaz arduratzen diren erakundeekin koordinazioa bilatuko dugu, haien materialak eta baliabideak jasotzeko nahiz ikastetxearen proposamen eta idatziak kontuan izan ditzaten "joan-etorriako" bideak ezarriaz, gai honetako parte-hartzea eta guztion erantzukizuna egiazkoa izan dadin.

OSASUNERAKO HEZKUNTZA

Osasunerako hezkuntza osasun fisikoa nahiz emozionala, norberarena nahiz taldearena, zaintzeko eta promozionatzeko oinarrizko ohitura, jokaera eta ezagutzak eskuratzeko informaziozko eta ardura progresiborako prozesu gisa ulertzen dugu, beren jokaera eta portaeretan islatuko diren erabakiak hartuz. Hau da, osasunaren promozio-ekintzarako hezkuntza.

Gure ikasleek ondoko gaitasunak garatzea nahi dugu:

- Bere gorputza onartzea osasuna kontuan izango duen edertasun-irizpidearen bitartez, iragarkiek adierazten digutena alde batera utziz, eta adierazkortasuna, oreka pertsonala etab. baloratuz.
- Jokaera sexualaren ondoriozko arriskuak ezagutzea eta aurreikustea: nahi ez diren haurdunaldiak, harreman sexualen bidez transmititzen diren gaixotasunak, esperientzia txarren ondoriozko arrisku psikologikoak etab., bere dimentsio afektibo-sexualaren garapen integratuaren bitartez.
- Osasunarekin lotutako gaietako buruzko informazioa bilatzeko eta osasunaren arazoak konpontzeko elkarriketa zintzoa eta irekia erabiltzea, hizkuntza zehatza eta ez diskriminatzailea erabiliz eta parekoen, inguruaren eta publizitatearen presioen aurrean adierazpenean oinarritutako komunikaziorako trebetasunak erabiliz.
- Osasunari eta, zehazki, elikadurari, sexualitateari edo sustantzien kontsumoari buruzko beldurrak, tabuak eta iritzi okerrak gainditzea, portaera arduratsuak eta aurreiritzik gabeak hartuz eta besteen aukeren aurrean errespetua adieraziz.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Gizartearen nahiz gazteen eskaerei erantzuteko gai jakin batzuen lanketari garrantzi berezia emango diegu:

- Heziketa afektibo-sexuala: nahi ez diren haurdunaldien eta hiesaren prebentzioa (4. mailan bereziki).
- Mendekotasuna sor dezaketen sustantzien gehiegizko kontsumoa prebenitzea.
- Elikadura orekatua, alderdi horretan gerta daitezkeen arazoei, hala nola bulimiari, anorexiari edo ingestio konpulsiboari, aurre hartzeko.

Natur Zientzien arloan:

- Neraberazoan gertatutako aldaketak: premia fisikoak, psikikoak eta harremanei dagozkienak, bizikidetzarako oinarrizko balioak landuz: tolerantzia, elkartasuna, errespetua... Bere irudiari, egonkortasun emozionalari, pertsonen arteko harremanei etab. nola eragiten dieten jakitea.
- Erantzun sexuala gizon nahiz emakumearengan, sexu-grinaren, eszitazioaren eta orgasmoaren faseak ezagutzuz. Ernalkuntza, haurdunaldia eta erditzea: prozesu eta ondorio fisikoak, psikikoak eta sozialak. Antisorgailuak.

Gizarte Zientzien arloan:

- Nortasun sexuala eta generoaren rola bereiztea, biologian eta kulturaren oinarrituta eraikitako estereotipoak aztertuz elementu diskriminatzaileak saihesteko.
- Gazteen jokaeren azterketa, gizarteak onartutakoak nahiz baztertutakoak, eta horien arrazoiak ezagutzea. Gazteen arteko maitasunezko harremanak eta sexu-harremanak, ardurak, arriskuak eta horiek aurreikusteko moduak kontuan izanik.

Hizkuntz arloetan:

- Sexuarekin, drogekin eta elikadurarekin erlazionatutako osasunari buruzko mezuak, horien jatorria eta asmoa aztertuz, asmo esplizituak eta implizituak eta horien balioak argituz.
- Nahi dudana eta nahi ez dudana komunikatzeko elkarrizketa eta adierazpenean oinarritutako komunikazioa erabiltzea: esate baterako, sexu segurua egitea edo drogei eta dietei ezetz esatea, publizitatearen presioari aurre egitea etab.
- Sexualitatea literaturan eta sexualitatearen literatura (informazioak, iritzi-artikuluak, iruzkinak etab.). Emakume mehearen erabilera publizitatean arrakasta lortzeko irudi gisa. Drogak, hiesa eta marjinaltasunarekin lotutako balioak.

Matematika arloan:

- Biztanleriei buruzko datuen edo osasunarekin lotutako alderdien erabilera: txertoak, osasunerako kaltegarriak diren sustantzien kontsumoa, kostu ekonomiko eta soziala etab., osasunean duten eragina aztertuz.
- Biztanleriei buruzko datu estatistikoak biltzea, prozesu fisiologikoekin, elikadurarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin lotutakoak, eta horiek grafikoetan irudikatzea.

Gorputz Hezkuntza arloan:

- Osasuna zaintzea praktika fisiko koherentearen bidez –etengabea, segurua eta arautua–, nolakotasun fisikoen bilakaera eta kontrolerako prozesuei buruz (bihotzaren eta arnasaren frekuentzia...) dituen ezagutzak aplikatuz.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Bizitzaz gozatzeko eta gaitasunak garatzeko ikuspegi positiboak izango dira nagusi gai hau lantzerakoan, alarma-deiak eta arriskuak soilik azpimarratu gabe eta beldur izugarriak sortzen dituzten mezuak alde batera utziz. Autoestimua eta erronkak sustatzea oinarritzeko estrategia izango da.
- Pertsonen arteko topaketa eta iritzien alderatzea sustatuko dituzten talde-jardueretan parte-hartzea ahalbidetzea izango da osasuna tratatzeko bide naturala, informazio-saioak baliabide puntual gisa erabiliz. Landuko ditugun gaietan pertsona adituen laguntza izango dugu.
- Osasuna zaintzeko giroa sortzeko ekintzek irakasleen jokaera eta portaerak izango dituzte oinarritzat eta pertsonen arteko harremanak zainduko dira bereziki. Egiten dugunak esaten dugunak baino gehiago hezten du.
- Lan-talde bat edo osasunerako Hezkuntzarako Batzorde bat sortuko dugu, klaustroaren zereginak (arlotu guztietako curriculumean txertatzea) koordinatzeko eta dinamizatzeko eta ikastetxearen ekintzak antolatzeko, udaleko beste erakunde batzuekin batera lan eginez.
- Gizarte-ongizateko (drogazaletasun-zerbitzua) eta osasuneko udal-zerbitzuekin eta alor horretako inguruko beste zerbitzuekin harremanetan jarriko gara, ekintza koordinatuak garatzeko eta inguruko baliabideak aprobetxatzeko. Eskura ditugun zerbitzuen ezagutza eta zerbitzu horien erabilera jakinaraziko diegu ikasleei.

INGURUGIRO-HEZKUNTZA

Neska eta mutil gazteek ingurunearen bi kontzepzio erabiltzen dituzte aldi berean: sakralizatzailea edo mitikoa –natura elementu estatiko moduan ikusten du eta gizakiaren esku-harteak ezin du hor ezer aldatu– eta ingurunea baliabide-iturri gisa erabiltzen duena, gure bizi-maila mantentzeko behar dugun guztia ematen diguna. Horrekin batera, gero eta jende gehiagok pentsatzen du garapen zientifikoak, teknologikoak eta sozialak ondorio negatiboak izan dituela naturan, planetaren bizitzan eta pertsonengan.

Aurreko guztia kontuan izango duen ingurugiro-hezkuntzak ingurunearekin dugun harremanean etika holistikoa izateko eskatzen du, alderdi naturalak eta gizakien jarduera kontuan izango dituen, eta ingurugiro-hezkuntzak funtzio garrantzitsua beteko du pertsonak esparru afektibo eta kognitibotik kontzientziatzeko eta inplikatzeko, informazioak jokaerak alda ditzan eta pertsona horien eguneroko bizimoduan eta ikastetxeko jardueretan duten portaeran aldaketak ekar ditzan.

Ingurugiro-hezkuntzaren garapenean honako helburuak lortu nahi ditugu:

- Ingurugiroari dagozkion arazoek konplexutasuna eta zentzu kritikoa garatzeko eta arazo horiek ebazteko jokaerak garatzeko beharra adieraztea, arloetan oinarrituta diziplinarteko ikuspegia hartuz, ikuspuntu orokorrak eta orekatuak izateko.
- Ingurugiroaren arazoek sintomak eta benetako arrazoiak aurkitzea, herri-mailan nahiz nazioarte-mailan; arazo horien ondorioak aztertzea, irtenbide desberdinak baloratzea eta horien hobekuntzan laguntzea, batez ere Euskal Herrian planteatzen diren arazoek kasuan.
- Ingurugiro-hezkuntza gazteek jarraitu behar duten prozesu etengabea dela ulertzea, eskolako alderdiak eta eskolaz kanpokoak lotuz, ikaskideekin egiten dituzten ikasketak eta aisialdian eta eguneroko bizitzan egiten dituztenak erlazionatuz.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Natur Zientzien arloan:

- Ingurunearen kontzeptu orokorra sistema gisa eta osagaien arteko elkarrekinak.
- Bioaniztasunak eta hori galtzeak duen garrantzia, lurzoruen eta uraren aberastasuna, garrantzia eta degradazioa.
- Ingurune naturalaren kudeaketa. Partzipazioa eta gizarte-responsabilitatea.
- Energia iturriak eta berre kontsumoa.

Gizarte Zientzien arloan:

- Espazioa eta gizarteak: okupazioa, demografia, habitata eta hirigintza. Gizateria eta ingurunea.
- Antolamendu ekonomikoa: baliabideak eta ustiapena, lan-mundua.
- Ingurunearen erabilera hiritarrak edo landatarrak, harremanak eta arazoak, lurraldearen antolamendua, kudeaketa demokratikoa eta parte-hartzea.
- Inguruko bizimoduen eragina, kontsumoa eta oreka orokorra, garapen jasangarria eta gizakiaren garapena.

Matematika arloan:

- Problema ebazteko espezioen eta natur baliabideen narriadurari buruzko datuak erabiltzea eta ingurugiroa zaintzeko ohiturak sustatuko dituzten arazoak planteatzea.
- Datuen azterketa kritikoa, komunikabide desberdinetan gai horiei buruz etengabe entzuten ditugun mezuak eta informazioak.

Oinarrizko Teknologia arloan:

- Teknologiaren eta gizartearen arteko harremanak eta ingurugiroan duten inpaktua.
- Ingurugiroa zaintzeko egokiak diren segurtasun- eta higiene-arauak.

Gorputz Hezkuntza arloan:

- Ingurune naturalean praktika fisikoak egitea, ingurugiroa zaintzeko eta hobetzeko hartu behar diren bideak eta neurriak kontuan hartuz.

Plastika eta Ikus Hezkuntza arloan:

- Hurbileko ikus-ingurunea eta ingurune plastikoa zaintzeko eta errespetatzeko interesa.

Musika arloan:

- Soinu kutsadura..

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Ingurugiro-hezkuntzako ezagutzak eta eguneroko bizitza erlazionatzea garrantzitsua da. Eskolako erabilerak eta ohiturak ikertzeko eta aldatzeko praktika egokia EKOAUDITORIA deritzona da, eskolako ekosisteman materia eta energia erabiltzen baitira eta hondakinak eta kutsadura sortzen dira. Inpaktu horren azterketak eta ondorioak hobetzeko moduak bilatzeak informazio ugari eta hausnarketa interesgarriak sortuko ditu.
- Beste alderdi batzuen artean, bakarka nahiz taldean, paperaren, energiaren eta uraren kontsumoa azter dezakegu, zenbat paper erosten dugun eta nola erabiltzen dugun (aurpegi bat edo biak), inprimagailu eta fotokopiagailuen tonerrak etab.
- Prospekzio eta simulazio-ariketek hausnarketa eta ekintzarako potentzial handia eskaintzen dute. Esate baterako, lan-munduari buruzko simulazioak, funtzio eta ikuspegi desberdinak hartuz, zainketa eta segurtasun pertsonalari buruz eta taldeekiko orekari buruz hausnarketa eginez, inguru hurbil eta orokorrean izandako ondorioak aztertuz etab., arrazoi interesgarriak ematen dituzte talde handian bizipen eta hausnarketa pertsonalak eztabaidatzeko.
- Laboratoriora edo berariazko jardueretarako gela (aroztegia, metala, elektronikak) erabiltzen dugunean, segurtasun-arauak berrikusiko ditugu eta pertsonen osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen sustantzien erabilera zainduko dugu.
- Jarduketak planifikatzeko eta giza baliabideak eta baliabide materialak mugitzeko Ingurugiro Kudeaketarako Batzorde bat eratzea lagungarri izango da ekoauditorean nahiz ikastetxean planteatuko ditugun ingurugiroko hobekuntzak kudeatzeko. Hezkuntzako eragile guztiek ordezkari bat izango dute bertan: ikasleek, gurasoek, inguruko instituzioek eta erakundeek eta, jakina, irakasleek.
- Batzorde honen izenak eta lan-eremuak alderdi orokorrakoak har ditzake, osasuna eta segurtasuna edo garapen jasangarria adibidez.

KONTSUMO-HEZKUNTZA

Hiritar guztiek merkatuko errealitateaz ohartu behar dutela uste dugu eta kontsumitzaile gisa dituzten eskubideak ezagutzeko eta erabiltzeko beharraz kontzientziatu behar dutela. Beraien beharretara egokitutako erabakiak hartzeak, hau da, askatasunez erabakitzeak, informatuta egotea eskatzen du eta alferrikako kontsumo irrazionalera bultzatzen gaituztela jakitea eskatzen du; horrez gain, kontsumo-mota horrek ingurugiroan eta gure osasunean dituen ondorioak ezagutu behar ditugu.

Gainera, adin hauetako gazteak produktu zehatz batzuen helburu dira eta mezu kontsumisten aurrean oso ahulak dira; horregatik, gazte horien errealitateari abiatu behar dugu, inguruak zehar-lerro honen garapenean botatzen dizkien mezuak aztertuz. Ildo horretatik, publizitatea, kontsumo-gizartearen oinarriko tresna den heinean, gure lanaren hausnarketarako eta analisirako ardatz bihurtuko da.

Ikuspuntu honetatik, gure ikasleek ondoko gaitasunak garatzea nahi dugu:

- Kontsumo-ekintzetan planteatzen zaizkien arazoak eta egoerak modu egokian ebatzea, merkatuaren funtzionamendua eta egitura eta horiek gertatzen diren testuingurua ezagutzuz.
- Pertsona kontsumerista gisa jokatzeko, beren eskubideak defendatuz, eta kontsumitzaileen eskubideak defendatuko dituzten ekintza eta erakundeetan parte hartzea eta laguntzea.
- Pertsona baten eta gizarte baten bizi-kalitatea kontsumoaren arabera neurtzen ez dela ulertzea, beharrezkoak diren gauzen artean eta beharrezkoak ez direnen artean bereizteko gaitasunaren arabera baizik, eta, bestalde, pertsona guztien oinarriko beharrak asetzeko gaitasunaren arabera; horrez gain, erabaki horiek ingurugiroan eta osasunean dituzten ondorioak ezagutu behar dira.

Zehar-lerro honen ikuspegi bereziarekin ondoko edukiak landuko ditugu:

Arlo guztietan:

- Portaera kontsumeristaren oinarriak: kontsumitzaileari zuzendutako informazioa bilatzeko, aztertze eta interpretatzeko prozeduretan entrenatzea, erreklamazio indibidualaren eskubidea erabiltzea eta, taldean, konparaziozko azterketak egitea, elikadura orekatua eta osasungarriak lortzeko oinarriak eta tresnak ezagutzeko...

Gizarte Zientzien arloan:

- Kontsumo-gizartearen egitura eta funtzionamendua: produkzio eta kontsumoaren sistema, marketing-mekanismoak, publizitatea, zerbitzu publikoen funtzionamendua eta erabilera...
- Kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak buruzko legedia, kontsumitzaileen elkarteak, administrazioa (KIUB, Kontsumo Zuzendaritza...), hiritarren erakundeak.

Hizkuntz arloetan:

- Publizitateak produktuei emandako balioak, beharrak asetzeko erabilera-balioa, truke-balioa edo prezioa bereiziz, produktuarenganako erlazio afektiboaren ondorioz emandako balio sinbolikoa eta benetako balioa edo kontsumo-objektuak sozialki irudikatzen duena bereiziz.
- Marketing-kanpainak diseinatzea, horretarako eskura dituzten balioak erabiliz: produktuaren deskribapena, zuzenduta dagoen jendea identifikatzea, publizitate-kanpaina planifikatzea, euskarriak aukeratzea, eragina baloratzea etab.

Matematika arloan:

- Kontsumo edo zerbitzuko edozein ondasun-motaren kontsumoan dauden alderdi ekonomikoak; kalkuluak egitea eta erosketan eta ordaintzen aurreikuspenak egitea.
- Proporzionaltasun-erlazioaren eta bankuekin, seguruekin edo finantza-etxeekin erlazioei buruzko problemen enuntziatuetan hori adierazteko modu desberdinen erabilera.
- Estatistikako taulak eta grafikoak nahiz funtzioen grafikoak erabiltzea eta kontsumoarekin erlazioatutako alderdiei buruz komunikabideetan lortutako datuak aztertzea.

Natur Zientziak eta Teknologia arloetan:

- Pertsonengan eta taldeengan kontsumoak dituen ondorio orokorrak, bizi-kalitateari, ingurugiroaren eta osasunaren narriadurari, baliabideen eta lehengaien erabilerari... dagokienez; kontsumo arduratsuen bidez horiek saihesteko eta minimizatzeke moduak.

Zehar-lerro hauek garatzeko ondoko *irizpide* hauek izango ditugu kontuan:

- Zehar-lerro honetan beharrezkoa da jakintzen funtzionaltasunean eta inguruarekin duten harremanean enfasi berezia jartzea, baliabideen iturri nagusia bizi garen inguru kontsumista baita eta inguru horretan zentzua izango du kontsumitzailea eta erabiltzailea babesteko mugimenduak agertzeak. Horregatik, beharrezkoa izango da:
- Denda eta merkataritza-gune handietara irteerak programatzea, ondorengoak aztertuz: sekzio eta produktuen banaketa, produktuen estetika eta antolaketa, etiketak eta prezioak, produktuei buruz informatzeko mezu grafikoak eta idatziak, kutxen kokapena eta produktuen buruak, irteeratik hurbil jarritako erakustokiak etab.
- Publizitatean aritzen diren pertsonekin harremanetan jartzea (kreatiboa, modeloa, marketing korporatiboaren arduraduna etab.) gremio eta enpresa horien funtzionamenduaren oinarri diren irizpideak ezagutzeko.
- Inguruko familia eta erakundeekin jolasteko eta trukatzeko jarduerak antolatzea auzorako eta gurasoentzako, kontsumo-hezkuntzaren gaiaren inguruan hausnarketa sustatzeko egindako produkzioak aurkeztuz, familien inplikazioa oinarritzkoa izango delarik.
- “Birziklatutako” testu-liburuen, jokoan nahiz ordenagailu-jokoan trukea ahalbidetuko duen *merkatua* antolatzea eta kontsumo arduratsua sustatzeko jarduerak egitea, GKEek proposatutako merkataritza justua eta elkartasunean oinarritutakoa kontuan izanik etab.